

Aita Luis VILLASANTE

AXULAR

MENDEA GIZONA LIBURUA

Bigarren agerraldia

OHARRA

*Liburuaren salneurria
beheratu beharrez,
agerraldi berri hau
lehenbizikoaren testu berberaz
–1972koaz, alegia–
azaltzen da, deus gaurkotu gabe.
Aldatu beharko liratekeen zenbait gauza
ez da, bada, aldatzerik izan.
Barka. L. V.*

AIPAMENAK EGITEKO ERA

Axularren aipamen guztiak era honetara egiten dira: Ax. Letra horien ondoren ematen den numerua, 5. edizioan egin zen partiketaren aurauaz eginik dago. Beraz, orrialdeaz ez du zer-ikusirik, bazterrean ageri den numeruaz baizik. Axularren aipamen guztietan kontuan eduki bedi hau.

Aldizkarien aipamenak:

Riev. «Revista Internacional de los Estudios Vascos», Urquijo jaunak sortu eta argitaratzen zuena.

GH, «Gure Herria», Baionakoa.

FLV, «Fontes Linguae Vasconum», Iruinekoa.

BAP, «Boletín de la Sociedad de Amigos del País», Donostiakoa.

«Egan», Donostiakoa.

«Euskera», Euskaltzaindiaren aldizkaria, Bilbokoa.

«Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos», aldizkaria (Buenos Aires).

«Euskal Herria», aldizkaria (behinolakoa).

«Euzkadi», aldizkaria (behinolakoa).

«Euskal Esnalea», (behinolakoa).

«Aránzazu», aldizkaria.

Aurkibidea

Aitzinsolosa	11
MENDEA GIZONA LIBURUA	
Urdazubi, Axularren jaioterria	19
Axularren izena	23
Axularren izenaren idazkera	24
Sara, Axular bizi eta hül zen herria	26
Herria eta inguruak	27
Kondaira oroitzapenak	28
Euskal erakarmena	29
Nor zen Axular (Bizi xehetasunak)	31

Sorterria eta deiturak	31
Axularren sortze urtea	32
Axularren istudioak	33
Salamancako eskola giroa	34
Bizi xehetasunak (segida)	38
Axularren ordenazioak	41
Donibane Lohizunen jartzen da	41
Gurasoak	44
Axular, Sarako Erretore	44
Sarako erretorgoa hauzipean	44
Saran egon zen denborako berriak	48
Axularren ospe hildoa	50
Bertrand de Echaz Arzipizpikua (1556-1641)	52
Bizi xehetasunak	53
Bi erresumen artean	56
Axular euskal folklorean	58
Lapurdi	61
Lapurdi eta Arantzazu	67
Sorginak Lapurdin 17. mendean	72
Politika egoera	77
Erljio eta kultur egoera	82
Euskal literaturaren sorrera	89
Sara Donibaneko giroa	90
17 mendeko euskal liburuak	93
Gero ren aintzin solasa	96
Zer da, literaturan, maisu-lana?	100
Axularren liburuari mendez-mendez egin zaizkion laudorioak	105
Joannes Etxeberri (1668 1749)	106
Manuel de Larramendi (1690 1766)	107
Pedro Antonio de Añibarro (1748 1830)	108
Francisque Michel	109
Manuel Inchauspe (1815 1902)	110

Luis Luziano Bonaparte Printzea (1813-1891)	110
Julio de Urquijo (1871-1950)	111
Resurreccion M ^a de Azkue (1864-1951)	112
Jean Etxepare (1877-1935)	113
Nikolas Ormaetxea «Orixo» (1888-1961)	114
Aita Justo Mokoroa «Ibar»	114
Pierre Lafitte	115
Jules Moulier «Oxobi» (1888-1958)	116
Juan Gorostiaga	116
Manuel Lekuona	117
Luis Mitxelena	117
Ibon Sarasola	118
GERO-k izan dituen edizioak eta itzulpenak	120
Lehen edizioa (1643)	121
Bigarren edizioa	123
Hirugarren edizioa (1864)	125
Laugarren edizioa (1954)	126
Bosgarren edizioa (1964)	127
Urqujorena RIEV-en	128
Gero-ren itzulpenak	130
Liburuaren orijinaltasuna	132
Autore aipatuak eta iturriak	134
Fr Luis de Granada	136
Testu paraleluak	140
Orijinaltasunaren funtsa	156
Axularren literatur bide berezia	159
Liburuaren mamiaz	165
GERO-ri darioen umore puntta	169
Mami eta azalaren arteko ezkontza	174
OSAGARRI: GERO-REN IRAKURGAI HAUTATUAK	
GERO-ren atarian	183
Gomendiozko karta	183
Irakurtzaileari	187

Giza-bizitza	192
Denbora	192
Gaztezaroa	194
Zahartzaroa	195
Luzamendutan	197
Irabazia, gizonaren eragile	198
Etsaia etarik probetxua	199
Alferra eta alferkeria	202
Kristau bizitza	205
Bi bideak	205
Kofesioa	208
Esperantza faltsoa	211
Haserrea	213
Jainkoa, pozgarri	216
Teologi gogoetak	220
Kontzientzia	220
Ifernua	223
Gorputz mistikoa	225
Controversia de auxiliis	226
Alegiak eta ipuinak	230
Uraren pareko gara	230
Geroago nekezago	232
Semiramis eta erregeren itsumendua	233
Bibliografia	237

Aitzin solasa

Axular hil eta 70 urte geroago bazebilen Etxeberri euskerarentzat aitzindari bat bilatu nahiz. Gidari, pilotu, buruzagi bat nahi zukeen euskera zurtz jabegabeko, untzi pilotu gabe honentzat. Mendez mende arrokapean, itsaso eta uhinpean galdu gordean bezala dabilen honentzat...

Gidaritza honen beharra frogatzeko, zer ez du Etxeberrik aipatzen! Zeruko hegazti, itsasoko arrain, naturazko, arrazoinetzko eta izpirituzko

kreatura guztiek betetzen omen dute lege hau. Lertsun, delfin, balea, erle, perla-maxkorrek... Eta adimendu gabeko animalietan bezala, orobat betetzen omen da Teologian, Filosofian, Mirikuntzan, Legetan, Elizan, Erresuman, Harmadan...

Euskera ere buruzagi eta maisu baten behar-rean dugu, beraz. Eta buruzagi-zeregin hau betetzeko Axular izendatu zigun. Teologiaren mami hautua bildurik euskeraz ederkienik eman diguna... (Ikus *Obras Vascongadas...*, 59 n.).

* * *

Bai. Euskaldun prosaren kreatzailea dugu Axular. Eta haren liburuak, aspaldiko euskal literaturan, egitez eta izatez halako buruzagitza bat izan duela, ezin da ukatu. Orduko egoitzak, euskal kontzientzia urriak eta nolabaiteko giroak jasan zezakeen moduko gidaritza bat.

Gero-ren egilea, berriz, Axular bera, ahaztuxea izan dugu. Arrazoinenez idatzi zuen Urquijok:

No deja de ser extraño, -escribí en otra ocasión- el hecho de que, con ser Axular el mejor de los euscarógrafos antiguos, nadie se haya cuidado aún de escribir su biografía. Si M. Julien Vinson y el presbítero vasco-francés, M. Haristoy, -añadía- no le hubieran dedicado unas líneas en sus respectivas obras, es casi seguro que todos nuestros conocimientos respecto a él, se reducirían a saber que había sido el autor del GUERO.

No pretendo yo subsanar esa falta, pues no poseo materiales suficientes para escribir una biografía completa del párroco de Sara: pero creo facilitar la labor de quien en el porvenir la escriba, reuniendo aquí cuantos datos he logrado acerca de la materia y publicando una serie de documentos inéditos, algunos de los cuales están copiados de los originales del Archivo de Pau y otros me han sido facilitados por el sabio historiador, hoy arcipreste de Pau, M. Dubarat, a quien me complazco en enviar el testimonio de mi sincero agradecimiento (J. de Urquijo, *Axular y su libro*; RIEV, V, 541).

Gure mendean RIEV delakoak emandako bultzada ederrari esker, urrats handi bat egin da Gero-ri euskal literaturan zor zaion tokia birmundakion. Gero-ren egileari buruz ere berri jakingarri franko argitara eman dira. Ez dira, noski, biografia oso bat idazteko behar lirakeen beste. Baina Axularren bizitzako mugarri nagusiak behintzat sendo eta fermo ezarriak dira.

Berri jakingarri hoiek, ordea, hor hemen barreiatuak zeuden.

Nik liburuxka batean eta euskeraz eman nahi izan ditut, Axularren liburuari sarrera bezala.

Izan ere, haren liburua konprenitzeko, Axular bera nor zen jakiteak, hari buruz ezagutzen diren xehetasunak ikasleari eskura emateak, zer eta zenbat laguntzen duen, inork ez dit ukatuko.

Hortaz gainera, orduko mende, ingurumari,

giro eta egoitzari ohartzea eta kasu egitea, ez bakarrik probetxugarri, bainan beharrezkoa ere bada.

Eta azkenik, liburuari berari buruz jakingarriak beharrezkoenak xeheki ematen dira, eta bai *Gero*-ren dohainik nabarmenak gaingiroki aipatu ere.

Arantzazun emandako kurso baten ondorioa izan da liburuxka hau. Ez dut uste lehen jakinez gainera funts handiko gauzarik erantsi dudarik. Hala ere, liburu batean eta euskeraz Axular eta haren liburuarekikoak biltzeari betiere mesedegarri derizkiot.

Badakit sarrera hau kasik larrainean gelditzen dela. Barrenera sartu gabe, alegia. Baina zerbaitez hasi beharra zegoen. Eta honelako lanetan kanpoaldetik eta axaleko gauzetarik hastea izan ohi da legea. Errazago eta bai premiatsuago ere izaten bait da.

Hoietan beretan ere hutsune asko aurkituko duzu. Pundu ilun asko. Erantzun eske den anitz galdera. Edo jakin iturriren faltaz, edo eta langilerik hartara jarri ez delakotz. Beti, edo gehienetan behintzat, argitu gabeko puntu hoiek salatzen ditut, ikertzaile edo langile berri gazteei ihizia eraiki nahiz.

Gero liburuaren beraren mintzaira, estilistika eta abar xeheki istudiatzera ez naiz jartzen. Hori

beste lan bat bait litzake. Eta liburuxka honek sarrera besterik ez du izan nahi.

Haatik, Axularren liburuan barrena sartzen hasteko pusketa hautatuak ere jarri ditugu.

Aurki, Jainkoak nahi baldin badu, Axularren hiztegia emango dugu, haren hitz, esanbide eta itzulikez osatua.

Izango ahal dira denak, Euskera «zurtz jabe-gabeko» honek nahi eta behar lukeen pilotu hori aurkitzen laguntzeko!

A. L. Villasante, ofm
Arantzazun, 1972, ekainak 27

Mendea. Gizona. Liburua.

HIZTEGIA

OHARRA. — Irakurlearentzat lagungarri izan dadin eratzten da hiztegi hau, eta Axularren hitz gutxi ezagunak biltzen dira bakarrik.

abantail=bentaja
abantaillatu=bikaina
abiatsu=ibiltzen hasi
agian=menturaz, beharbada
ahakartu=burukatu
ahalke=lotsa
ahalketu=lotsatu
aha-zabal=aho-zabala
ahitu=agortu
aieru=keinua
aiher izan=zale izan
aihurtu=makurtu
aingiru=aingerua
airatu=airean ibili; airea hartu; zabaldu
aise=gustora; alfer; lanik gabe
aisia=lasaitasuna, atsedena
aitonen seme=zalduna
aitzinatu=eragin, bultzatu, arrera eraman
aitzindari=buruzagia
aitzineko=aurrekoa
aitzingibel=ingurua, aurre-atzeak
aitzitik=bestela baizik, kontrara
alabaiña=hala ta guztiz ere
aldiratu=apartatu
alde edo moldez=batera edo bestera
alegera=arraia, alegrea
alegeraki=pozik
alegriantza=alaitasuna, alegria

alhadura=oinazea, mina, autsia
alhatu=oinaze eman; bazka eman
amurus=maitemindua
anarterainokoan=bitartean
anhitz=asko
antsia=ardura, kezka
antsikabe=axolakabea
antze=trebetasuna
antzu, anzu=gisa, era
anzatsu=trebea
aphur=eskasa, balio gutikoa
aphur bana=pixkaka, baratxe, geldiro
ararteko=bitartekoa
arartekotasun=bitartekotasuna
arau=erregela
arbuatu=mezpreziatu, esetsi
ardurako=arrunta
are... ere=baita... ere
arnegari=biraolari
arnegu=madarikazioa, biraoa
arrai=alala
arraiki=pozik, atseginez
arrazadura=ajea, mina, gaitza
arrenkura=espa, aienea
arrotz=arraroa
artez=zuzena
art-urratze=argi urratzea, egunsentia

asaldatu=nahastu, onetik irten
asaldu=ezin egona
asko=aski
athalzain=atezaina
atzeman=harrapatu
auhendu=dolutu, damutu
autsiki=aginka egin, orzka egin
autsiki=aginkada, grauskada
aztura=ohitura

bakohtx=mordoska, batzuk
balatu=palagua
balentia=obra harrigarria
ba'iatu=probetxatu
baratu=gelditu
barazkari=baskaria
barber=pratikantea
barride=hauzotarra
barurtu=barau egin
ba' bedera=bakoitza
bazka=janaria
bedere=gutxienez
begiorde=betaurrekoa
begi orde thaillu=betaurreko mota
begiratu=gorde
begitarte=aurpegia
begitarte on egin=harrera on egin
behatu=begiratu
behaztopa-harri=ozotopoa
behaztopatu=oztopo egin
beheititu=beheraka joan
be' ereko=behekoa
bekhaiztu=inbidiaz egon
beltzuri egin=aurpegi txarra jarri
benturatu=arriskatu
berantetsi=berandutzat jo
beratu=bigundu, samurtu
berdin (conj.)=oro har, dena ongi pentsatzera
beregaiñezko=bikaina, legez kanpokoa
berretu=gehitu, handitu
berretura=gehitzea
besta=festa, jaia
bestale=festa laguna

bezanbat=hainbat
bianda=janaria
biatan=bi aldiz
bidegabe egin=zuzen kontrako zerbait norbaiti egin
bihi=alea, garaua
biidu=itzuli, bihurtu; batu
bi'hakatu=bihurtu, aldatu
biluzi=larru gorrian utzi
bi'uzi (ezpata)=zorrotik aterea
bisera=betaurrekoa
bithore=gaia, trebea
bizikai=jatekoa
bonbazia=harrokeriazko apaindurara
borrero=erailea, berdugoa
bortitz=gogorra, sendoa
bortxatu=indarka egin, behartu
bothere=agintea, ahala
bozkario=poza
boztu=poztu
bulkhatsu=bultzatu, egotzi, bota
burdingori=sutan gorritutako burdina
burupe=itzala, errespetagarritasuna
burutan athera=atarramendu ona eman
buztandu=erne

damu egin=atsekabe eman
damuztatu=damutu
dastatu=miazkatu
debekatu=galerazi
debeku=leku debekatua
deblauki=zalantzarik gabe
deithoratu=erosta jo
deliberamendu=erabakia
deliberatu=erabaki
desenkusa=aitzakia
desira=desioa, gogoia
desiratu=desiati
desirkunde=gogo ustela
despitatu=etsipenean erori
deus=zerbait, zer edo zer
deusguti=gauza guti
dohatsu=zoriontsua
dolutu=damutu

gogarako=gogoko
gongoeta eragin=pentsa arazi
goibel=iluna
goithatu=zuhurra, burutsua
golardoatu=saritu
gomendiozko karta=norbait ino-
 ren babespean jartzen delako
 agiria
goratu=ostu, lapurtu
gutiziatu=desiatu, gogoia eman

habarrots=zarata, hotsa
habuin=lerdea
halaber=orobat
handik harat=gerorako, etorki-
 zunerako
handirasun=handikeria
hartzekodun=zordunagandik har-
 tzeke duena
hastandu=aldendu, urrundu
haste=hasiera
hats-beherapen=zotina
hats hartu=arnasa hartu, lasai-
 tu
hebain=elbarria
hedatu=zabaldu
hegal=egaztiaren egoa; mendi
 malda
hegaldatu=hegan egin
hegigoa=haserretasuna
herabe izan=higuin izan
herdoildu=lizundu
herra=gorrotoa
hertsi=itxi
hezatu=busti
hezuera=hezurretako gaitza,
 artritis
higatu=gastatu
histu=ase, gogoia bete
hitz-mitzti=berritsua
hoben=errua
hondar=ondoa, itsas zola; hon-
 dakina
hordi=mozkorra
hornitu=osatu, jantzi
hosin=putzua
hotzberatu=hotzarendako sen-
 tikor bihurtu

hozitu=sortu, erne
hudigoa=ikusia ezina
hurbildu=urreratu, ondora eto-
 rri
hurran=mugatik hurbil, gertu

ialgi=irten
iasan=eraman; sufritu
iauntzi=jantzi
iauregi=palazioa
iauzi=salto egin
iauzkor=haserrekorra, bere one-
 tik erraz irteten dena
ibeni=jarri, ipini
idortu=lehortu
iduri=itxura
iduri egin=itxura egin
idurika=antza
idurikortu=susmoti bihurtu
igorri=bidali
iguriki=itxaron
iguzki=eguzkia
iguzkiztatu=eguzkia hartu
ihar=txinparta
inardetsi=erantzun
iharduki=burrukatu
ikhara=dardara
ilki=irten
ingurune=ingurua
intzirin=arrenkura, negar-zotina
londone=San Jaun done
ipizpiku=Apezpikua
iragan=igaro
irakurtu=irukurri
iraxeke=erantsi; piztu, ixotu
iratzarpentasun=esnatzeko deia
iratzarri=esnatu
iraulkatu=irauli
iraungi=itzali, amatau
irazi=lehertu
irrigarri=farregarria
itxeke=itsatsi
itzuri=eskapatu
izerleka=izerdi arina
izitu=izutu

kanpatu=barrelatu
karsoildu=soildu

kexadura=kezka
khar=garra
kheñadura=amenazozko keñua
khexatu=presa izan
kidatu=gidatu
kilikatu=zirikatu
kofau=erle ontzia
kolpe batez=bat batetan
konplitu (aditz)=bete
kcnplitu (adj.)=osoa, betea
kontrakarra=kontra, oposizioa
kontrast=kontrarioa
kontu guti egin=ezertan ez hartu
kordokatu=koloka egin
korromio=amorrua

laborari=nekazari
laido=iraina
larru arras=larru gainean
laudorio=alabantza
lausengatu=balakatu, losintxatu
lausengu=zurikeria
laxo=lasaia
lehia=presa
lehiatu=gogotik ekin, ahalegindu, presa izan
leñu=kasta, familia
likistu=zikindu, lohitu
linburtu=irrist egin, laban egin
liskar=burruka
liskartu=burrukatu
loria=gloria
lukureria=bidezko ez den irabazia
luzamendu=luzapena

maña=jokabidea
malenkoniatu=tristetu
manaiu=jokaera, egikera
manatu=agindu
mantenatu=mantendu
mantenu=janaria
manu=agindua
marra=lerroa
mehar=estua, argala
mehatxatu=zemaitu

mehatxu=zemaia, amenazoa
men=agintea, eskumendea
niende=garaia, aldia, gizaldia
mendakatu=bengantza hartu
mendeku=bengantza
mengoa=premia
mihi=mingaina
mirail=ispilua
miretsi=harrigarritzat hartu
molde=modu, era
morrointasun=mutil aroa
mugakide=albokoa, mugakoa
mugida=mugimendua
muthil=morroia, zerbitzaria

nabusi=nagusia
nahasteka=nahaspila
nahikunde=nahi alferra
ñarda=nazka, higuina
narrio=ajea, gaitza
narritatu=tentatu, zirikatu, bultzatu
nehor=inor
nigar=negarra

odolztatu=odolez bete
oñan=basoa
oiñu=dehadar
oillarite=oilarraren kukurrukua
oinhatz=aztarna, oinkada, arras-toa
on-behar=behartsua
ondiko=zoritxarra, zorigaitza
on-edeki=lehorra, zekena
on eduki=jasan
onhetsi=maitatu
omen=entzutea, fama
oren=ordua
othoiztu=eskatu
ozen=entzungarria, soinuatsua
ozenki=habarrots handiz

pagu=pozik
pairatu=sufritu
pairu=eroapena, egonarria
parada=aukera, okasioa, egokiera
pausalekhu=atseden lekua

Donapalaio=Saint-Palais, San
Pelayo

ebatsi=ostu, lapurtu
edeki=kendu
ediren=idoro, aurkitu
eginbide=obligazioa, eginbe-
rra
egiteko=arazoa, lenbidea, buru-
haustea
egoitza=egon lekua, egotezko
lekua
egorri=bidali
egotu=egon
egundaino=gaur arte, beti
ehortzi=lurperatu
eihaberriti=kontakatilua
eihe=ipuina
eikhortu=ihartu
ematu=bigundu
emazurtz=umezurtza
emeki=leunkiro
emendailluzko=gainetikoa
emendatu=zentzatu, zuzendu
andrezu=zerbitzua, mesedea
enhardatu=bere tokitik irten
enseiatu=saiaitu, probatu
enseiu=saioa, saialdia
entregu=trebea
eranzute egin=demanda egin,
agiraka egin
erasle=berritsua
eratzan=etzan arazi
erbal=indargea
erdietsi=iritxi, lortu
erdutu=heldu, etorri
erhi=behatza
erhokeria=zorakeria
erhotu=zoratu
eri=gaisoa
eritasun=gaisoa
eritu=gaisotu
ernatu=esnatu
ernetasun=ziztada
erran=esan
errebelamendu=bide galtzea
errebelatu=bidea galdu

erremusinari=limosna egilea,
kapeilaua
errendatu=bihurtu, eman
errepuesta=erreinua
erroztatu=sustraitu
eskudantzia=aitzakia
eskuztatu=esku artean erabili
esportzatu=bihotz eman, akuilu-
tu
ethendu=eten
ethorki=jatorria
etsaigoa=etsaitasuna
etsitu=esperantza galdu
ez-ansiatu=axolakabe bihurtu
ezeztatu=hondatu
ezko=argizaria
ezten=miztoa

fida edo fido izan=uste ona
izan
fidantzia=konfiantza
fin gaitz=azken txarra
finean=azkenik, azkenean
finkatu=gogortu, sendo ezarri
fite=berehala, laster
frogatu=probatu

gai izan=gauza izan
gaingiroki=axaetik, gainetik
gaitzi izan=zail eta neketsu
izan
garai=goikoa
garaitia=garaipena
garraio=karrioa
gerizan=itzalpean, babespean
gerla=gera
gezurtatu=gezurtzat jo
gibela egon=atzean egon
gibela eman=atzealdean eman
gibelatu=atzera jo
giritino=kristaua
girthain=kirtena
gisa=era
gogan behar izan=susmo txa-
rreko izan
gogan behartu=errezeloa hartu,
beldurtu
gogara=pozik, atseginez

pausu=atsedena
pensu=burubidea, asmoa
peril=arriskua
perilos=arriskutsu
permatu=finkatu, sendo eza-
 rri; saiatu
perpaus=esaldia
plaun=laua
plaundu=lautu, berdindu
ponperia=huskeria
poxin=zattia, puska
pozoin=edena, benenoa
premia=beharra
prestik=gerturik
prometatu=agindu, hitz eman

samurtu=haserretu
sarri=laster, aurki
sentotasun=azken zahartzaroa,
 zahar-zaharrarena
so egin=begiratu
sobera=gehiagi, larregi
solhas=hitza
sorthu=jalo
sosegatu=trankil egon
sostengatu=eutsi
sostengu=euskarria
suerte=mota, klase
sugina=errekaia

thaillu=mota
trabu=traba
trikatu=gelditu
trufa=buria
ttipi=txikia

uharre=urbolada, uramila
umo=heldua, helduerara etorria
untzi=ontzia
urdiru=zuritu
uri=euria
ur-laster=ur-korronta
urrikalkizun=errukarria
urrikalmendu=errukia

xede=muga
xinhaurri=txindurria, inurria
xoil=arras, zeharo

zama=sorta
zamar=larruzko erropa sendoa
zaurtu=zauritu
zeden=urdaia egiten zaion ha-
 rra
zelatan egon=aiduru egon, be-
 gira egon
zuhirindu=zura hauts bihurtu

Urdazubi, Axularren jaioterria

Axular Urdazubin
jaio zela segurantza osoz dakigu. Geroago aipatu-
ko ditudan jakin iturrietarik garbi ageri da hori.

Urdazubi (erderaz Urdax) Nafarroa garaiko
azken bazterra da, eta Lapurdirekin muga egiten
du. Bai Urdazubi eta bai Zugarramurdi ere Otson-
doko portuaren handiko aldera kokaturik daude.
Urdazubiko urak Lapurdira dihoaz. Urak nora,
gizonak hara, dio errefrauak; eta halaxe egin


zuen Axularrek ere, beherago ikusiko dugun bezala.

Gaur egunean Espainia eta Frantziaren arteko pasa lekua Dancharinea hauzoan da. Gaztelaniaz Dancharinea, frantsesez Dancharia; izen jatorra, berriz, *Dantzariarena*. Berton bizi bait zen dantzari famatu bat: *Joanes de Quirno*, eta hortik du izena. Felipe V.a Espainiako errege izatera etorri zenean, beraren aurrean dantzatu zen Joannes de Quirno, Donibane Lohizunen.

Dancharineako muga pasa eta berehala duzu Ainhoa. Erdi Aroan gauza jakina da Lapurdi ingelesten pean egon zela. Ainhoarrak, ordea, Urdazubi eta Zugarramurdirekin batean, Baztango bizkondearen menekoak ziren.

Herrixka tipia da Urdazubi, nahiz eta «villa» izena eduki. Gaur egunean bostehunen bat lagun izango ditu. Baina Erdi Aroan monasterio ospetsu bat zen herri honetan, Premonstratense Ordenakoa, eta hortik heldu zitzaion halako izena edo sona.

Txit jakingarria da monasterio honen kondaira eta xedea. Erdi Aroan, Galiziako Konpostelan Jondone Jakueren hilobia azaldu zela eta, uholde baten pareko mogimendua sortu zen. Erronesak tropelaka etortzen ziren Europatik Konpostelara erromerian. Bide luze horretan arriskuz beterikako tokietan barna igaro behar izaten zuten. Nafarroako erresuma pasoko lurraldea zen.



Hauk dira —Espainia eta Frantziaren artean puntuz ematen den nazioar-
teko mugaren alde bietan Axularren bizitokiak. Urdazubin jaio eta
Saran bizi, Donibane-Loihitzun izango da garaiko euskal berbiztearen
testigu nagusia. (Garbifne Lasaren mapa).

Eta erromes hoiei babes, ostatu eta laguntza emateko, Nafarroako erregeek toki hautatuetan Monasterioak eraiki zituzten. Horra zergatik eta zertarako jarri zen Urdazubiko monasterioa ere.

Baionatik Iruinerako bide famatu bat Ustaritz eta Ainhoan barna zetorren, eta hain zuzen Urdazubitik sartzen zen Nafarroan. Bidazti haiei harrera on egin eta laguntzeko, XIII. mendean abadia hau jarri zen Urdazubin. Salvatore izena zuen (eta zinez, Asentzioko egunean dira orain ere Urdazubiko festak).

Urdazubiko monjeek bazituzten burdinolak. Mehatza Bilbo aldetik ekartzen zen itsasoz Donibane Lohizuneraino, eta hemendik Urdazubira mandazainek eramaten zuten.

Frantziako erreboluzio garaian monasterio honi frantsesek su eman zioten; gero Mendizabalen desamortizazio legearekin betiko hustu zen. Eliz agiriak ere orduan galdu ziren.

Orain den klaustroa geroago berriztatua da. Herriko apezaren bizileku da gaur monasterio zahar hura.

Axularren denboran bizi bizirik zen oraino monasterio hau eta bere itzala zuen inguru denean.

Urdazubi izeneko ibaia (frantsesez *Nivelle*), Elizondo aldean jaio, Urdazubitik pasa eta Frantzia barrena sartzen da.

Axular izena

Urdazubin, bada, jaio zen Axular. Oraindik bada Urdazubin Axular izeneko baserria: Axularren jaiotetxea, alegia. Geroztikakoa da gaurko etxea, baina dirudienez lehengoaren toki berean egina. Etxalarren ere bada izen honetako beste baserri bat; eta beharbada, Etxalarko honetatik du jatorria Urdazubikoak (Ikus *RIEV* V, 544). Eleizalde *Riev* aldizkarian agertu zuen «Listas alfabéticas de voces toponomásticas vascas»en, haxe dakar: *Atsular, casería y regato de Etxalar (Navarra) (Riev XIII (1922), 505).*

Bizkaian ere, Arratian, bada Atxular edo Atsular toki izena.

Zer esan nahi ote du izen honek? Toki izena dela bistan da. *Antoine d'Abbadiek* Bonaparteri egindako karta batetan (ikus Lacombe, *Varia sur Axular*) esanahi hau ematen du: anchu-larre (ardi antzuen larrea...). Ez dirudi onartzekoa etimologia honek.

Bizkaiko *Atxular* hori zulo bati deitzen zaiola uste dut. Aitz-zulo, atxulo edo horrelako zerbait ez ote da nabari hitz horren lehen partean? Hala esango nuke.

Bigarren zatian, berriz, Mitxelenaren iritzian (*Apellidos vascos*, S.S. 1953, p. 81), *lar* hori zera da: zarza (edo beharbada *larre*=pastizal). Beraz, *aitzulo* eta *lar* = agujero de peña y zarzal; cueva

y zarzal. Bukaera berbera ageri da Etxalar hitzean ere.

Axular izenaren idazkera

Eta nola idatzi behar da izen hau: *Axular* ala *Atsular*? Gaur toki izen hau *Atsular* esaten dela eta, batzuek (eta neronek ere bai inoiz), *Atsular* idazten dute gure autorearen izena. Berak, ordea, *x*-ekin idatzi zuen beti. Eta gaur letra honi ematen zaion doinu berbera ematen zion berak ere. Axularrek, alegia, bazekian *x* erabiltzen orain duen balioarekin. Egia da *chori* eta *chehero* idazten duela, baina baita *erraxqui* eta *gaixto* ere. Henri IV erregek Axularri buruz idatzi zuen kartan, era honetara eskribatzen du: *Achular*, eta frantsez ortografian *ch* horrek gure *x*-en balioa duela badakigu.

Gaztelaniazko dokumentu zaharretan, berriz, *j*-kin idatzia da: *Sel de Ajular*, *Ajularrena* (Ikus Riev V, 543-544), eta idazkera hau ere gure *x*-en ahaide hurbila da. Beraz, fonetika aldetik ere (orduko fonetika aldetik, noski), *x*-ekin eskribatzea ez dut uste bat ere gaizki denik.

Nolanahi ere, eta fonetika hauziak alde batetara utziz, tradizioz hain ongi finkatuko idazkera ez genduke aldatu behar, ene ustez.

Ainhoan ere hor da *Axulai* mendia, Arantzazuko Ama Birjinaren elizatxoaz. *Axulai* honek ba ote du *Axular* izenaz zer-ikusirik? Ez dakit.

Hamaika hauzi eta istilu izan zituen Axularrek Sarako erretorgoari buruz. Eta hain zuzen, horri eskerrak dakigu, hemen, Urdazubin, jaioa zela gure autorea.

Sara, Axular bizi eta hil zen herria

Barandiaranek dioenez (*Bosquejo etnográfico de Sara*), Urdazubi, Zugarramurdi, Ainhoa eta Sarak halako eskualde edo komarka natural bat osatzen dute, nahiz eta Espainia eta Frantzia arteko guraizeak beronen erditik pasa. Lurrelde tipi honek batasun bat osatzen du, alegia, eta inguru denean mendiz hesitua ageri da (Larrun, Axulai, Atxuri). Izen bat ere ba omen zuen eskualde honek: *Xarreta* (= jaral), dena oiana zelakotz. Sara izena

ere seguru aski ortik dator. (*Zarautz bezalaxe: zara huts = puro jaral*) (1).

Sarako herrian bizi izandu zen Axular eta han idatzi zuen bere obra famatua. Beraz, jaioterriko lurrean zen, nahiz eta Urdazubi Nafarroa Garai-koa izan eta Sara Lapurdikoa; hura Espainiarena eta hau Frantziarena.

Herria eta inguruak

Zer moduzko herria da Sara? Muino, mendixka, erreka eta errekastoz ongi hornitua. Behinola oianez betea omen zen. Geroztik laborantzak, artzaintzak, azienda beharrek, burdinolek eta abar oianak bakandu eta gutitu egin dituzte; badira, haatik, orain ere.

Muino eta mendixketan bada makina bat ermita eta kaperatxo, sandu askoren izenean jasorik. Herriko elizak edo parrokiak San Martinen izena darama. Bertan egon zen Axular herriko erretore bezala.

Etxeak barreiaturik daude. Bada bai multzo bat plaza, herriko etxe eta elizaren inguruan, baina jenderik gehiena baserrietan bizi da. Sarako toki eta baserri izenen zerrenda Barandiara-nek eman digu (*Bosquejo...*).

(1) Mondragoen ere, Kanpanzarko portutik hurbil, bada baserri bat Sara izenekoa.

Sarak mugakide dituen herriak hauetxek dira: Vera de Bidasoa eta Zugarramurdi (Nafarroa Garaikoak); azkaine eta Senpere (Lapurdikoa). Sara bera ere Lapurdikoa da, noski.

1718. urtean 1.490 bizilagun zituen Sarak. Orain 1.800 edo izango ditu. Axularren garaian ere milatik paseak ziren dudarik gabe. Saran urte oroz gertatzen ziren jaiotzen berri Axularrek berak utzitako eliz agiriei eskerrak jakin daiteke.

Saratik igarotzen den erreka nagusiari *Harnia* deritzaio. Erreka hau Nivelles (Urdazubi) (1) ibaiaren ibai-adar bat da (afluente). Nivelles hori Ziburu eta Donibane bitartean itsasoan sartzen zaizu.

Saran eta Urdazubin egiten den euskera euskalkiz lapurdiera da. Lapurdiera Baztango eskualde guztira zabaltzen da. Baina lapurdieraren barnean ere badu bere berezitasuna Xaretako hizkerak.

Kondaira oroitzapenak

Sarako herriak badu harma-harri ospetsu bat Luis XIV.ak 1693 urtean emana. Soin-burdina,

(1) Urdazubiko ibai honi *Uherts* izena ematen dio Hiribarrenek. Ikus Hiribarren, *Eskaldunak*, p. 94. *Uherts* = *ibai estua* noski. Etxeberri Sarakoak, berriz, *Xarakaria* izendatzen du. Ikus *Lan Hautatuak*, 148 orr. (Lur Editorialaren edizioan).

kasketa, atabala eta abar daude bertan pinta-tuak, eta honako irakurgai hau euskeraz: *Sarari balhorearen eta leyaltassunaren saria emana Luis XIV. 1693*. Espainia aldetik sartzen ziren lapur batzuegandik izandako garaipenaren saria izan zen harma-harri hau.

Erreboluzio handiaren garaian, ordea, Sarak samin asko irentsi behar izan zuen, erlijioari eta tradizioari atxikia zelako. Madalena Larralde, 15 urtetako neskato bati, Vera de Bidasoara kofe-satzera joan zelako, lepoa moztu zioten gillotin-nan. Espainiako mugatik hurbil diren herriak: Sara, Azkaine, Ainhoa, Itsasu, Ezpeleta eta Zurai-de herri «laidogarriak» (infames) izan ziren deklaratuak. Bertako jendea Frantzian barrena deportatua, eta anitz goseak eta miseriak hil ziren. Eta itzuli zirenak beren etxeak erreak edo hondatuak aurkitu zituzten. Itsasuko 47 gaztek ejer-zitutik desertatu egin zuten, ba, eta hargatik har-tu zen mendeku zital hau (Ikus Veyrin *Les Basques*, XIII, p. 187). Jakin behar da, gainera, erreboluzio handiak euskaldun frantsesen fuero eta lege berezi guztiak ezabatu zituela.

Euskal erakarmena

Sarak, Axularrez gainera, izen bat baino gehia-go eman dio euskal literaturari. Haranburu, satararra zen. Kristobal Harizmendi, Saran apaiz Koadjutore egona. Eta gero hor ditugu Etxeberri, jaun midiku, gramatikalari eta prosista; Eli-zanburu olerkaria. Ithurri, gramatika on baten

egilea, Sarako erretore izan zen. Dithurbide, Sarako midiku eta alkateak, Ixtorio Saindua idatzi zuen. Lehetjusan, Agustin Etxeberri, Diharassary, Mayi Ariztia, t.a.

Euskaltzale arrotzek ere, euskeraz ikasteko, maiz jo dute Sarara. Lehenbizikorik, Aita Ma-
terrek. Euskera Saran ikasi zuela berak aitortzen digu. Wentworth Webster eta Hugo Schuchardt ere Saran egon ziren euskeraz ikasten.

Nor zen Axular (Bizi xehetasunak)

Sorterria eta deiturak

Axular Urdazubin jaio zela badakigu anitz dokumentutatik. Espaini aldeko Nafarroan jaioa izateak lanbiderik aski ekarri zion, ba, eta hauzi haietarik garbi frogatzen da hori. Eta berdin ageri da ordendu zeneko paperetarik ere.

Axularren ordenazioko paperetarik ageri da honen aita amak *Pedro de Axular* eta *Maria de*

Azpilikueta izan zirela (*Riev* V, 542). Lahetjusanen karta batetik dakigu, ordea, Axularren lehen deitura edo abizena Dagerre zela. Lahetjusanek nondik jakin zuen xehetasun hau, nik ez dakit. Axularrek berak beti firmatzen zuen Pedro de Axular (etxearen izenetik, noski). Baina gauza honek ez gaitu bat ere harritu behar. Euskaldunak maiz erabili du etxearen izena deituraren lekuan.

Axularren sortze-urtea

Vinsonek dioenez, Axularrek, 1600. urtean (Sarako erretore izendatua izan zenean, alegia), 44 urte zituen. Hortik ateratzen da 1556. urtean jaioa zela. Axularren heriotze eguna eta beste zenbait xehetasun ere Vinsonek zehazki eman dizkigu (*Bibliographie de la langue basque*). Xehetasun hoiek nondik jakin dituen ez digu esaten haatik. Lafitte jaunak karta batean haxe esaten dit: *Seguraz ere Pauen aurkitu zituen gehienak, Urkijok bezala, Dubarat apezari esker.* (14-XI-71).

Nolanahi ere urte muga hori Vinsonek ez du asmatu edo bere kaskotik atera. Esan behar da, ordea, haren ondoren Paueko artxibuan ikertzeak egiten ibili direnak ez dutela dato hori aurkitu ahal izan.

Etxeberri Sarakoaren pasarte batetik, Urkijok beste urte muga bat ezarri nahi izan zuen Axularren jaiotze-urte bezala, baina oker, agi denez, Etxeberriren pasarteak ez bait du hortaz deus esaten (Ikus *Obras vascongadas...* p. LXX).

Ez dakit inor hontaz konturatu den, baina *Gomendiozko Karta*-n (*Gero*-ren dedikatorian) bada, ene ustez, aztarna bat oso salataria, Axularren adina neurtzeko. Karta hau dedikatoria bezala Bertrand de Echauz-i eskainia edo zuzendua da. Eta hara zer dion bertan Axularrek: *Zeren nola ezpaikara bi mendetako...* (nº 5). Honek esan nahi du, dirudienez, idekoak edo adin berekoak zirela biak, Axular eta Bertrand de Echauz. Orain, bada, Bertrand de Echauz zein urtetan jaio zen badakigu: 1556 edo 1557. (Ikus beherago jaun honi eskaintzen diogun atala).

Axularren istudioak

Lehen eskola eta istudioak nun egin zituen ez dakigu. Bere jaioterrian nunbait. Urdazubin monasterio bat zenaz geroztik, han berean, monasterio horren itzalpean, izango zen hortarako egokiera edo modua. Gainera, badirudi Axularren gurasoak ez zirela xoil pobreak. Behintzat, semeak unibersitario karrera egin ahal izan zuen (orduan gutik egin zezakeen hori), eta ordendu zenean «ad titulum patrimonii» ordendu zen: horrek esan nahi du bere bizibidea bilatzeko, ez zela Apezpikuaren begira.

Goi mailako istudioak egin zituela Axularrek, ez da dudarik. Idatzi zuen liburuak berak garbi ematen du hori aditzera. Gainera, Henri IV erregek Axularri buruz duen kartan hala esaten du: *Pierre d'Achular, pbre. gradué en Théologie* (Riev V, 557). Eta beste dokumentu batzuetan (Harostegirekin Sarako erretorgoaz izan zuen hauzia-

rekiko dokumentuetan), bai batxiller eta bai doktor ere deitzen zaio. Unibersidadean kurso batzuk egina behintzat.

Nongo Unibersidadetan? Segurutzat jo daiteke gaur Salamancakoan egon zela. Gure egunotan Saran jaso ahal izan dira zenbait ixtorio Axular zaharrari buruz: jakitate harrigarri hura Salamancako aitzulo batetan deabruaren eskolan ikasi zuela, eta abar.

Eta gero hor dugu berak egiten digun aitorrera (Lekuona jauna izan da lehenik ohartu dena): *Hala erraiten du ene eskola nabusi batek* (Ikus n.º 69). Eta bazterrean *eskola nabusi* horren izena dator: Zumel. Honek esan nahi du, noski, Zumelen ikasle eta entzule izan zela Salamancan. Hain zuzen, Salamancan garai hartan abarrots handia atera zuten garaziari buruzko eztabaidak: *Controversiae de auxiliis divinae gratiae*. Eta toki horretan Axularrek azaltzen duen guztia *controversiae* famatu haien oiartzuna eta funtsa baizik ez da.

Bada oraindik Salamancako beste doktor ospetsu bat Gero-n bi aldiz aipatua: Domingo de Soto. *Doktor handi* deitzen zaio, gainera (Ikus n.º 139 eta 375).

Salamancako eskola giroa

Luis Molina jesuitak 1588. urtean bere liburu famatua atera zuen: *Concordia liberi arbitrii cum gratiae donis, divina praescientia, providentia, praedestinatione et reprobatione*.

Domingo de Soto dominikoa ordurako hila zen (1494. urtean jaio eta 1570. ean hil zen). Beraz, ez dut uste Axular Sotoren dizipulua izango zenik.

Domingo Bañez-ena, ordea, bai izan zitekeen. Bañez hau 1528. urtean jaio eta 1604. ean hil zen. Jatorriz euskalduna zen, mondragonitarra, eta dirudenez ez zedukan bere jatorria saltzeko, bere liburu denetan *mondragonensis* jartzen bait du beti. Avilako Santa Teresaren direktore izpirituala izandu zen. 1581. urtetik 1599. urtera arte Salamancan katedra izan zuen. Hau Molinaren kontra atera zen. Molinaren usteak herejiazat jotzen zituen, eta Molinak ere bai berarenak. Bata —Molina —Pelagiotarra omen zen, bestea berriz Kalbinista. Hortik sortu ziren eztabaida ospetsu haiek.

Jainkoaren garazia eta gizonaren libertadea nola elkarrekin lotzen eta konpontzen diren, nola hark giza egiteetan parte har lezakeen libertadea salborik eta osorik utziaz hala ere? Hori zen Molinak eta bai besteek ere beren sistemekin argitu nahi zuten pundua.

Francisco Zumel, berriz, merzedarioa zen. Palenzian edo jaioa; baina honek ere bere deitura euskalduna du, agi denez. 1607. urtean hil zen. Bañez bezala predeterminazio fisikoaren alde dago, hau da, Molinaren aurka. Funtsean, ordea, Espasak dioenez, Zumel ez zegoen ez Bañez eta ez Molina-ren alde. 1580. urtean Zumelek katedra erdietsi zuen Salamancan, baina 1585. urtean be-

re Ordenakoek Probintzial eta gero Jeneral egin zuten, eta hargatik irakastea utzi behar izan zuen.

Beraz, ene ustea da bitarte horretan (1580.etik 1585.era bitartean) egon zela Axular Salamancan.

Salamancako Unibersidadean garai hartako matrikulen zerrendak aztertuz agian aurkituko litzake gure Axularren izena. Orduan jakingo genduke zehatz zein urtetan egon zen eta zein tituluaren jabe egin zen ere. Nik dakidala orain arte ez du inork bilakuntza hori egin. (1).

Gero liburua aztertuz Axularren eskola formazioa Espainia aldekoa dela laster sumatzen da. Espainian garai hartan, bai literaturak eta bai teologiak ere lorealdi bikaina izan zuela edonork daki. Hurter-ek, 1581-1600 urteetako teologu eskolastikoen izendegia ematerakoan, ohar hau egiten du: *Fere omnes Hispani sunt* = ia guztiak espainiarrak dira (O. cit., p. 140). Trentoko Kontzilioak ekarri zuen lorealdia izan zen hura. *De Auxiliis* kontroversien berri jakiteko, Scorrailleren liburua irakur daiteke.

Salamancan hemengo aldeko euskaldunekin ezagutzak egingo zituen Axularrek. Hemengo hi-

(1) Liburuska hau inprimatzeko zegoenean (1972-8-6ko eskutitzean), Mitxelena jaunak berri pozgarri bat jakinarazten dit: bere alabak aurkitu duela Axularren matrikula Salamancako Unibertsidade zaharrean. Dirudienez, 1592-1595 urteetan egon zen han Teologia ikasten. *Pedro de Axular natural de Vrdax dioc. de Pamplona*, dakarte paperak. Aurkitu berri honek bidea idekitzen du Salamanca aldeko Axularren pausoak segitzeko.

tzak ere aipatzen dira inoiz *Gero*-n: «zaldun», t.a. (Ax. n.º 8).

Salamancak gure herri poesian utzi du aztar-narik. Esate baterako, bertso ezagun hura.

Txiki txikitatik aitag eta amak
fraile ninduten nonbratu,
eta estudioak ikasitzera
Salamancara bialdu.
Salamancara nihoalarik
bidian nuen pentsatu
estudiante tunante baino
hobe nuela ezkondu.

Hain zuzen, erakusten dira orain ere Unibersidade zahar hartako zenbait klase. Klase haietako jarlekuak egur lakar batzuk ziren. Eta egurroñan badira izenak labainaz ezarriak. Emakume izenak, alegia. Horrek esan nahi du ikasle haietako batzuek, teologiaz landara bazerabiltela beste zerbait buruan.

Salamancako ikasteek bere marka eta eitea eman zioten Axularri. Handik du teologia eskolastikako gaiak tratatzeko gustua. Honelako puntu asko aurkitzen da *Gero*-n. Haurren linboa zer moduzkoa ote den, ifernuan hotzik ote den, Izpiritu Sanduaren aurkako bekatua zergatik ez den barkakizun, bekatuari zergatik ematen zaion sekulako gaztigua, sakramentuek nola handi lezaketen garazia, eta abar. Eskolastiko tankera edo kutsua ezin uka dakiok Axularri. Haiek bezala, arrazoizale amorratua dugu bera ere. Badi-rudi harentzat ez dela misteriorik giza arrazoiak zula ez lezakeenik.

Bizi xehetasunak (segida)

Axularren ordenazioak

Urquijo Jaunari eskerrak ezagutzen ditugu Axularren ordenazioetako agiriak. Riev-en eman zituen (V, 544), Paueko Pirineo Apaletako Departamenduaren artxibuetarik atereaz.

Tonsura Iruinean hartu zuen 1584. urtean, Iruineko apezpiku jaunaren eskutik. Ordena tipiak, berriz, 1587. urtean, Iruinean hauek ere,

Apezpiku horren berorren eskuetarik. Subdiakonadua Iruinean 1595. urtean, Iruineko Apezpikua-ren eskutik eta *ad titulum patrimonii*.

Hurrengo urtean (1596.ean alegia) Iruineko diozesaren gobernariak agiri bat ematen dio Axularri edozein Apezpikuk diakonadua eman ahal dezaion (artean Iruinean ez bait zen Apezpikurik). Orduan Axular Leridara joan zen eta hango Apezpikuak diakonu ordendu zuen (1596). Bere harridura agertzen du Urquijok toki aldatze honekin (Nafarroatik Kataluñara), baina ez dut uste bat ere harrigarri denik, agirietan beretan ematen bait da esplikazioa. Iruinean ez zen apezpikurik (Iruineko Apezpikua Jaen-era aldatu zutelako), eta orduan Axularrek berak bilatu behar izan zuen Apezpiku ordentzailea. Eta Leridan ordenazioak zirela jakinik, hara joan zen; hori bai, behar ziren baimenduak Iruineko diozesako gobernariak ematen zizkiola.

Lau hilabete geroago (1596. urtean berean) Baionako Bikario Jeneralak paperak ematen dizkio edozein Apezpikuk apaizgoa eman ahal dezaion (artean Baiona ere Apezpiku gabe aurkitzen zen). Hemen, bai, bada benetazko toki aldatze bat. Iruineko diozesa utzi du Axularrek, eta Baionakora aldatu da. Zergatik? Ez dakigu. Beharbada, berak amets zuen apaiz biderako giro hobea eskaintzen zion Baionak. Dena dela, egun guti geroago (1596.urtean), Tarbesko Apezpikuak apaiz ordendu zuen gure Axular.

Dokumentu hauetarik ageri denez, adinetan pixka bat aurrera zihoan Axular ordenak hartzen hasi zenean, eta tarte luze xamarrek daude ordena tipietarik handietara. Beharbada, tarte horretan egin zituen Salamancako istudioak. Subdiakonu egin zenean, gainera, xehetasun hau jartzen da: «ad titulum patrimonii». Horrek esan nahi du Iruineko apezpikua ez zegoela behartua dirubide izan daitekeen kargurik Axularri ematera. Eta hau ere libreago gelditzen zen bere bidetik ibiltzeko edo nahi zuen tokira joateko. Eta hala egin ere zuen. Baionako eliz barrutira joan zen.

Garai hartan (eta bai gero ere) era hortara («ad titulum patrimonii, alegia) ordentzen zirenak ez ziren gutxi izaten. Xoriak bezala libre gelditzen ziren. Apezpikuak ez zuen obligaziorik hoiekiko, eta hoiek ere ez Diozesako Apezpikuaren alderakotzat. Ordenazio formula hontatik Elizarentzat bai abantailak eta bai kalteak ere etorri direla diote kondairagileek. Horrela ordentutako batzuek apostoladuan bikainki lan egin dute. Beste batzuek, berriz, behar bezalako izpirituaren faltaz, exenplu txarra eta eskandalua eman ere bai. Baina hori titulu batekin nahiz besterekin ordendua izan, berdin gerta daiteke.

Zergatik aldatu zen Axular Baionara? Ez dakigu. Nolanahi ere, Baionako diozesan egonez, hurbil zegoen bere jaioterritik; Iruinekoan egoenez baino hurbilago.

Donibane Lohizunen jartzen da

Orreagako kolejiatan (Roncesvalles-en alegia) Daranatzek Henri IV Frantziako erregeren eskutitz bat aurkitu zuen Axularri buruz (Ikus *Riev* V, 556). Eskutitz hau 1601. urtean egina da. Eta haren zer dioten: Duela bost urte guti gora behera Axular hori Donibane Lohizunen bizi dela, eta predikari bezala gailurtu dela, bai Apezpikuaren eta bai herriko jende prestuen kontentuz.

Beraz, Axular, apaiz ordendu eta berehala, Donibane Lohizunen bizitzen jarri zen. Ez zuen izango eliz kargurik. Baina predikari bezala nabarmendu zen, eta deitzen zuten lekuetara predikuak egitera joango zen.

1599.urtean *Bertrand de Echauz* sartzen da Baionan Apezpiku. Laster egingo zuen Axularren ezagutza (lehendik ez baldin bazuen). Erregeren kartatik dakigu Apezpikuaren eta jendearen oniritzia irabazi zuela Axularrek bere predikuen birtartez.

Baina noiz arte iraun behar zuen era horretara, xori libre bezala, egotezko kargurik gabe? Berak *Gero*-n aipatzen duen errefrauaz ez ote zitzaien, gero, behin baino gehiagotan, burura etorri? *Fin gaitz eginen duk, xoria, baldin gaztedanik ezpadagik kafía* (nº 120). Eliz kargu iraunkor bat eskuratzeko parada aurki presentatu zitzaien.

Axular, ikusi dugunez, Espainia aldetik Fran-

tzia aldera aldatu zen. Eta aldatu zenean ez zen haur bat, gizon egina eta heldua baizik. Eta kontuan eduki behar dugu XVI. mendearen hondarrean garela, eta ordurako Estadu modernuok beren hesiak gogortuaz dihoazela. Urdazubiko semeari buruko min bat baino gehiago emango dio Espainia aldeko nafar izateak; hots, Frantzia atzerritar bezala joa izateak. Bertrand de Echauz-en bitartez, izango du erregegana jotzeko aukera, eta horri eskerrak onik aterako da. Axularren beraren dohainek ere (jakitate, hiltun ederra izate, t.a.) ateak zabalduko zizkioten.

Gurasoak

Noiz hil ziren Axularren gurasoak? Hori ere ez dakigu. Tonsura ordenazioa errezibitu zenean badirudi bizi zirela oraino. Agirian honela esaten bait da: *Filium legitimum Petri de Axular et Mariae de Azpilueta* (sic), *conjugum, incolarum oppidi de Urdax*. Beste ordenazioetako agerietan ez da gurasoen aipurik egiten. Lehen ordenaziotik bigarrenera bitartean (1584-1587) hil ote ziren?

Aitaren benetazko deitura Dagerre zela, eta Axular deitura ez, baina jaiotetxearen izena dela, esaten da 1802. urtean Saratik Lahetjusan apezak Ducos Donibaneko midikuari egindako eskutitz batetan (Ikus Azkuek Berlingen, Humboldtten paperetarik kopiatutako dokumentuak; *Euskera* 1925, n.º 4, 60 orr.).

Ez gaitezen gehiegi harri, deitura ordez etxearen izena erabiltzeaz. Hori guztiz normala bait zen. Aita Omaetxebarriak agertu duenez, XVI. mendean deiturak ez zeuden orain bezala tink finkatuak. *El apellido toponímico sólo significaba que el individuo portador del mismo era natural o vecino del solar o lugar así llamado* (I. Omaechevarría, «Nombres propios y apellidos en el País Vasco y sus contornos», *Homenaje a don Julio de Urquijo*, II, pgs. 153-175).

Axular, Sarako erretore

Sarako erretorgoa hauzipean

Lau urte zera-
mazkien Axularrek Donibane Lohizunen. 1600.ean
gaude. Sarako erretore zaharrak, alde batetik
zaharra eta bestetik eri ere bai, bere erretorgoa
utzi nahi du, eta Axular du begiz joa bere ondo-
kotzat uzteko. Juan Douamet edo Donameto de-
ritzai. Bion artean hizketatu dira eta halako
tratu edo konponketa bat egin dute. Douamet
jaunak dioenez, Sarako elizak erretoreari ema-

ten dizkion ondasunak, denak elkar jota, honenbeste dira: 400 ezkutu urrezko urtean. Hoieta-rik, bere mantenurako 140 eskatzen ditu, biziko den denbora guztirako (artean 65 urte zituen), eta gainerakoa Axularrentzat izango da. Tratu hau iskribauaren aurrean egin zen Donibane Lohizunen 1600. urtean. Gainera Aita Sanduari eskatu zitzaion kargu aldatze hau ontzat eman zezan. Erromatik baimena iritsitakoan Bertrand de Echauz Baionako Apezpikuak Axular Sarako erretore izendatzen du. (Paueko artxibuetan dau-de dokumentu hauek guztiak. Ikus *Riev V*, 547).

Axularrek ordea bista luzea izan, eta urrats hau eman baino lehen, erregegana jo zuen: frantses bihurtu nahi zuela esaten zion, bertakotu alegia, eta hartako agiria emateko, arren. Erregek, ahoz, ez zuela horren beharrik erantzun zion. Axular nafarra, eta Henri IV Frantzia eta Nafarroako errege izanik, nafarrek ez zuten inongo agiririk behar. Frantziako erresuman ez ziren atzerritar edo arrotz bezala joak izan behar. Oraingoz gauzak horretan gelditu ziren, eta Axularrek Sarako erretorgoa hartu zuen eta erretore bezala egiten hasi ere bai.

Baina segurtamen guzti hoiek gora behera, berak beldur zuen harria etorri zitzaion. Urtebeste edo erretorgoan zeramakiela, hara non haurzia jartzen dion beste apaiz batek: Harostegiko Joanek. Eta arrazoia: Axularrek, Nafarroa garai-koa izanik, ez zuen eskubiderik errentadun kargu bat Frantzian izateko. Donibandarra zen Ha-

rostegi hau, eta Sarako erretorgoa beretzat nahi zuen nunbait.

Hamaika komeria eta pasadizo xelebre ikusi zen orduan Saran. Harostegi joan zen testigu, iskribau eta guzti Sarako parrokiak jabetzera, eta hori ez bat aldiz, frankotan baizik; baina beti alferrik. Behin eliza itsirik aurkitu zuen. Eskatu zion giltza serorari, eta Axularrek kendu ziola erantzun zuen hark. Beste behin bazihoan Harostegi meza ematera. Bat batean Axular azaltzen da. Hango erretore bera dela, eta ez dio uzten. Istilu eta hauzi hauen oiartzuna seguru aski arras zabaldu zen. (Ikus dokumentuak: *Riev V*, 550 ss.).

Gaizki ibili beharko zuen Axularrek, baldin Apezpikuaren eta Erregeren babesa bere alde izan ez balu.

Gorago aipatu dugu erregeren eskutitz bat Axularri buruz: Henri IV Frantziako erregerena. Parisen, uztailaren 3an, 1601. urtean emana. (*Riev V*, 555). Axularren alde dago. Axular nafarra izanik, erregeren azpikoa dela, eta Frantzian ezin daitekeela atzerritartzat joa izan. Aitortzen du, gainera, Axularrek lehen ere Frantziako herritasuna eskatu izan diola, eta horren beharrik ez duela erantzun izan zaiola.

Pariseraino joan omen zen Axular erregeren babes hori erdiesteagatik. Ez dakigu hori egia den. Baionako Apezpikuak sarrera handia zuen

errege harekin. Beharbada honen bitartez lortuko zuen letra hori.

Hala ta guztiz ere, Harostegik ez zuen amore eman. Bordeleko Parlamentura jo zuen. Baita honek haren eskabidea onartu ere. Izan ere, bazen hemen oinarriko puntu garrantzitsu bat: *Si un natif de la haute Navarre est capable de benefice en France*. Bordeleko hauzitegitik Pariskora eraman zen hauzia. Louis Servin-en hitzaldia ezagutzen dugu. Hauziaren gora behera non datzan artez eta zuzenki epaitzen du: espainolek —dio berak— zuzen kontra harrapatu dute Nafarroa garaia eta menderatua dute; eskubidez erresuma hura Henri IV erregerena da, ez ordea egitez; eta gauzak horrela dauden bitartean, nafarrak atzerritarrak dira Frantzian (Ikus Riev VI, 292 ss.). Beraz, Parisko hauzitegiak arrazoia kendu egin zion Axularri.

Kendu teorian, paperean, zeren pratikan Sarako erretore bezala segitu zuen Axularrek, lasai asko. Lege gizonen bitxikeriak. Itxura denez, printzipioko puntu hau garbi eta tink ezarria utzi nahi izan zuten, batez ere gerorako; baina kasu honetan, erregeren borondatea jakinik, ez zuten erabakia pratikara eraman, eta baketan utzi zuten Axular bere erretorgoan.

Haatik, hauzi honek ez zion aho-gozo onik utziko. Eta gogoia kenduko zion beste kargu handiagorik gutiziatzeko. Oina ez zuela lur gogorrean jartzen ikusita zegoen.

Guretzat, ordea, euskaldunontzat, protxugarri izan zen hura. Axularrek garbi ikusi zuen Sarako xokoan geldi egon beharko zuela, goragoko ametsak (horrelako ametsik baldin bazuen) alde batetara utziz. Bestelako ametsetan ibili balitz, euskerak zor dion liburua seguru aski gaur ez genduen izango.

Hainbeste kostatako kargua derrigor maitatu behar, berak *Gero*-n dioena egia baldin bada behintzat. (Ax. 354).

Saran egon zen denborako berriak

Hil arte Saran iraun zuen Axularrek. Beraz, 40 urte eta gehiago egin zituen han.

Erretore izan zen denborako jakin iturri guti dadukagu. 1609. urtean hasi eta 1624. urtera arteko jaiotzen kontua, Axularrek egina, Sarako herriko etxean gordetzen da (elizako paperak, noski, gero Ayuntamentura pasatuak. Ikus *Riev* VI, 548).

Urquijok dioenez, bere eliz agiriak Axularrek gaztelaniaz idazten zituen; apaiz lagunak, berriz, koadjutoreak, frantsesez (*Una fuente del Guero*, p. 7). Bere eskolak eta formazio guztia Espainia aldean eginik zuen Axularrek; gaztelania ondo zekien; frantsesa, dirudienez, ez.

Axularren txartel bat, gaztelaniaz iskribatua, Urquijo jaunaren liburutegian dago. Beronen tes-

tua 1964. urteko edizioan argitaratu genduen (*Gero*-ren 5. edizioan, 8. orrialdean). Honela dio:

Yo Pedro de Axular retor del lugar de sara confieso aver recebido de manos de Joan de elçalde vecino de echalar ciento diez y ocho reales en moneda de españa y es por razon que el cantero de çugarramurdi llamado Harguin amurussa me hizo transpaso en el dicho porque me debia esta suma. Y por ser assi la verdad doy por libres a los dichos y me tengo por bien pagado en sara a 14 de julio de 1636. P. de Axular.

Baita ere badakigu 1641. urtean Sarako elizari dorre berria jarri zitzaiola (gaur egunean dadukan dorrea bera), eta hortarako akordio bat egin zen Axular eta Sarako herriaren artean (*Riev* VI, 548).

Agustin Etxeberri, saratarra, zapataria eta ostalaria, gizon elbarria baina buru onetakoa, Schuchardt-en euskal irakaslea, Sarako historia baten egile da. Bertan ikusten da nola 1641. urtean Axularrek eta Sarako herriak akordio bat egin zuten Sarako elizari dorre berria emateko (*Riev* VI, 548-549).

Eta Axularrek zergatik itxaron ote zuen hain beranduraino bere liburua agertzeko? Hori ere ez jakin. Lafittek uste du diru eskasiagatik edo izan zitekeela.

Bizitzako azken urteetan bere iloba bati utzi zion erretorgoa. Osabaren izen deitura berberak zituen iloba bati. Eta horregatik, noski, *Gero*-ren

aprobazioneetan hitz hauek irakurtzen dira: *olim, nuper: «celebri nuper Rectore de Sara», «meritissimo olim Rectore de Sara»*. Horrek esan nahi du ordurako utzia zuela erretorgoa.

1644. urtean, apirilaren 8an (Vinsonek dioenez) hil zen gure Axular Saran.

Axular osaba-iloben hilobia Sarako elizan da oraino. Osaba baino bederatzi urte geroago hil zen iloba, 1653.ean, alegia.

Lafittek jakinarazi didanez, Axularren garaian Saran baziren 23 apaiz. Sobera, noski. Eta denak ez bide ziren «mutiko onak». Gero-ko zenbait irakaspén hoiei begira ez ote diren eginik galdetzen du berak.

Axularren ospe hildoa

Axularrek, Sarako erretorgoaz hainbeste istilu eta hauzi zaratatsu sostengatu zuen erretore famatuak, bere bizitzean barrena halako ospe, distira eta omena bereganatu zuela badakigu. D'Urthubie-k eta Dissaneche-k Gero-ri buruz emandako iritzietan garbi aitortzen dute hori: *viro magni nominis in nostra Cantabria*=izen handiko gizona gure Euskal Herrian. *Uberem authoris facundiam magna cum eruditione ac singulari pietate conjunctam non semel admiratus sum*=Behin baino gehiagotan miretsi dut egi-learen etorri oparoa eta jakitate handia, haren aparteko debozioarekin batean.

Hemen daude, nik uste, Axularren dohainak beren izen propioekin izendatuak eta bereziki seinalatuak. Etorria, jakitatea, debozioa edo Jainko zaletasuna. Eta hitz agerriz esaten ez baldin bada ere, bazen oraino beste dohain bat, berez aditzen dena: euskaltasuna eta euskalzaletasuna. Urdazubiko semeak euskera sustraitik menderatzen zuen. Euskera, tresna zailu, trebe eta ongi trenpatua zen haren eskuetan. Hain zuzen, euskerazko bere predikuetan, euskera mintzabide hartuz, agertu zituen beste dohain hoiek.

Taxu honetako gizonak nekez gelditzen dira bakarrik. Halako giro bat sortzen dute beren inguruan. Axularren garaian eta Axularren inguruan euskal literaturak susperraldi bat ezagutu zuen Lapurdiko eskualdean. Euskaltzale mordoska bat sortu zen, alegia. Eta hoiek bata besteari bultza eginez, denok lanerako behar dugun pizgarri eta beroa elkarri emanez, euskal literaturak izan duen tradizioz zaharrenari berebiziko indarra eman zioten. Eta Axular beraren liburua ere laguntalde horren fruitua eta ondorea da, bere tokian esango den bezala.

Beraz, Axularrek bere dohainekin inguruneko lagunei mesede egin baldin bazien, baita hoiek ere berari, lanerako bultza eginez. Eta azkenik, batak eta besteek mesede denoi, mesede Euskal Herriari. Hala izaten da beti gizarte lana, gizarte eragina.

Bertrand de Echauz
Arzipizpikua
1556-1641

Nork ez ditu go-
goan *Gero*-ren lehen orri haiek, liburua Bertrand
de Echauz jaunari eskaintzen zaizkion haiek
(*Gomendiozko Karta* deritzaiotenak, alegia)?
Hain daude txairo, lirain, jator eta estilo pare-
gabe batetan idatziak!

Orduko euskal liburuen artean ez da Axularre-
na jaun honi eskainitako bakarra. *Gero* baino
zazpi urte lehenago (1636. urtean, alegia) Joannes
Etxeberri Ziburukoak *Elizara erabiltzeko liburua*

agertu zuen; eta hau ere, Axularren *Gero* bezala, Bertrand de Echauz jaunari dedikaturik dago.

Orduko egoeran euskaldun eta euskaltzaleek gizon handi baten geriza eta babesaren behar zuten, nunbait. Eta honengana jo zuten.

Eta Axularrek berak jaun honen laguntasunari eskerrak garaitu ahal izan zituen bere istilu eta lanbide haiek.

Gainera, Bertrand de Echauzek euskeraz zer-bait idatzirik utzi digu. Euskal idazlea dela esatea gehiegi litzake, baina dena dela haren eskutitz bat, Nafarroa Behereko hizkera arruntean bere anaia bati 1584. urtean egina, ezagutzen dugu. Eskutitz honen testua Aingeru Irigarai jaunak *Egan*-en argitaratu zuen (1956. 3/4, 11-12).

Bizi xehetasunak

Bertrand de Echauz-i buruz luze mintzo da Haristoy (*Recherches historiques sur le Pays Basque*, vol. 2 p. 67). Berak dioenez, nahikoa dohakabea izan zen jaun honen bizitzea. Henri IV erregerekin ahaidetasuna zuen.

Bertrand de Echauz Baigorri jaio zen (Nafarroa Beherean, alegia), 1556. urtean (Axular jaio zen urte berean). Haren jaiotetxeari Echauzea deritzaio. Etxe noble edo handiki hoietakoa.

Joana erreginak Euskalerrian kalbinismua

sartu nahi izan zuenean, Bertrand de Echauzen aita Antoninok harmak hartu zituen erlijio katolikoaren alde eta katolikoen aitzindari eta buruzagi bezala nabarmendu zen. Gomendiozko kartan gertaera hoiek gogoratzen dira (n.º 3).

Bertrand de Echauz apaiz egin zen. Eta 1593. urtean Henri IV erregek Baionako Apezpiku izateko izendatu zuen; baina Aita Sanduari ez zitzaien ondo iduritu izendapen hura (bazekien nunbait Baionan ez zela ondo ikusia, edo beharbada Henri IV bera hereje zelako: urte horretan berean bihurtu zen Katoliko federa). Noren semea zen jakinik, Grammont-ko Kondeak (Baionako alkate eta gobernari zenak) gerra bizia egin zion beti Bertrand de Echauzi.

Azkenean 1599. urtean etorri ziren Aita Sanduaren letrak eta Aita Santuak berak jantzi zion erroketea. Baina Baionako sarrera egunean Grammont alkateak hiriko ateak itsi egin zituzkion. Ez zen hura hasiera zoriontsua. Baina gizon zuzena, amoltsua eta bakezkoa zen Bertrand eta ez zen hargatik bihotz hildu. Baionan egon zen denbora guztian, goxo-goxo, Joanaren jarraitzaileek egindako okerrak zuzentzen saiatu zen.

Hugonoteek, nahiz eta Eliza Katolikotik kanpoan egon, beren hilak elizetan ehortzi nahi izaten zituzten. «Desordenu» hori debekatzeko pausuak eman behar izan zituen (*Gomendiozko karta* n.º 4).

1612. urtean frantziskotarren komentua sortu

zuen Donibane Lohizunen eta maiz joaten zen hara.

1614. urtean Luçon-go apezpiku Richelieu-rekin adiskidetu zen. Echauzek idiki zion honi bidea Luis XIII.aren ministru izateko. Gero Richelieu-k esker beltzaz pagatuko zion. Echauz Kardenal izateko izendaturik zegoela, Richelieu-k beste bat nahiago izan zuen: Denis Marquemont, Lyon-go arzipizpikua (ikus *Gomendiozko karta*, n.º 4).

Jakintza eta letren aldekoa izan zen beti Echauz. Adimendutsu zirenen laguntzaile. Berak bidali zuen Duvergier de Hauranne Lovainara. Damurik, hau ere Jansenioaren adiskide mami egirik itzuli zen.

Gobernariaren gorrotoagatik 1618. urtean Tours-era aldatua izan zen. Hango Arzipizpiku izango da hil arte.

Eliz kargu hoietaz gainera, bazuen beste kargu bat, titulu hutsa baino gehiago zena: Frantziako erregeen lehen kapeilau edo omoniera (*erremusinari* esaten du Axularrek). 1606. urtean eman zitzaion kargu hori. Kargu hori dela eta, bi erregerekin, Henri IV eta Luis XIII.arekin, izan zituen harremanak.

Luis XIII.aren haur eta gazte denboraz bada egunkari bat, delfin edo printzearen beraren mikuak idatzia: *Journal de Jean Héroard*. Gure

Bertrand de Echauz maiz azaltzen da han (Ikus Daranatz, *Curiosités...* t. I, p. 33).

Bere azken urteak gortetik erretiratuta Tours-en igaro zituen. Eta han hil zen.

Bi erresumen artean

Errege absolutuen garaia zen. Eta mundu guztiak daki Frantzia inon baino ere urrunago eraman zela joera hau; hain urrun eta hain aitzina, non azkenean leher egin beharko dute gauzek Erreboluzio handian. Baina Bertrand de Echauz eta Axularren denboran urrun xamar dago oraino porrot hura.

XVI. mendea Espainiarena izan zen bezala, XVII.a Frantziarena izango da. «Le plus beau siècle français avec le XIII^e» (Serge Barrault, «*Scènes et Tableaux. Le règne de Louis XIV*», p. 12). Eta Axularren bizitze luzea erdizkaturik aurkitzen da: lehen erdia Espainia aldera begira, bigarrena Frantziaruntz, bi erresumen eragina jasotzen duelarik.

1638. urtean Luis XIII.ak Frantziako erresuma Ama Birjinari eskaintzen dio eta urte oro eskaintza hori, Andre Maria egunez (abuztuaren 15.ean) berritzeko agintzen du. (Gaur egunean ere Frantziako Errepublika laikoak besta egun hori errespetatzen du, orduan sortutako tradizioari

men eginez). Urte horretan bertan jaiotzen da Luis XIV.a, Frantziako erresuma bere handitasunaren gailurrera eramango duena. Eta gertakariok gertatu zirenean, bizi zen oraindik gure Axular.

Axular euskal folklorean

Hauxe da harri-garria: Axular ipuinetako gizona bihurtu zitzai-gula. Ahoz-aho eta gizaldiz-gizaldi kontatzen diren herri ipuinetan Axularren izena ageri bait da.

Ipuinak ipuin izanik ere, badakigu frankotan hazi bat edo sustrai bat egon ohi dela, historia-tik hartua, eta ipuin loratze horri okasio edo aitzakia eman diona.

Jakitate harrigarria zuen Sarako erretoreak.

Haren jakitateaz txunditurik zeuden entzuleak. Salamancan egona zela bazekiten nunbait. Baina hain jakitate miraritsua esplikatzeko, hori ez zen aski. Jakiteak, herri xehe eta eskolagabearen begitan, badu zer-ikusiren bat *parte txarrekoekin*. Etsaia ere jakituna omen da eta.

Eta Axularren jakitate harrigarri hori esplikatzeko, hara zer asmatu zuten:

Salamancan ba omen da harpe edo aitz zulo bat. Eta han deabruak eskola ematen omen zuen. Jakitate miraritsua eskuratu nahi zuenak, maisu horrengana joatea besterik ez zuen. Eta Axularrak horixe nahi: jakin. Beste lagun batzuekin deabruaren ikasle jarri zen, bada. Baita eskola harrigarriak ikasi ere.

Baina bere maisuari saria pagatu behar. Maisu hark, ordea, ez zuen dirurik nahi. Ikasle haietarik bat, azkenengo gelditzen zena, deabruarentzat betiko izatea: hori zen saria.

Heldu zen azken eguna. Ikasleak bana-banaka irteten ziren kobatik:

—Zu ahal zera enekin gelditzekoa?, galdetzen zion deabruak.

—Ez, ene atzetik datorrena.

Eta irteten uzten zion. Axular zen azkenengoa. Honi ere galdera bera egin zion deabruak. Eta Axularrak besteak bezalaxe erantzun:

—Ez, ene atzetik datorrena.

Irteten utzi zion, eta atzetik Axularren itzala ikusiz, hauxe harrapatu zuen etsaiak. Horregatik itzalik gabe gelditu omen zen Axular.

Itzalik ez, baina bai jakitate harrigarria.

Izan ere, haren liburuan ageri diren autore, aipamen, istorio, albiste, pasarte eta abar ikusi besterik ez dago, jakitate handi zabaleko gizona zela jakiteko. Eta jakitate hori liburuan baino lehenago bere predikuetan agertu zuen. Hortik sortu zen Sarako erretorearen jakitatearen fama. Eta jakitate miraritsu horren misterioa nolabait argitzeko, herriak istorio hoiek asmatu.

edo herriz osatua zen Lapurdi. 35 parrokiak

Herri edo parrokia bakoitzak bazuen bere Biltzar tipia, etxeko jaunek bakarrik osatzen zutena. Igandero, mezatatik irtetean, hauzoko arazoak tratatzeko biltzen zen biltzar hau toki jakin batzuetan: hil harrietan, elizako atarian edo beste edozein tokitan. Badira oraindik toki izenak, hori gogoratzen digutenak: *Kapitaleku*, *Kapito-harri*, t.a. (¿asamblea capitular?). Urtean

behin biltzar hoietan lau kargudun izendatzen ziren: bata *hauz aphez* (alkate), eta besteak konzejal izateko. Urtebeterako bakarrik izaten bait zen kargu hau.

Lapurdiko hauzapezen (edo hioen mandatarrien) biltzarra Ustaritzen egiten zen. Hau zen Lapurdiko Biltzar nagusia. Ez aitonen semeek ez apezek ez zuten bertan parterik.

Biltzar hau noiz bildu behar zen Sindikoak erabakitzen zuen. Sindiko hori Lapurdiko diruzain eta idazkaria zen. Kargua bi urtetako zedukan eta bitartean esku handia ematen zitzaion bere zereginak betetzekoan. Sindikoak jarritako egunean, bada, hauzapezak etortzen ziren. Sindikoaren proposamenduak entzun eta berriro beren herrietara itzultzen ziren. Zortzi egun geroago berriro etortzen ziren biltzar tipi bakoitzak emandako errepuestaz. Azken erabakiak botazioz hartzen ziren, eta herria handia izan, tipia izan, botoak berdin balio zuen.

Demokrazia jator eta bikain hau bizi bizi zegoen errege absolutuen garaian. Eta historiaren bitxikeriak! Frantziako Erreboluzioa izandu zen, libertade eta demokraziaren izenean, ohitura hoiek kendu, fueroak ezabatu eta euskaldun probintzien nortasuna ukatuko zuena.

Axularren garaian errejimen zahar hori bere indarrean zen.

Erregek bazuen Lapurdin bere ordezkaria:

bailli: kapitan, epailari, pagakizunen hartzaile, i.a. Lapurdiko Foruak edo ohiturak Bordelen 1553. urtean inprimatu ziren (Veyrin p. 149).

Bailli hori izaten zen erregeren eta euskaldunen artean ararteko bezala: hots, erregek Lapurdin jarritako ordezkaria edo mandataria.

Gainerakoan, euskaldunak beren kabuz edo berekasa gobernatzen ziren: eremu oso zabala uzten zitzaien. Urak, oianak, artzainen gorabeherak, zubiak, bideak, gauzen prezioak, herriko ordena zaintzea, tokian tokiko soldadu edo indarra mantentzea: hori denori beren esku zen (Veyrin p. 152). Lege berririk ez zuten egiten, lehengoak interpretatu eta aplikatu baizik.

Erregeek euskaldunen ohituren kontra gehiegikeriarik egiten baldin bazuten, hauek bazekiten protesta altxatzen, eta batzuetan entzunak izaten ziren.

Erregeren Konseiluari urteoro pagatu behar zitzaion pagakizunaren neurria, Konseiluak berak mugatzen zuen. Muga hori beharrezko ahalak egiten zituzten lapurtarrek. Dirua nondik edo nola atera, hori beren kontu uzten zen.

Beren mugetarik kanpora ez zeuden soldadutza egitera behartuak. Beren muge barruan, bai, harmak artu eta beharrezko ziren ejerzitu ttipiak mantendu behar zituzten. Mila bat gizonen ejerzitua zuen Lapurdik, 10 edo 20 konpainiatan berezia. Gehienak boluntarioak ziren. Kopurua hoie-

kin betetzen ez baldin bazen, gainerakoa zotz eginenez hornitzen zen. Soldadu jantzi berezirik ez zuten. Herri bakoitzak ematen zituen harmak (1). Ofizial eta beste mailen izendapenak gobernari militarrek egiten zituen, biltzar ttipien proposamenduak haintzat hartuz.

Gerrako denboran milizia guztiak mobilizatu eta Baionako frantses ejerzitua sendotzera joaten ziren. Soldadu haien trebetasuna eta balioa ez omen zen borondate onaren mailan. Lapurdiko bandera gorribeltza zela ere esan izan da, baina ez da bat ere segurua. Banderarik ote zuten ere jakiteko dago (Veyrin, p. 160).

Ustaritzen bazen Hauzitegi bat. Hango ofizialak euskaldunak izatea eskatzen zitzaion erregeri *jendearen konsolamenduko, gehienek ez bait dakite euskaraz besterik* (Veyrin, p. 158).

Zer moduzkoa zen euskaldunen bizimoldea garai hartan? Nahikoa zoriontsua, dirudienez. Hori bai, erregeri ahalik eta gutiena pagatzeagatik beti ari ziren negarrez: lurra pobrea zela; guti ematen zuela, t.a., baina baserri-etxe galantak daude errejimen horretan eginak edo berriztatuak.

Eskolen organizazioa nahiko kaxkarra izango

(1) Oraintxe ere Suizan horrelako zerbait gertatzen dela uste dut. Soldadu legepean diren gizonak beren etxeetan bi-zi dira eta han dituzte harmak. Gerra lehertuko balitz, aguro kuarteletan bilduko lituzkete, baina bitartean ez.

zen. XVIII. mendean herri bakoitzak bazuen bere errienta; baita mendi kaperetan bizi ziren ermitauei ere zerbait pagatzen zitzaien artzain eta baserri urrutietako haurrei eskola emateagatik. Axularren denboran, dirudienez, eskola kontu hau oraino atzeratu xamar zegoen. Partikulariki honek edo harek eragindako iniziatiba batzuk: hori zen guztia.

Bestalde, marinel herria zela Lapurdi ez dugu ahaztu behar. Itsasoko kontuak maiz aipatzen dira *Gero*-n. Lapurtarrak Terranovaraino joaten ziren arrainetara. XVIII. mendeko euskal liburuetan bada bat *Nabigazioneaz*. Eta Etxeberri Ziburukoaren liburuetan badira otoitzak balearen harrapatze ordurako.

Axularren garaian 45.000 bat lagun edo izango zituen Lapurdik (Baiona kontuan sartu gabe).

Sarako herriak, berriz, milatik gora. Ez zen handienetakoa, baina ttipienetakoa ere ez. 1718. urtean 1.490 lagun zituen (Haristoy, *Nobleza y...* p. 54). Erdi mailatik goragokoa, beraz.

XVIII. mendean, eta bai hurrenekoetan ere, egoera kaxkartu egin zela dirudi: Terranovako lurrak Frantziak galdu zituelako, euskaldunen foruak kendu zirelako, t.a. Euskaldunen emigrazioa izugarri gehitu zen orduan, lehenik Ameriketara (Uruguay, Nevada...), eta orain Frantziako beste alderdietara. Uruguay-en hautatu berri duten Presidentea, Bordaberry, Frantzia aldeko euskaldun jatorrikoa da seguru asko.

Galera hoiere artean irabazi hau ere izan dute mugaz handiko euskaldunek Erreboluzio ondoko sisteman: denak elkartuago egotea. Lehen hiru zatitan ziren banatuak: Lapurdi, Nafarroa Behe-rea, Zuberoa. Orain denak departamendu baten barrenean daude, bearnes eta gaskoinek nahiaste.

Joan den mendean mugaz hemengo euskaldunek karlismoaren bidea hartu eta liberalismoa arbuia egin zuten. Hori ez dugu orain ongi konprenitzen. Besteak beste, enetzat hemen dago kaka: hemengo euskaldunek bazekiten ongi Frantziako erreboluzio handiak zer egin zuen gure anaiekin. Libertadea aipatu eta libertade guztiak euskaldunei kendu. Hango irigarrikerietarik ihesi hainbeste euskaldun frantses etorri bait zen honera... Hemengo liberalek ere euskal gauzeta-rako hoztasuna eta higuina besterik ez zuten.

Historia izan den bezalakoa da. Ezin dugu guk izan balitz nahi gendukeen bezala asmatu eta kontatu. Eta hori gaur gure artean maiz egiten dela, salatu beharra dago.

Lapurdi eta Arantzazu

Saratik hurbil xamar da Ainhoa. Eta Ainhoan, Axulai mendi bizkarrean, bada kapera bat Arantzeko Ama Birjinarena. Otoitz leku eta erromes leku lapurtarrenzat. Ainhoarrek diotenez, arantze baten gainean Ama Birjina agertu zitzaion hemen artzain bati, eta horregatik altxatu zen kapera hura. Hori noiz izan zen inork ere ez daki. Agertze hori han bertan gertatu balitz bezala kontatzen dizute ainhoarrek. Ainhoko Ama honen festa Mendekoste biharamunez ospatzen da, handikiro ospatu ere.

Olhagarai apeza izandu da Ainhoko kapera hontaz jakin iturrien bila ibili dena. Lehenbiziko kapera egin zeneko berririk ez du atxeman. Erreboluzio handiko garairako bazela, hori bai. Beherkotxe ermitaua bizi zen orduan kapera ondoan. Orduko nahasmendu eta gerrekin kapera funditua izan zen, lurrera botea. Ermitaua sos biltzen ibili zen herriz-herri eta berriro xutik ezarri zuen kapera. Ez luzaroko. 1814. urteko gerran, berriz ere lurrera botea izandu zen. Eta gure ermitaua abiatzen da orain ere etxez etxe limosna eske, eta berriro altxatzen du kapera.

Olhagarai jaunak uste du (eta arrazoi osoz, dirudienez) Ainhoko kapera honen kakoa ez dela Ainhoan aurkitzen; beste nunbaitean duela bere sustraia, hots, Arantzazuko beilari etxe famatuan, Oinatiko santuarioan, alegia. Izan ere, Ainhoko Ama Birjinari buruz herriak kontatzen duen historia eta Arantzazuko Ama Birjinarena gauza bat eta berbera dira.

Olhagarairen tesi hau finkatu eta sendotzeko bada oraino beste frogarik. XVII. mendean, Axularren garaian hain zuzen, lapurtarrak Arantzazura etortzen ziren erromerian (kostako lapurtarrak, marinel jendea); eta erromeria hori Mendekostez izaten zen. Hots, Ainhoko Amaren festa ospatzen den garaian. Itxuren arabera, honera etortzeari utzi ziotenean (Espainia eta Frantziaren arteko gerrakgatik), Lapurdiko lurrean altxatu zuten kapera hau Arantzazuren ordezkotz bezala, eta geroztik bertara joaten ziren, zeru laguntza eske.

Axularren garaian Ainhoko kapera artean egin gabe izanen zen. Orduan lapurtarrak hemengo Arantzazura erromerian etortzen zirela, badakigu Arantzazuko kondairagileen lekukotasunez. Bai Gamarrak (1648) eta bai Luzuriagak (1686) ematen dute beila honen berri. Bigarrena lehenbizikoari orpoz-orpo jarraitzen bait zaio, lehenbizikoaren pasarteak bakarrik aipatuko dut:

Y no es menos la devoción que tienen los del Reyno de Francia, pues de más de veinte leguas de la tierra adentro viene todos los años muchissima gente en romeria assi hombres como mugeres, y es cosa particular; porque las mugeres vienen por la Pascua del Espíritu Santo, que es el tiempo en que sus maridos están en Terranova y Noruega a la provisión del bacallao y valenas; y vienen con tanta devoción que es para edificar al mundo; pues siendo los caminos tan ásperos, y en particular lo alto de la Aloña, cuyas cimas pasan en más de tres leguas de subida y bajada, siendo toda ella pedregosa, llena de espinas, y sin camino, vienen por ella a pie y descalças; y como la montaña es tan alta de ordinario ay nieblas y lluvias, de suerte que llegan en esta santa Cassa muy aflijidas, mojadadas y cansadas; y de esta suerte sin admitir abrigo de hospedería y aposentos velan toda la noche en la Yglesia, con tanta devoción y afecto, que es para alabar a Dios, y suelen ser los concursos de mucha gente, que tal vez se han visto más de dos mil personas de Francia juntas; y con ser estos años, en que se escribe esta historia, tan calamitosos, y de tantas guerras entre estos dos Reynos; no por esso faltan a su piedad y devoción; sino que con el mismo afec-

to que antes vienen atropellando muchas dificultades, trayendo muchas limosnas a esta santa Cassa de plata y oro. Luego por el mes de octubre del mismo año, que es cuando buelven los navios de Terranova, apenas saltan en tierra los piadosos marineros, quando aun sabiendo que han estado aqui sus mugeres y parientas, vienen en tropas de veinte a treinta, todos a pie, y muchos descalzos con gran devoción a rendir gracias a la virgen señora nuestra, que por medios de esta santa imagen los a librado de tantos peligros y tormentas, como se padecen en el mar; y hacen de nuevo sus limosnas; con que viene este convento a tener gran socorro de la nación Francessa (1).

Erromes hauek frantses hutsak balira bezala mintzo da hemen Gamarra. Baina liburu beraren beste toki batean (p. 109) Donibandar batzuei Arantzazuko Ama Birjinak egindako mesedeaz mintzo dela, zehazki ematen du beroien jatorria eta eskualdea:

Acudieron al piélago inmenso da la divina Misericordia, tomando por su abogada a la Virgen santísima de Aranzazu, de quien son tan devotos todos los de la Provincia de Labort (como queda dicho en el libro segundo),

Ez dago, bada, dudarik. Axularren garaian la-

(1) *La más antigua Historia da Aránzazu* (1648) editada ahora por primera vez. Separata de Scriptorium Victoriense 12 (1965) 74-173; nº 83.

purtarrak Arantzazura etortzen ziren errome-
rian (1).

Geroago, berriz, gerren eta mugen oztopoak
ezin gaindituz, honera etortzeari utzi ziotenean,
Axulai mendian eraiki zuten kapera hura, beste
Arantzazu bat bailitzan.

Arantzazuko Ama Birjinak Lapurdin izan duen
arrakasta eta debozioa jakiteko, bada oraindik
beste lekukotasunik. 1778. urtean Baionan libu-
ruxka bat agertu zen, euskal olerki liburua: *Aran-
zazuko Misterioa*. Dirudienez, Arantzazuko Ama
Birjinaren mirakuiluak kontantzen zituen, Luzu-
riagaren *Paraninfo Celeste*-tik gaia hartuz. Liburu
hau, bai Francisque Michelek (p. 510) eta bai Vin-
sonek ere (t. 2.º p. 587) aipatzen dute. Gaur oso
zaila da aurkitzen. Nik neuk alerik ez dut ikusi
ahal izan.

Lhanderen hiztegian ere esaldi hau aipatzen
da, Harriet-en esku-izkribuetarik aldatua: *Aran-
tzazuko beilara joaite* (sub verbo «beila»).

Nolanahi ere, Arantzazuko Amak Lapurdi al-
dean, eta Axularren garaian hain zuzen, izan duen
debozioa jakiteko interesgarriak dira xehetasun
hauek.

(1) *Gero-n* erlijiozko erromeriak aipatzen dira: "Errome-
rian ibiltzen zara" (nº 348).

Sorginak Lapurdin 17. mendean

L. Apestéguy
jaunak artikulu mordoxka idatzi zuen titulu honetzaz *Gure Herria*-n. Zinez, guretzat, XX. mende-koentzat, ez da bat ere erraza gertaera beltz haiezaz epai zuzen bat ematea. Ez dugu konprenitzen ez orduko jendearen pentsakera, ez juezen jokabidea, ez ezer. Garbi aitortzen digu hori Apestéguy-k: *Zuhurki gauzen berexteko, behar gintuzke orduko jendeen begiak* (GH 1924, 154).

Gauza jakina da nolako lege bortitzak ziren

Europako nazio guztietan sorginkeriaren kontra. Alemanian emakume asko erreak izan ziren sorginak zirelakotan, etsai deabruarekin tratu txarretan zebiltzelakotan.

Bordelen ere bazen hauzitegi bat, sorgin kontutan epaiak ematen zituen. Lapurdiko eskualdean inor sorgintzat joa eta salatua baldin bazen, hara eramaten zuten. Makina bat izan ziren han erreak. Baina Bordele urrunegi zela eta, hauzi hauen epailaria, Lancre jauna, Euskal Herria sorginkerietarik garbitzeko asmoz, Lapurdira bertara etorri zen.

Bazuen eskua zernahi sententzia emateko eta berehalakoan ejekutatzeko ere. Urruñatik hasi zuen bere lana, 1609.ean.

Dirudienez, Lancre horrek begitan zeduzkan euskaldunak, nahiz eta bera ere euskaldun jatorrikoa izan. Lancre berak utzi dizkigu izigarrikeria haiek idatziak. Sendagailtzat jotzen zituen nunbait. Hara euskaldunez ematen dituen iritzi batzuk: Espainolekin mugakide direlako, espainolen harrokeria bera itsatsi zaie. Sagarra besterik ez dute jaten, sagardoa besterik ez dute edaten, eta Adani sagarra jaterakoan gertatu zitzaiona gertatzen zaie: Jainkoaren agindua erraxki hausten dute...

Ez gara hemen hasiko Lancrek egindako hil-kintzen xehetasunak ematen. Daranatz-ek dioenez, 600dik gora izandu ziren sutara emanak, bi apaiz ere bai, hoiien artean; eta beste bost apaiz

Bertrand de Echauzek salbatu zituen Lancreren eskuetarik.

Azkenean, gizon honek Lapurdi osoa hustu behar zuela eta, apezpikuak erregegana jo zuen eta Lapurditik hastandua izan zen.

Sorginkeriaren gaitza erremediatzeko, gogorkeriaren ordeztu beste jokabide bat hartu behar zela iruditu zitzaion erreginari: hots, predikari onak euskaldunei bialtzea; hoiek herriz-herriz ibiliko ziren barkazioa eskaintzen eta damurako bide ematen. Baina euskeraz predikatzen zekitenak behar, eta horrelakorik nekez aurkitzen zen. Aita Coton jesuitari eman zitzaion bilatzeko kargua (1612. urtean). Honek Tolosako Probintzialagandik iritxi zuen euskaldun bat, Aita Soccarro. Hau eta beste lagun bat hasi ziren lanean. Hasiieran, jendea, beldurak eta izuak hartua, ihesi zihoan mendi eta oianetara, lehengo sarraskiak berritzera zetoztelakotan. Gero, berriz, horrelakorik ez zela ikusiz, tropelaka joaten omen ziren predikuak entzun eta kofesatzera. Era hortara, mixio haietarik fruitu ugariak jaso omen ziren (Ikus Daranatz, *Curiosités...* t. I.).

Hemengo aldean ere urte hoietan beretan beste mixio bat eman zen arrazoi beragatik. Erregek (Felipe III.ak) Frantzizkotarren Probintzialari fraide batzuk eskatu zizkion hortarako, eta hain zuzen Arantzazutik irten eta batez ere Nafarroan egin zuten beren lana. Gamarra eta Lurzuriaga, garai hartako kondairagileek, ematen digute mixio lan hoien berri. Eta euskerazko hitz

batzuek ere aipatzen dizkigute, Arantzazuko Ama Birjinak sorginkerietan zebiltzan ume batzuei esanak bezala: *Ene seme alaba chipi laztanchoac, oficio citalori euci eguiçu, etc.* (Ikus Gamarra p. 88. — Michelena, *Textos Arcaicos Vascos*, p. 165).

Guretzat zaila da oso gauza hauetaz juizio ego-ki bat moldatzea. Gure mentalidadea, mundu irudia, pentsakera eta abar hain da bestelakoa! Hala ta guztiz ere, gauza bat esan daiteke okerrik egiteko peril handi gabe: ezjakin handia zegoen gure herrian, eta derrior egon behar, gainera. Jenderik gehienak ez zuen eskolarik. Apaizik gehienak ez ziren predikatzeko eta ezer irakasteko gai. Benetazko erlijioaren ordezt, sineskeriak eta zernahi txorakeria erraz onartzen zen. Higiene eta behar bezalako kuidaue faltaz, eritasun asko ere bai: buruko eriak, anormalak esan nahi dut. Berak sorgin zirela aitortzen zutenak, gehienetan edo beti burutik zeudenak izango ziren...

Bitartean, zer egiten ote zuen Axularrek Saran? Ez dakigu. (1) Bere eliztarrek Lancreren atzaparretarik begiratuکو zituen. Gizon jakintsua zen eta predikari ona. Dotrina zuzenean ondo argituak eta eskolatuak zeuden saratarrek, beren erretoreari eskerrak.

(1) Gomendiozko kartan esaten zaigu nola euskaldunek beren premietan Bertrand de Echauzengana jotzen zuten (Ikus Ax. n.º 2). Lancreren egun beltzen oiartzuna ote dira lerro hoiak?

Hauxe da harrigarria: *Gero*-n giristinoen bekatu mueta guztiak aipatzen direlarik, sorginkeriaz ta abar ez da fitsik esaten. Menturaz, lehen-go izigarrikeriak berritzeko ez zuen aitzakiarik eman nahi, edo ta bazekien Axularrek gaiztake-ria baino gehiago buruko eritasuna eta ezjakina zirela guzti hoiien azpian.

Ez dator hemen gaizki Agirre Asteasukoaren ateraldia: *Jakizu, kristaua, hemengo atsoak sorgintza baiño nahiago lukeela bizkorgarri piskabat* (*Erakusaldiak*, II liburua, p 490-491).

Politika egoera

Espainiako erresumaren goraldirik ederrena ezagutu zuen Axularrek bere mendean; baina goren pondua jo bezain laster beherapena hasi zen. Eta hain zuzen ere, Espainia beheraka zihoan neurrian, Frantzia goraka zebilen. Bi erresuma hauek, nahiz eta biak katolikoak izan, Axularren bizitzako azken urteetan, beti muturka eta burrukan zebiltzen. Frantziak bere mugak zabaldu eta borobildu nahi. Eta bi erresumen muga-mugan bizi zenarentzat, hori ez zen ondorio gabe.

Espainian Felipe IV.a zen errege. Honek politika arazoak Conde Duque de Olivaresen eskutik utzi zituen denboran, egundoko deskalabruak gertatu ziren: Cataluñaiko gerra, ta abar. Frantzia poliki probetxatu zen egoera honetaz: Catalúan muturra sartu eta azkenean Rosellongo partea hartu zuen. Euskal Herriko aldean ere enseiu batzuk egin zituen, batez ere 1638. urtean Hondarrabia harrapatu nahi izan zuenean, baina gaizki atera zitzaizkion. Gipuzkoarrek Hondarrabia salbatu eta etsaia haizatu bait zuten.

24 urtetan ia etengabe elkar erasoka ibili ziren Frantzia eta Espainia. Azkenean, 1659. urtean, Pirinioetako Bakea egin zen (ordurako Axular hila zen aspaldi).

Bake hura behar zen ospez firmatzeko (eta firmatu aurreko elkar hizketak egiteko), Faisanen isla hautatu zuten, hots, Bidasoa ibaian, Irungo parean den isla.

Islaren erdia Espainiarena eta beste erdia Frantziarena izanik, mahaina jarri zen Espainia-ko eta Frantziako mandatariak bakoitza bere lurraldean egoteko moduan. Mila istilu txiki, protokolo eta zirimonia hauziak garbitu behar izan zituzten; baina azkenean dialogatzera jarri ziren. D. Luis de Haro zen Espainiako mandataria, eta Mazarino Frantziakoa. Okasio honekin etorri zen Felipe IV.a Donostiara eta orduan eman zion hiri honi *ziudade* titulua.

Baina gatozen bi erresumen arteko gerra ha-

si zeneko garaira. Felipe IV.ak eskutitzez harreman handia izan zuen Agredako mojarakin. Mojak lainoki eta xalo agertzen zion bere iduriz kristau legeaz ongi ez zegoen guztia; erregek, aldiz, mojak zioena beti kunplitzeko ez bazegoen ere, behintzat pozik eta gustora hartzen zituen haren eskutitzak eta gogoz erantzuten zion. Badira seirehundik gora bion artean egindako eskutitzak, 1643.ean hasi (*Gero* liburua argitara zen urtean berean hain zuzen) eta moja hil zen arte (1665. urtean).

Bi erresuma kristau eta katoliko era hortara elkarren artean gerratan ibiltzea, Agredako mojarari ez zitzaion bat ere ongi iruditzen, eta hala agertu zion erregeri. Honek hara zer erantzun zion:

En lo que toca al rompimiento de esta última guerra, que fue el año de 1635, no me hallo con escrúpulo de haber sido causa de él; pues, aun sin notificármela el Rey de Francia (como suele ser costumbre) me la rompió entrando en Flandes con grandes fuerzas, uniéndose con aquellos rebeldes y herejes contra mí, y desde entonces hasta hoy siempre lo ha continuado (20-7-1645).

Agredako mojarantz gerra haiek ez zuten ez buru eta ez buztanik, erokeria eta zentzugabekeria hutsa ziren:

Por defender cosas terrenas, plazas o reinos (que viene a importar poco los tengan unos u otros), se derrama tanta sangre de cristianos,

mueren millares de millares de hombres. gastan los reyes sus haciendas, tienen a los pobres vasallos oprimidos, llenos de tributos... (Agredako mojak Aita Sandu Alejandro VII.ari egindako eskutitza. Ikus Seco Serranoren edizioa. Apén-dice X).

Irri egingo du zenbaitek arrazoi hauek entzutean, baina kristau pentsakera eta kristau humanismo jatorra mintzo da hor.

Ongi ikusten zuen, gainera, moja hark politika arrazoiak tartean jartzen zirenean, erregeek, nahiz eta kristauak izan, kontu guti egin ohi zutela Jainkoaren legeaz:

Y crea V. M. que la injusticia de los Reyes es dificultosa de satisfacer, pues la ley de Dios es la misma para los monarcas y príncipes que para los demás fieles de la Iglesia; les obliga el precepto de no codiciar ni usurpar lo ajeno, y si le tomaren, deben restituirle o condenarse; pues ¿cuándo se vio que algún rey restituya o mande se vuelva lo ajeno? (10-7-1648).

Pirinioetako Bakearen berri jakin zuenean, mojak asmo hau txalotu eta alde guztiz lagundu zuen. Eta urrezko erregela hau eman zion erregeri:

Ninguna guerra es lícita entre los príncipes cristianos sino la defensiva, y ésta ha de ser a más no poder y sin haber principiado primero. El altísimo Dios omnipotente no quiere guerras en sus hijos católicos y profesores de la ley evan-

gética, la cual se fundó con caridad y paz mandándonos que nos amemos unos a otros, y que para el prójimo queramos lo que para nosotros mismos; y si esto se cumpliera, jamás hubiera discordias ni guerras (11-4-1659).

Erlijio eta kultur egoera

Axularrek bere liburua agertu zuenean, katolizismoa sendo fin-katurik aurkitzen zen Frantzian, nahiz eta hugo-noteek txoko batzuetan jarraitzaile mordoxka izan. Erlijio gerren garaia pasatua zen. Baina gertakari haien oroitzapena ez zen itzalia. Gomendiozko kartan bada, ikusi dugunez, alusio bat baino gehiago.

Izan ere, Frantziako kalbinismoak Biarnon eta Biarnoko hiriburu den Pauen izan zuen bere

sorrera, bere kabia eta gaztelua. 1559. urtean Joana Nafarroako erregina eta Biarnoko Andreak, Katolizismoa ukatu eta Kalbinoren sekta onartu zuen, eta berehala, indarka eta gogorke-riaz erlijio berria sartu nahi izan zuen, bai Biar-non eta bai Nafarroa Beherean ere. Eta laster Frantzia guztira zabaldu ziren nahasmenduak, er-lijio kontu hoiek direla eta ez direla. Baina, esan dugunez, *Gero* liburua agertu zen garairako, ba-keturik zeuden bazterrak. Frantziako erregek, bere erresumatik kanpoan, Flandesen edo, lagun-duko zien beharbada protestanteei Espainiaren kontra joateagatik, baina barnean ondo lotuak nahi zituen.

Gainerakoan, XVII. mendean, izpiritualida-dearen loraldi bikaina ezagutu zuen Frantziak. Nahiz eta *parti pris* jakin batekin egina izan, ezin utzizkoa da hontan H. Bremond jaunaren obra handia: *Histoire littéraire du sentiment re-ligieux en France depuis la fin des guerres de religion jusqu'a nos jours*, Paris 1916. Eta hor dira bi sandu handi, Frantziak egun haietan emandakoak: bata, Euskal Herriko mugetakoa, Paul-ko San Bizente; eta bestea, izpiritualidade gaietan idazle handia, Sales-ko San Frantzisko.

Euskal Herriak ere halako loraldi ttipi bat ezagutzen du mende horretan, eta izpiritualidade alorrekoa izan zen susperraldi hura. Silvain Pou-vreau-k Sales-en *Filotea* eta Scupoliren izenaz da-bilen *Gudu Izpirituala* itzultzen ditu euskerara. Arambillagak *Kristoren Imitazionea edo Kempis*. Axularren *Gero* ere izpiritualidadeko liburua da,

noski. Jakina, idazlea irakurleari zor zaio, eta nahi-ta-ez liburu hoiek maila elementalekoak izan behar, irakurle tailuak eskatzen zituen bezalakoak. Sales-ek, esate baterako, *Filoteaz* gainera badu beste liburu bat goi mailakoa: *Traité de l'amour de Dieu*. Hori ez zen itzuli euskerara, eta itzuli gabe dago oraino.

Baina XVII. mendeak Jansenismoaren krisia ere ezagutzen du. Hain zuzen ere, Bertrand de Echauzek Lovainara istudioak egitera bidali zuen *Duvergier de Hauranne* baiondarra. Hau han Janseniorekin adiskide egiten da, eta bera izango da gero (abbé *Saint-Cyran* goitizenaz) janse-nismoa zabaltzen gehiena nabarmenduko dena. Eztabaida sonatuak izan ziren jansenisten eta jesuiten artean, eta Pascal handiak ere parte hartu zuen beroietan, eta ez jesuiten alde presiski. *Saint-Cyran*i buruz xehetasun gehiago jakin nahi duenak, hor du Artetxe jaunaren liburua.

Baina guri hemen gehien interesatzen zaigun pundua hau da: zer moduzkoa zen orduko erlijio egoera Euskal Herrian? Hortaz badugu dokumentu bat oso argia eta guti aipatua. Silvain Pouvreau, Bourges-ko apaiz hark, euskeraz ikasi, Euskal Herrian erretore izan eta euskeraz liburuak argitaratu zituen. Kanpotarrek maiz etxe-koek baino begi erneagoa izan ohi dute herri baten jitea eta dohainak ikusteko. *Filotea* liburuan, bada, dedikatoria eder bat du Silvain Pouvreau-k Aita Sandu Alejandro VIII.ari, oso latin dotorean egina (Aita Sandu hau izandu zen Salesko San Frantzisko 1661. urtean beato egin

zuen). Deditoria honetan, bada, euskaldun herriarentzat sentitzen duen estimazioa agertzen du S. Pouvreau-k. Erljio kontutan —dio— Frantziako beste edozein lurralderi ez dio ezer zor. Herri horrenganako zaletasuna eta harridura —gaineratzen du— gehitu egiten zaizu hizkuntzaren berezitasunaz ohartzen zarenean.

Eta aszetika gaiez zein irakurgai guti duten ikusiz, kupiturik lanari lotu nintzen eta hartako liburu zenbait itzuli ditut euskerara... (Ikus Vinson, I, p. 113).

Nolanahi ere, erljio aldetik giro ona zegoen, bistan da. Kultura aldetik, jenderik gehienek euskeraz besterik ez zuten jakingo; beharbada, inguruko *patois* bat edo beste (gaskoina, biarnesa), frantsesa oso gutik, urruneko hizkuntza bait zen, Paris aldekoa. Irakurtzen zekitenak ez ziren asko izango. Eskolak, dirudienez, garai hartan ez ziren ez ugariak eta ez onak. Apaizetarik ere denak ez ziren predikuak egiteko gai, formazio on baten faltaz. Beraz, erlijiorako joera egonarren, kristau eskola on baten falta ere bazen. Eta liburuak egiten hastekotan, maila beherekoekin hasi behar. Idazlearen eta irakurlearen artean kidetasun bat egotea nahi-ta-nahi-ezkoa bait da.

Trentoko Kontzilioak agindu zuen predikuak herriko hizkuntzetan egiteko eta hizkuntza hoietan katiximak argitaratzeko, fededunak kristau fedean eskola zitezen. Agindu hoiei eskerrak, lanari lotu ziren hemen ere eliz gizonak. Orduz geroztik hasten dira euskerazko kristau dotrinak,

deboziozko liburuak, t.a. Ez ziren, noski, hizkuntzaren mistikagatik ari; garai hartan gutik zuen horrelako mistikarik (inork baldin bazuen). Hizkuntza mintzabide bat da, tresna bat, nahi ditugun pentsamendu eta ideiak agertzeko, eta tresna hortaz baliatzen ziren kristau erlijioaren egiak irakasteko. Eta inoiz, apaizak beren egin bide hori betetzen zabar xamarrek zirenean, apezpikuak (nahiz eta erdaldunak izan) zetozen bultza egitera, eginbidea gogo araztera (Ikus J. de Urquijo, *Las Sinodales de Calahorra*, Riev XIV, 335).

Era hortara, eta Kontzilio haren bultzadari eskerrak, dugu euskal literatura zaharra, ia oso-osorik Elizaren obra dena.

Badakigu gaur nolako ahapaldiak entzuten diren zenbait aldez: Intolerantzia, Persekuzioa, Kontrarreforma... Baina, faborez, kondairaren lehenbiziko erregela ez dezagun ahanzt: joan mendeetako gauzak eta gertaerak orduko kontestuan juzgatu behar dira, orduko pentsakera, ideia eta mentalidadearen kontestuan, eta ez gure oraingo betaurrekoez. Behinolako egitadeak oraingo ideien argitan ikustea ez da ez zuzen eta ez bidezko. Ezertxo ere ez ulertzeko bidean jarriko ginake, gainera.

Garai hartan, bada, denek zedukaten pentsakera berbera puntu hauetan: katolikoek, protestanteek, eta hitz batez, gizon orok. Orduko ideien arabera erlijioa (eta ez edozein erlijio, benetazkoa, egiazkoa edo egiazkotzat hartu ohi ze-

na) erresumaren zimendu eta oinarria zen. Erresumaren konstituzioari zegokion gauza zen, bada, erlijioa. Eta erlijioa ukatzea edo beronen kontra joatea erresumaren kontrako krimena zen. Mentalidade hau nola formatu zen eta mendez-mendez gauzak kontu honetan nola izan diren esplikatzea, interesgarria izango litzake, baina luzea, eta ez da toki honetakoa.

Nolanahi ere, puntu honetan eboluzio handia gertatu da ideietan gure mendean. Baina XVI. mendeko gauzak orduko ideiekin juzgatu behar dira, orduko pentsakeraren argitan. Badakigu Kalbino nola jokatu zen Ginebran, Albreteko Joana bere Estaduetan, Enrike VIII. Ingalaterran, t.a. Eta hala behar zela uste zuten, gainera.

Badirudi gaur batzuek ez dutela begirik Euskal Herri zaharrak utzi dizkigun baloreak ikusteko. Eta ero antzo ari dira behinolako ondasun guztiak leiotik kanpora bota nahiean. Eta herri arrotzak ispilutzat jartzen dizkigute. Hoiek ez lukete alferrik irakurriko arrotz batek gure herriaz idatzi zuena.

La Biscaye est le seul país que j'ai jamais vu où la culture intellectuelle et morale soit vraiment populaire, où les premières et les dernières classes ne soient pas séparées par une distance pour ainsi dire immense, où l'instruction et les lumières des premières ont pénétré au moins jusqu'aux dernières et où la bonhomie, la franchise, l'innocente candeur de celles-ci n'est pas devenue étrangère aux premières... Dans presque tous les autres país le peuple n'est qu'une masse

inerte (Humboltd-ek Murgari egindako eskutitzean, 1801. urtean. Ikus J. Garate, *Riev* 25 (1934), 439. Mitxelenak *FLV*ko artikuluan aipatua).

Erlijioaren aurka azpi lanean dabiltenak ez dakite ondo beren herriari zer nolako galerak egiten dizkioten!

Kristau fedea gizona beste mundura begira jartzen du, bai, baina hemengo mundurako fruiturik bikainenak eman arazten dizkio: humanismo fruituak, anaitasunezkoak, t.a. Hor da, esate baterako, *Katalinen Gogoetak*, Arradoyren liburuxka, euskaldun emakume kristauaren erretratua. Itzal dadila fedea eta bertute hoiek galduak dituzu...

XVII. mende hondarrean halako mundu ikuskerak berri bat pizten da, zientzia natural eta zehatzek egindako aurkitu berrien ondorioz. Horatik krisi bat sortzen da, lehengo mundu irudia koloka jartzen delako, noski. Krisi hori hurrengo mendeetan haziz eta zabalduz joanen da, eta erlijio eta fedearentzat bere ondorioak izanen ditu: batzuen sinisterako traba eta beste batzuen fintzeko lagungarria. Eta hain zuzen, hau dugu egungo egoera.

Baina Axularrek ez zuen inarrosi berrion zantzurik atxeman. Ez jansenismoaren eta ez kalbiniismoaren ikuturik ere ez da harengan nabari. Erdi Aroko gizona dugu kasik. Salamancan hartutako pentsakeran fermo eta sendo erroztatua bai behintzat.

Euskal literaturaren sorrera

Bada esaera bat herri txikietako bakartasunean bizi diren apaizei buruz: han hingatzen eta zimeltzen direla, alegia. Pobretu, zahartu, zatartu, kaxkartu eta astotu... Hori inoiz edo sarritan gertatu bada ere, ez dut uste beti eta baitezpada hala izan behar duenik. Ars-ko erretorea horrelako herri batean egon zen eta ez zitzaion horrelakorik gertatu. Axularrek ere 40 eta gehiago urte eman zituen herri txiki batean.

Sara-Donibanetako giroa

Bakardadeak baditu bere alde onak, baina baita txarrak ere. Gizonak behar du bere maila-koekin harremanetan egon. Eta Axularrek hala egiten zuen. Donibane Lohizun ez da Saratik urrun, eta halako zentru urduri eta bizi-bizia zen garai hartan. Sarako erretoreak bere jakinduriaz eta predikuetarako gaitasunaz halako ospea bereganatu zuen eta predikuak egitera ere deitua izango zen. Gorago ikusi dugun bezala, Bertrand de Echauzen garaian frantziskotarren komentu bat jarri zen Donibanen, eta handik laster frantziskotar arrotz bat euskerazko liburu batekin azaltzen zaigu: *Materre*, 1617. Saran ikasi duela euskeraz, aitortzen digu, gainera, Materrek. Eta hori gutxi balitz, Elizaren aldetik liburuaren iker-tzaile bezala Axular agertzen da. Ziburuko Etxe-berriren bi liburutan ere Axular azaltzen da iker-tzaile edo iritzi emale bezala. Eta Axularrek berak salatzen digu bere liburua egiteko lehen ideia laguntalde batean erne zela, eta konpainia hartan egotzi ziotela berari liburu hori egiteko kargua (n.º 6).

Garai hartako euskal liburuak ikertuz, laster ohartzen gara gauza batez: Sarako erretorearen inguruan bazela adiskide moltzo bat: apaiz, praille, midiku ta abar, eta zorionez hoiek, elkarri gogoa berotuz eta elkar bultzatuz, sortu zuten euskal literaturaren mobimendua, Euskal Herriko beste eskualdeetan lo zeuden bitartean.

Euskaltzale talde hura nork osatzen zuen oker egiteko peril handirik gabe asma dezakegu, garai hartako euskal liburuetan ageri diren izenak ikusiz: *Klaberia*, *Hirigoiti*, *Materre*, *Gillentena*, *Axular*, *Etxeberri Ziburuko*, *Haranburu*, *Argaignarats*, t.a.

Egia esan, euskal literaturaren abiadura ez zen orduan lehen aldikotz pizten. Aurreko mendean, XVI.ean, bi autore azaldu ziren: *Dechepare* eta *Leizarraga*. Baina batak haragizko bekatua kantatu zuelako (1) eta bestea protestantea zelako, biak zokoratuak izan ziren eta ez zuten ia arrastorik ere utzi. Beraz sortze berri bat bezala izandu zen oraingo hau.

Gizon ikasiak eta eskolatuak zirela laguntalde hartakoak esan beharrik ez dago. Euskal Herriko beste parteetan erderaz argitaratzen zenaren berri ere bazekiten. Hori sinestarazteko aski da Klaberriaren bertso hura gogoratzea:

Burlatzen naiz Garibaiez,
bai halaber Etxabez,
zeinak mintzatu baitire
erdaraz Eskaldunez.

(1) Honekin ez dut esan nahi Dechepare lizunkeriaren alde dagoenik. Aitzitik, moralizatzeko xedea garbi agertzen du. Zein zen presiski gure lehen olerkariaren asmoa eta haren bertsoen intenzioa, istudiatu gabe dago oraindik. Nola-nahi ere, hurrengo gizaldietan zabaldu zen ikusmolderako gordinegiak ziren, eta hala zokoratu egin zuten. Obra horren ale bat bakarra heldu da gureganaino. Horrek zerbaite esan nahi du, dudarik gabe.

Ezen zirenaz geroztik
 Eskaldunak hek biak,
 Eskaraz behar zituzten
 egin bere historiak.

(*Elizara erabiltzeko liburua*-n
 datoz bertso hauek)

Hurrengo gizaldian Sarako Etxeberri euskera-ren patu txarraz mintzatuko zaigu. Jabe gabe, uhinpean, galdu ordean dabilen untzi batekin konparatuko du euskera (*Obras vascongadas del doctor labortano...* p. 59). Bai. Nahikoa triste eta beltza izandu da euskeraren iragana. Hizkuntza bera besteak ez bezalakoa zelako, euskaldunak guti zirelako, eta guti hoiek ere oraino elkarrengandik bereziak bizi zirelako, jende eskolatuak euskerari gibela ematen ziolako, ez ziudade handirik ez Unibersidade ez istudio zentro handirik ez genduelako eta jende xeheak horrelako kezka edo ametsik somatzen ez zuelako, ez zen behar bezalakoa girorik sortu euskerarentzat.

Bertako agintariak ez zuten euskeraren aldeko kezkarik. Ikusi dugu nortzuk osatzen zuten Lapurdiko Biltzarra: aitonon seme eta eliz-gizonak bazterturik zeuden, eta mende haietan, inoren artean izatekotan, hoiaren artean bakarrik pitz zitekeen horrelako kontzientziarik. Baserritar eta arrantzaleengandik ezin itxaron zitekeen gauza handirik. Badakigu nolako ezezko beltza eman zioten Agustin Etxeberriri, bere aitaren obrak Lapurdiko Biltzarrari eskaini zizkionean...(1).

(1) Ikus ene *Historia de la Literatura Vasca*, p. 102.

Nolanahi ere, XVII. mendeko lagunarte honek halako giro bat sortu ahal izan zuen euskeraren alde: Donibane, Ziburu eta Sara dira mobimendu honen ardatza. Eta gero beste toki batzuetan ere izango ditu txipristinak edo oiartzunak. Euskera normalizatu eta berdin xamarra darabilte, gainera: lapurtarra, Donibane inguru hortakoa. Erlijio gaietazko liburuak dira; egile-rik gehienak ere elizgizonak bait ziren, eta herriak berak ere beste liburu motarik ez zuen eskatzen, nunbait. Hala ere, beste alorretako libururik ere bada, ikusiko dugunez.

Dena dela, bide urratzaileak izandu ziren XVII. mendeko idazle haiek. Hasiera guztiak gaitzak eta oztopoz beteak izaten dira. Eta orduan ere hala izan zela garbi aitortzen du Axularrek (Ax. n.º 6). Irakurtzen zekitenak gutxi, euskeraz nola idatzi eta nola irakurri behar zen ezin asmatu, t.a. Zer salmenta eta hedadura izan zeza-keten liburu haiek? Tipia, edozein modutan ere.

17. mendeko euskal liburuak

Mende hartan *Gero*-ren inguruan agertu ziren euskal liburuen kontua emango dugu (mugaz handiko aldean agertu zirenak, noski):

Materre frantziskotarrak, *Dotrina Christiana*, 1617. urtean. Voltaire, *Tresora hirour lenguaietakua* (bigarren edizioa 1642. urtekoa da; lehen-bizikoak ez du urterik jartzen. Vinsonek uste du 1620.ean agertu zela Lionen).

Ettxeberri Ziburukoak hiru liburu eman zizkigun, bertsotan eginak: *Manual Debozinezkoa*, 1627; *Noelak eta berze kanta espiritual berriak* 1630 (argitara berri da hau, Donostian); *Elizara erabiltzeko liburua*, 1636.

Haranburu, saratar frantziskotarrak: *Debozino eskuarra, miraila eta orazinotegia*, 1635.

Argaignarats, Ziburuko koadjutoreak, bi liburu: *Abisu eta exortazione probetxosak bekatorearentzat*, 1641; *Deboten brebiarioa*, 1665.

Gero-ren ondotik Harizmendi, Sarako koadjutoreak, *Birjinaren Ofizioa* euskerara bertsotan itzulia, 1660.

Arambillagak, *Jesukristoren Imitazionea*, 1684.

Gazteluzar jesuitak (Ziburukoa zen hau ere) *Egia katolikak* (bertsotan) 1686.

Silvain Pouvreaux *Giristinoaren dotrina*, 1656; *Filotea*, 1664; *Gudu Espirituala*, 1665. Apez frantsez honek euskeraz ikasi eta itzulpen batzuk egin zituen. Hiztegi moduko bat ere utzi zuen (argitaragabea).

Oihenartek, *Gaztaroko neurtitzak eta atsotitzak*, 1657.

Tartas-ek, bi liburu: *Onsa hilzeko bidia*, 1666 eta *Arima penitentaren okupazione debotak*, 1672.

(Tartas eta Oihenart Lapurdiko tradiziotik kanpoan dira).

Detxeberri edo Dorre-k Hoyarزابalek frantsesez egindako liburua euskerara itzuli zuen: *Liburu hau da Itsasoko Nabigazionekoa*, 1677.

Mongongo Dassanzak (Nafarroa Beherekoak) albaite ruentzat liburu txiki bat atera zuen.

Badira oraino Katixima tipiak (Belapyere, Oloroko, t. a.).

Kopuru dexentea osatzen dute 17. mendeko euskal liburuek mugaz handiko Euskal Herrian, batez ere hemengo aldeko basamortu gorriaz konparaturik. Oraindik bi mende geroago Aita Añibarrok idatziko du: *libros bascongados... no los ha habido hasta mis días* (*Voces Bascongadas diferenciales*, Bilbao 1963, p. 21). Hori esatean, mugaz hemengo aldeaz mintzo da segurki.

Hizkuntzaren aldetik aparteko balioa dute liburu hauek, euskeraren iturri ezin utziak dira. Literatura aldetik, ordea, ez hainbeste. Baina alde honetatik ere bada zenbait aipagarri denik: Ziburuko Etxeberri, Oihenart, Tartas. Eta beste guztiak gainditzen dituen: Axular.

Urtemugari begiratuz, idazle talde hartako atzenetakoa dugu Axular. Baina seguru asko bera izandu zen talde haren arima eta bihotza. *Celebri... rectore de Sara, Meritissimo... rectore de Sara...* esaldi hoiek zerbait esan nahi dute. Eta

besteon liburuetan Axularren izena hitzaurre edo eliz-baimenetan egoteak ere zerbait esan nahi du. Besteok akuilutu, aurretik bidali, eta bera atzenerako gelditu: hara zer egin zuen.

Gero-ren aitzin solasa

Gero liburuak badu, *Gomendiozko Kartaz* gainera, beste hitzaurre bat: *Irakurtzaileari*, guztiz jakingarria benetan. Hitzaurre honetan, kontatzen digu Axularrek nola erne zen liburu hau egiteko lehen asmu edo pensua. Lagunarte batean izan omen zen (euskaltzale haiek osatzen zuten taldean, segurki). Hara zein zen lagunarte haretan erabilitako autua, hizpidea: egitekoak geroکو uzteak zenbat kalte egiten duen. Eta erabaki zuten gai honetzaz liburu bat egin behar litzakeela euskeraz. Eta berehala hasi ziren liburu hori zeinek egin behar zuen galdezka, eta Axular bera izan zen begiz joa (Ax 6).

Axularrek, bada, bere liburua bi partez osatua kontzebitu zuen, eta bi parteok elkarrekin eta batetan atera nahi izan zituen; baina euskal eremuko gauzak hain egoera eskasean zeudela ikusiz, beldurtu egin zen, eta ordukotz lehenbiziko partea bakarrik ateratzea erabaki zuen. Honen nolako harrera duen ikusi ondoren, pentsatuko du zer egin bigarrenaz (Ax 6). Hitz hauek planteatzen duten problemaz geroago esango dugu zerbait.

Eta bere burua zuritzen hasten da Axular: lan

honi lotu delako aitzakiak ematen, alegia. Sekula ordura arte egin gabeko gauza zen, nunbait, eta esplikazioak eman behar (Ax 7).

Oztopoz eta korapiloz beterikako lana hartu duela, badaki. Lehen oztopoa, batasunik eza: mintzatzekoan euskera bera desberdin izatea. Euskeraz hitz egiteko moduan dauden desberdintasunak aipatzen ditu, Euskal-Herriko eskualdeak bana-banaka izendatzen eta hitz desberdinen erenpluak ematen. Euskaldunek ez dituzte legeak, ohiturak eta erresumak bat, eta ez euskera ere (Ax 8).

Ortografian ere badu nahikoa lan. Sail honetan ere ohitura bat baino gehiago ikusten du. Urte haietan, *Gero*-ren aurretik irtendako euskal liburuetako ortografiaz mintzo da hemen Axular. Desberdintasun honi kasu eginez, bi aldetara idazten diren hitzak bi eratara jarriko ditu: era batera liburuan eta beste erara bazterrean, «in margine» (Ax. n.º 9), (1).

T letraren soinu bustia adierazteko bi *t* ezartzea asmatu duela esaten digu eta era honen arrazoia agertzen du. Bide hori espainolak eta latinak erakutsi diote (Ax. n.º 9).

Eta hemen Sarako erretoreak bere bihotz ba-

(1) Materre da noski besteek segitu ez zuten grafia bat erabili zuena. Gaur *X*-ekin idazten dugun fonema idaztean. Berak *joil* idatzi zuena besteek *choil* idazten zuten. Berak *igilik*, besteek *ichilik*, t.a.

rrenean zeraman euskal zaletasunaren sua agertzera uzten du. Berak nahi lukeena hau da: bere enseiu honekin besteak kilikatu eta bultzatu, eta euskera bere eskasia, lotsa eta egoera txarretik atera. Eta egoera txar horren kakoa salatzen du: euskeraz libururik ez egotea. Eta hortan (dio Axularrek) euskaldunek berek dute falta, eta ez euskarak (Ax n.º 11).

Norentzat egina den liburua esaten digu gero. Ez goi mailako jende eskolatuarentzat. Ezer ez dakitenentzat ere ez. Bi ertz hoien artean bada eremu zabal bat: erdi mailako gizon arruntak, alegia. Zentzu oneko direnak eta eskola zerbait dakitena: hoiek ditu Axularrek gogoan, hoientzat egina da liburua (Ax n.º 11).

Eskritura Sandu eta beste lekuetarik hartutako pasarteak euskeraz itzultzekoan zer nolako bidea hartu duen eta zergatik hartu duen esaten digu gero. Eta hemen Axularrek bere iritzia agertzen dizkigu euskerari eta beste hizkuntzei buruz (Ax n.º 11).

Eta azkenik, gauza hauek azala eta lorea baik ez bait dira, fruituari, barreneko mamiari lotzeko eskatzen dio irakurleari (n.º 11).

Gauza guztiak bezalaxe, hitzaurre hau ere *konplitua* atera zaio Axularri, egin-eginekoa, ongi osatua eta borobildua. Argitasun ederrik ematen digu liburuaren sorreraz, euskal gauzen orduko egoeraz, Urdazubiko semeak bihotz barrenean zera-

man euskal zaletasunaren suaz, begipean duen irakurle motaz, t. a.

Berebiziko axola du, ene ustez, testu arrotzak euskerara itzultzeko moldeaz egiten digun aitor horrek. Ematen dituen arrazoiak menturaz ez dira hain errutsuak. Nolanahi ere, hemen datza Axularren sekretua: hark bide bat asmatu zuen, euskerazko bere prediku eta izkribuetan atarramendurik onena eman ziona. Bide honen balioaz, jiteaz, eta bai mugez ere zerbait esango dugu behe-rago. Dena dela, bide urratzaile bat, aitzindari handi bat dugu Axular.

Zer da, literaturan, maisu-lana?

Behinola (Erdi Aroan eta bai geroago ere) ofizial izatetik maisu izatera heltzeko, lan aparteko bat, obra berezi bat egin behar izaten zen. Eta lan hori korporazioek edo gremioek jarritako epaile batzuek ikusi, aztertu eta ontzat eman behar zuten. *Maisu-lana* zela erabaki behar zuten, alegia. Eta orduan ofizial hura maisu mailara igo ohi zen. Hortik bide dator izena: *obra maestra*, gero literaturaren eremuan arrunt bilakatua. Fantsesez chef-d'oeuvre.

Guk maisu lana, lan nagusi edo horrelatsu esan beharko dugu.

Hizkuntza eta herri denetan izaten dira maisu-lana deitzen diren hoietakoak. Ereduek eta ispilutzat hartzen direnak, alegia. Eta herri hoietako semeak obra hauetan eskolatzen dira, obra hauek hartzen dituzte iturburu bezala, bai herriaren izpiritua eta arima norbereganatzeko, eta bai hizkuntza sustraitik menderatu eta sakontzeko ere. Ingelesek, esate baterako, hor dute Shakespeare, italiarrek Dante, t.a.

Honelako idazle garai bati lotzetik egundoko onurak jasotzen ditu ikasleak. Nik hemen esan nezakeen baino handiagoak. Obra hauek ezin agortuzko iturriak bait dira. Bai. Horrelako obra batean egileak berak uste eta nahi izan zuen baino ere askoz gehiago eman ohi du betiere.

Liburu batek, *obra maestra* bezala aitortua izan dadin, zer nolako dohainez jantzirik behar du egon? Bost aipatuko nituzke nik: bi kanpotik eta beste hirurak barrendik liburuarik ukitzen dizkiotenak. Hona hemen: 1) Aspalditasuna, 2) Orijinaltasuna, 3) Mami baliotsu baten jabe izatea, 4) literario aldetik mami hura forma eder batean azaldua egotea, 5) Hizkuntzaren aldetik ere maisu izatea, hau da, hizkuntza ongi menderaturik edukitzea, jator eta maisuki erabiltzen jakitea.

Ikus dezagun bana-banaka zergatik behar diren bost baldinkizun hauek:

1) *Aspalditasuna*. Liburu batek balio trinko, sendo eta iraunkorra duela jakiteko, denboraren joana beharrezkoa izaten da. Urruntasunak soilki eman ohi du obra baten goibea neurtzeko behar den perspektiba. Lilura gezurrezkoak eta distira igarokorrak itzali direnean. Hurbilegi zarenean, laino asko egon ohi da bitartean, era askotako oztopoek ikusbide zuzena galerazten dizute.

2) *Orijinaltasuna*. Hau da: beste hizkuntza batetik itzulia ez izatea. Erraz konprenitzen da baldinkizun honen arrazoia: maisu-lan batek herri eta hizkuntza haren fruitu jatorra behar du izan. Lur hartan ernetako fruitua, alegia, ez beste nunbaitetik aldatua. Horrek ez du esan nahi, jakina, beste hizkuntzetarik inongo influentziarik edo batere ikuturik izan ez dezakeenik. Esan nahi dena da obra horrek funtsean hizkuntza horretan pentsatua eta ernea behar duela izan, bai mamiz eta bai azalez ere.

3) *Mamia* ere ez nolanahikoa, funtsgabekoa, bainan *balioetsua* behar du. Mami eta azalaren arteko ezkontza edo elkartasun batek eman ohi die obra hoiei beren egitura eta taxua.

Azalari gagozkiola, bi azal klase aipatu eta berezi behar dira:

4) Literatura ederraren aldetik forma lirain, txairo eta gazduna izatea.

5) Hizkuntzaren aldetik hizkuntza bera jator eta maisuki erabiltzen jakitea.

Gure aspaldidaniko literatura zaharra aztertzen hasten baldin bagara, ez dugu anitz obra aurkituko bost kondizio hauen jabe denik. Lehenbizikoa eta boskarrena betetzen dutenetarik bada bai franko, baina beste hiruretan edo gutxinaz bigarreanean eta laugarrenean pot egiten dute.

Haatik badira batzuk.

Eta dudarik gabe, gure literaturan libururen bati maisu-lan titulu hau aitor badakioke, Axularren *Gero* da liburu hori.

Honelako obra bati lotzetik jaso daitezkeen mesedeak eta probetxuak (esango dut berriro), era askotakoak dira. Gorago esan dudan bezala, herri denetako herritarrek hartzen dute bide hau beren umeak eskolatzeko. Ume hoiek herriaren izpiritua, guna, kultura eta hizkuntza har dezaten, hau da biderik jatorrenetako bat.

Euskaldunak guztiz zabarrak izan gara hortan. Eta ondorioak begien bistan dira. Euskaltasunak gudan erro eskasak, axalekoak ditu. Euskaldunak oso erraz galtzen du bere euskaltasuna. Eta hori da, besteak beste, bere herriko hizkuntza eta literaturari buruz eskola motxa hartu delako. Eta motxa esatean gehiegi esan dudalakoan nago.

Orain, bada, bai euskera sustraitik mendera-

tzeko, eta bai Euskal Herriko gunaz eta arimaz ohartzeko eta gure pertsona geure herriaren izpirituari sendo lotzeko ere, nekez aurkituko da hau baino bide hoberik. Euskeraz egin den maisu obra bat sakondu eta gogotik istudiatzea bezala korik.

Axularren liburuari mendez-mende egin zaizkion laudorioak

Axularren liburua gure literatura zaharrean erraldoi baten pare gailurtzen da. Zutik eta gailen ageri da. Bakan eta bakarti, esan genezake. Haren aldamenean jar daitekeenik, nekez aurkitzen da. Bere euskera jatorragatik, jakitate, sakontasun, etorri, ugaritasun, liburuak duen bere baitako batasunagatik ta abar miresgarria da. Euskaldunek eta euskaltzaleek mendez mende eta aho batez aitortu dute liburu honen goi maila.

Liburu honi egin zaizkion laudorio eta gorespenekin arrosario polit eta luzea osa daiteke. Laudorio hoietarik batzuk bederen bilduko ditut hemen bakoitzari buruz xehetasunak emanaz.

Kronologia errespetatuz joan en dira aitor hoiek, zaharrenetarik hasita: Joannes Etcheberri Sarakoa, Larramendi, Añibarro, Francisque-Michel, Inchauspe, Bonaparte, Urquijo, Azkue, J. Etxepare, Orixe, Ibar, Lafitte, Oxobi, Gorostiaga, Lekuona, L. Mitxelena, Ibon Sarasola.

1. Joannes Etcheberri (1668-1749).

Sara-n jaioa (beraz, Axular erretore izandako herrian), eta midiku bezala Gipuzkoan bizi izana. Haren obrarik gehienak 18. mende hasieran eginak dira, baina argitara gabe egon ziren, harik eta Urquijok Zarauzko frantziskotarren komentuko artxibutik atera eta argitaratu zituen arte. Obra hoietan aurkitzen da Axularri buruzko aipamen hau.

Etcheberri Sarakoak idazle bezala asko zor dio Axularri. Zaletasun izugarria zion honen liburuari. Juduek Eskritura Sandua zuten beren konsolamenduko. Euskaldunok ere hemen ditugu zerutikako kartak, guri argi eta poz emateko...

Halatan beraz egun Agustin Sainduarekin bade-
rrakegu: «Et hae de illa Civitate, unde peregrina-
mur, litterae nobis venerunt, ipsae sunt scrip-
turae, quae nos exhortantur, ut bene vivamus»

(S. Aug. in ps. 50 cant. 2). Euskal-herrian Axularren eskutik errezibitu tugun iskiribu katholikoak direla zerutikako kartak, edo gutthunak; halako moldez, non Eskual-herriak egun ezin erran baitezake Tobias sainduak Aingiruari erran zioena: «Quale gaudium mihi erit, qui in tenebris sedeo, et lumen coeli non video?» (Tob. 5). Zer kontentamendu nahi duzu izan dezadan, ilhumbetan nago zeruko argirik ikhusten eztudala? Ordea bertzela mintzatu ziren Jonatas eta Hebreoak erran zutenean, etzutela nihoren beharrik, zeren baitzituzten liburu eta iskiribu sainduak bere kontsolamenduko. Hartako bereko utzi darozkigu bada guri ere Axularrek, bere neke trabailuaz athera zituen iskiribu katholiko eskuarazkoak.

(Joanes Etxeberri. Edición Urquijo, 1907; p. 71; Lur Editoriala, 1972, 135 orrialdean). 1716. urtean idatzia.

2. Manuel de Larramendi (1690-1766)..

Andoaindarra. Jesuita. Salamancan Irakasle izana. Euskeraren alde eta euskerari buruz hainbeste lan egina. Eragile bezala asko egin zuen, eta, berari eskerrak, mugaz hemengo euskaldunak beren lozorrotik iratzarri eta euskera lantzen hasi ziren.

Haren *Diccionario Trilingüe* 1745. urtean atara zen. Hiztegi honen sarreran Larramendik bere egunak arte irtendako euskal liburuen zerrenda dakar, bakoitzari buruz komentario bat eginez. Axularren liburuaz hara zer dion:

Síguese un tomo en octavo del célebre Don Pedro de Axular, Rector de Sara, cuyo título es GUEROCO GUERO, y su asunto *DE NON PROCRASTINANDA POENITENTIA*, y tiene 60 capítulos. El bascuence es elegante, propio, puro, abundantísimo, el asunto tratado por principios, probado por la Sagrada Escritura, Padres de la Iglesia, ejemplos y semejanzas muy oportunas: los vicios pintados al natural y convenientísimos sus remedios. Anda en manos de muchos, y debiera en las de todos los Bascongados: y ojalá hubiera dado a la luz la segunda parte que ofrece al principio al lector.

(P. Manuel de Larramendi, *Diccionario Trilingüe*, XIX, p. XXXV. 1745. urtean).

3. Pedro Antonio de Añibarro (1748-1830).

Frantziskotarra. Bizkaiko euskalkia lantzen bidea urratu zutenetako. Axularren *Gero* lapurdieratik bizkaierara itzuli zuen, baina ez zen bere garaian argitaratu. Itzulpen honen orijinala Hondarrabiko Kaputxinoetan dago. Arantzazuko artxibuan ere bada ale bat osoa makinaz kopiatur.

Itzulpen honen zati galanta Urquijok *Rien* aldizkarian eman zuen. Añibarrok berak itzulpen honi jarritako hitzaurretik hartua da testu hau:

Irakurle Bizkaitarra: Ona emen zeure eskuetan, ta zeure euskeran Axularren libru famaduna. Euskaldunen Zizeronen izenaz izentaturik eta

aitaturik ibilli da beti Axular; bada Aita Larra-
mendi euskaldun guztien Maixuak diñolez, bere
euskerea da ederra, nastubagea, utsgarbia eta
ugaria.

(Bizkaierazko itzulpenaren hitzaurrean. 1820. ur-
te inguruan egina. Ikus *Riev*, XIV, 297 orr.).

4. Francisque-Michel

Frantziako gizon jakitun honek 1857. urtean
Parisen liburu gogoangarri bat atera zuen Ipar-
Euskal Herriari buruz: *Le Pays Basque. Sa popu-
lation, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa
musique*. Harrobi bikaina da liburu hau. Ezagun
da egileak guztiz ongi dakiela Euskal Herriko
berri, bere gaiaren jabe dela, alegia. Axularren
liburuaz, bada, aitorrera eder eta galtzekorik ez
duen hau dakar:

Cet ouvrage, composé en 1642 par un curé de
Sare en Labourd, nous montre la langue basque
parfaitement apte à se prêter à l'exactitude lo-
gique, à la clarté, aux développements soutenus
de la morale philosophique et chrétienne. Les
textes, soit grecs, soit latins, sacrés ou profanes,
répandus avec une abondante profusion dans
le cours de l'ouvrage, se sentent à l'aise et comme
dans leur propre élément au milieu des commen-
taires basques qui relient leur traduction. C'est
une noblesse de tours et d'expressions, un en-
semble de sons pleins et nourris, une juste et
limpide enveloppe des idées par les mots, qui
jamais ne le cèdent au mérite, quel qu'il soit,
des textes anciens cités ou traduits.

(Francisque-Michel, *Le Pays Basque. Sa population. Sa langue, ses mœurs, sa littérature et sa musique*, 1857; p. 467-468).

5. Manuel Inchauspe (1815-1902)

Zuberoarra. Jaun Kalonjea. Vatikanuko Lehen Kontzilioan Baionako Apezpikuaren Konseilari bezala egona.

Gero-ren 3. edizioaren argitaratzailea (Baiona, 1864). Esan behar da edizio hau oso aldatua dagoela. Inchauspek beste ordena batean ezarri ditu gaiak. Haatik badu aitzinsolas maitagarri bat. Handik hartzen dugu testu hau:

Iduri du haren liburuak baratze handi eta eder bat, zeinetan aurkitzen baitira leketgarri guztiak: lore, fruitu, zuhaitz, ithurri, itzalpe, hegaztin, harmolde, eta lurak ekhartzen edo gizonaren antzeak berretzen dituen gauza eder orotarik.

(Inchauspe, 3. edizioaren aitzinsolasean, 1864. urtean; XI orriald.).

6. Luis Luziano Bonaparte printzea (1813-1891)

Napoleon handiaren anaia baten semea, hizkuntzalari ospetsua. Euskalari eta euskaltzale suetsua. Euskeraren euskalkiak eta aditza aztertzen hainbeste lan egina. Haren eraginari eskerrak egin ziren Bibliaren bi itzulpen oso euskerara:

Duvoisinena eta Aita Uriarterena. Jaun honek, bada, Axularren ohoretan harri bat ezarri zuen Sarako elizan, eta bertan hitz hauek irakurtzen dira:

Pedro Axular, Euskaldun iskribatzalletatik iztun ederrenari ni, Luis Luziano Bonaparte euskerazaleak au ipiñi nion.

*Ez dago atsedetik
Ez odei gabe egunik
zeruetan baizik
1865*

(Bonaparte Printzipeak Sarako elizan Axularren omenez jarritako harria).

7. Julio de Urquijo (1871-1950)

Deustuan jaioa. Familia dirudun eta handiki batetako semea. Euskal istudioak bide zuzenera ekarri nahiz (Jakintzak eta Linguistikak eskatzen duten bidera, alegia), *Revista Internacional de los Estudios Vascos* sortu eta zuzendu zuen, hizkuntzalari arrotz asko beronen orrialdeetara erakarri eta euskal autore zahar askoren testuak eta berriak bertan eman zizkigun. Hori gutxi balitz, liburutegi hautatu bat osatu zuen, euskeraz joan mendeetan atera diren liburuekin. Gipuzkoako Diputazioan dago orain liburutegi hau.

Axularri eta Axularren liburuari buruz ere lan asko egina da Urquijo. Gero-ren lehen edizioa eta bizkaierazko itzulpena agertuaz gainera, liburuaren orijinaltasuna eta iturriak aztertzen ere

bera hasi zen. Hortaz badu liburuxka bat, eta handik hartua da honako testu hau:

EL GUERO O GUEROCO GUERO, libro de edificación escrito por Pedro de Axular en la primera mitad del siglo XVII, ha sido siempre considerado, por propios y extraños, como la obra maestra de la literatura vasca.

(Julio de Urquijo, Una fuente del Guero, 1912; p. 5).

8. Resurreccion M.^a de Azkue (1864-1951)

Lekeitiarra. Apaiza. Lan izugarria burutu du, hizkuntza, bai herriaren ahotik eta bai idazle zaharretarik ere jasotzen. Hizkuntzarekin batean dihoazen herri jakinduria, esaerak, folklorea eta kantak ere bildu zituen. Bilketa hauen fruitua dira lau obra handi hauek: *Diccionario Vasco Español Francés*, *Cancionero Vasco*, *Morfología Vasca*, *Euskalerriaren Yakintza — Literatura Popular del País Vasco*.

Axularri buruz aipatzen dugun testua Urquijoren liburuxkatik hartua da. Azkuek Axularri buruz zeukan estimazioa jakiteko, ez da makala:

Si se probara que el *Guero* no es un libro original, lejos de disminuir mi admiración por Axular, aumentaría: porque necesitó, a mi juicio, mayor dominio de la lengua para traducirlo, que para escribirlo espontáneamente.

(R. M^a de Azkue, Urquijok dakarrenez. «Una fuente del Guero», p. 6).

9. Jean Etxepare (1877-1935)

Euskaldun frantsesen semea, Argentinan jaioa, baina txikitan Euskal Herrira itzulia. Midikua zen. *Eskualduna* astekariaren lankide. Bere idaz-tankera ongi trenpatuagatik berebiziko fama irabazi zuen.

Hemengo gure testu hauek *Axular* izenaz 1925. urtean agertutako lan batetik hartuak dira. Lan edo artikulu horretan sakonki ikertzen du Etxeparek Axularren liburua. Artikulu hori *Herria* editorialak liburuxka batean bir-argitaratu zuen (1956. urtean).

Aipatu liburu lodi mamitsuan badira 120 bat orrialde arras onak; 55 bat zati, nehoren gogotik sarthuz geroz, ezin galduak. Irakurtzearekin zilatzen dautzute burumunen erroetaraino.

Oroz gainetik euskalduna zen, kasko onekoa, begi beharri onen jabe. Bethidanik eskualdunen mihiek erabili erran-zuhur anitz aurkitzen da haren liburuan.

Axular est parmi les moralistes chrétiens l'un des plus dignes de popularité, des plus savoureux et... des plus persuasifs.

(Jean Etxepare, «Axular», *Eskualduna* astekarian 1925. urtean agertutako artikuluan).

10. Nikolas Ormaetxea «Orixe» (1888-1961)

Orexan jaioa eta Añorgan hila. Istudioak jesuiten artean egina. Urte asko Frantzian eta Ameriketara igaroa. Olerkari bezala baditu *Barne-Muinetan* (olerki jainkotiarrek) eta *Euskaldunak* (Euskal Herriaren Poema). Prosan *Santa Cruz Apaiza* eta *Jainkoaren Billa*. Eta itzulpen asko: *Mireio*, *Tormesko Itsu Mutilla*, *San Agustinen Aitorkizunak*, *Meza-Bezperak*, *Salmuak*, *Ebanjelioak*, t.a.

1927. urtean *Euskal Esnalea* aldizkarian euskal literaturaren historia bat atera zuen. Hara zer dioten bertan Axularri buruz:

Axularren idaztankera bizia da, arraia, garbia ta zainduna. Naiz bitxikeri edo axekarako, naiz funtsez eta gogor mintzatzeko gai dago beti. Orrek eman dio Laphurdiko euskalkiari bere joera ta aria.

(Orixe. «Euskal Literaturaren Atze edo Edesti laburra», *Euskal Esnalea* 1927; 195-196 orr.).

11. Aita Justo Mokoroa «Ibar»

Tolosarra. Aita Eskolapioa. 1936. urtean liburu bat argitara zuen *Genio y Lengua* izenekoa, euskera eta euskal literaturaren problematika jorratuz eta purismo jokerak euskerari egiten zizkion kalteak salatuz. Liburu honetan luze min-

tzo da Axularrez eta haren liburuaren dohainez. Beste gauza askoren artean hauxe dio:

Libro profundamente humano y genuinamente vasco, de rico y sabroso contenido, el *Gero* tenía que ejercer una influencia decisiva. De hecho, su aparición fue para las letras vascas como el descubrimiento y roturación de una espléndida mina de oro.

(Ibar, *Genio y Lengua*, 1936; p. 105).

12. Pierre Lafitte

Apaiza. Idazle, gramatikalaria eta kritikalaria. *Herria* astekariaren zuzendari izana. Ustaritzeko seminarioan irakaslea. 1941. urtean hitzaldi bat egin eta argitaratu zuen: *Le Basque et la littérature d'expression basque...* Axularren liburuaz hara zer dion:

Doctrine abondante, passionnée, précise, colorée, saveur et originalité du style, voilà ce que l'on ne peut pas y aimer. L'ouvrage est tout à fait «renaissance» par l'énorme place qu'y occupent les citations antiques, profanes et chrétiennes, mais tout à fait basque aussi par les allusions au pays, la tournure d'esprit, les proverbes, la syntaxe, la connaissance d'un vaste vocabulaire. Axular a eu le mérite de révéler aux Basques abasourdis les hautes possibilités d'expression de leur langue. Il y aura peut-être un jour quelques écrivains à mettre sur le même rang que lui, mais ils lui devront tous honneur et reconnaissance comme à leur ancêtre et à leur modèle: il a le premier compris qu'il y

a un génie du basque et le premier aussi il l'a laissé rayonner savoureusement dans son oeuvre.

(P. Lafitte, *Le Basque et la littérature d'expression basque*, 1941; p. 42).

13. Jules Moulier «Oxobi» (1888-1958)

Apaiza. Bidarrain jaio eta Arkanjesen hila. Olerkari eta alegilaria. Fabulista bezala batez ere izen handia irabazi du. Haren lanak *Gure Herria* eta *Eskualduna* aldizkarietan daude barreiatuak. Badu Axularren omenez olerki bat benetan motz, zorrotz eta sarkorra:

Eskerrak, Axular!
Bihi, bazka, indar,
Egun eta bihar
Badakigu nun har:
Zu baithan...

Lagunak, ez lokhar:
Aditurik elkhar,
Dugun eskuara sar
Eder, jori, azkar,
Orotan.

(Jules Moulier «Oxobi». Haritschelhar-ek dakarrenez, *Gure Herria* 1963, 210).

14. Juan Gorostiaga

Apaiza, Bilbo ingurukoa. *Epica y Lirica Vizcaína antigua* izenaz liburu bat argitaratu zuen

1952. urtean. Liburu honetan dator honako laudorio hau:

Con el laburdino Axular la lengua vasca tiene un sabor que no ha sido superado por nadie. El logró que la lengua vasca, carente de tradición literaria, indigente y roma para expresar las cosas del espíritu y de la filosofía, alcanzase un esplendor y una riqueza que hacen de su prosa una delicia.

(Juan Gorostiaga, *Epica y Lírica Vizcaína antigua*, Bilbao 1952; p. 25)

15. Manuel Lekuona

Apaiza. Oiartzunen jaioa. Berak argitara zuen *Gero*-ren 4. edizioa. Edizio honen hitzaurrean hara zer dioten:

Itz bat da gure iztegietan, liburu onentzat egokia, egokirik bada. *OPAROA*. Liburu oparoa. Luze eta zabal. Oparoa gaiaz, oparoa eraz. Oparoa mamiz, oparoa azalez. Ixuri ugariduna, benetan. Ixuri errazekoa. Euskal liburuetan *FACILE PRINCEPS*. Ongitxo guztien gañetikoa. gorena, ederrera, jantziarena, jakintsuena, jatorrena, erraza, txairua, apaña... *FACILE PRINCEPS*.

(Manuel Lekuona, 4. edizioaren hitzaurrean; 1954; XX. orr.).

16. Luis Mitxelena

Erreterian jaioa. Salamancako Unibersida-

dean irakaslea. Hizkuntzalaria. Euskeraren iragana, euskalkiak eta euskal testu zaharrak sakonki aztertu eta ezagutzen dituen. Batasunerako bidea erakutsi duena. Bere *Historia de la Literatura Vasca* liburuan hauxe dio:

Del estilo, no hay necesidad de parafrasear una vez más los innumerables elogios que se han hecho. Abundante y con una ligera propensión a la elocuencia, la expresión es siempre precisa y ceñida a destacar la fuerza del razonamiento. No hay en Axular huellas de barroquismo y sí más bien, aunque con mayor sobriedad, una cierta semejanza con la manera de Fr. Luis de Granada. Siempre se han celebrado con razón sus admirables versiones de textos latinos, tan vascas como exactas.

(L. Mitxelena, *Historia de la Literatura Vasca*, Madrid 1960; p. 74).

17. Ibon Sarasola

Donostiarra. Bere *Euskal Literaturaren Historia-n* (Donostia 1971, 20 orrialdean) hau dio:

Axularren eskuetan euskal prosa maila garaienera heltzen da, euskeraren ahalmen ezku guztiak argitara ematen ditu, konstrukzio aberats eta hitz joku (...) miragarrien bitartez. Guzti honek eta liburuaren hats haundiak, orijinaltasunak, dokumentazio eta aipu ugariak, eta itzulari bezala erakusten duen maisugoak euskal idazleen printze eta iturburu segura bihurtu dute.

(Ibon Sarasola, *Euskal Literaturaren Historia*, Donostia, 1971, 20 orr.).

* * *

Arrosario hau luza daiteke segurki, baina aski da, ene ustez, Euskal Herriak liburu honi buruz eman duen lekukotasuna eta (nik esango nuke) erizkizundi aldezkoa, ezagutzeko.

GERO-k izan dituen edizioak eta itzulpenak

Liburu bezala (eta errebistetan agertu diren zatiak kontatu gabe), bost aldiz argitaratu da Axularren obra. Hirurehun eta gehiago urtetan bost edizio: ez da, ez, halako marka handia. Obra hain ona baldin bada, zergatik hain edizio gutxi? Euskerazko gauzek gure artean izan duten patua jakiteko, dato salataria da hau. Liburu lodiegia ere bazen, eta agian horrek gibelatzen zuen bai argitaratzaileria eta bai eroslea ere. Esku liburu tipiek arra-

kasta hobeia izan dute eta maizago argitaratu izan dira.

Edizio bakoitzaren xehetasunak emango ditugu, kritikiko balioaz, urte mugaz eta abar zerbait esanez.

Lehen edizioa (1643)

1643. urtean Bordelen, G. Milanges-en etxean egin zen. Titulua du: *Gero, bi partetan partitua eta berezia*. Eta ondoren, liburu aurrean berean, parte hoietarik bakoitzak zer mami duen aditzera ematen da. Lehenbiziko partearen gaia hau da: gerotik gerora ibiltzeak zenbat kalte egiten duen. Bigarrenean, berriz, Jainkoagana bihurtu nahi duenari bidea erakusten zaio. Partiketa honek antz handia du Fr. Luis de Granada-k *Guía de Pecadores*-en egiten duenaz. Han ere bi liburutan egiten da partizioa, era hontara: Lehen liburuan, bertutea hartzeko ditugun arrazoiak, aku-luak. Bigarrenean, berriz, bertuteen dotrina bera azaltzen da.

Irakurtzailleari deritzaion zatian egileak esaten digu bi parteak elkarrekin eta batetan atera nahi izan zituela. Geroago, ordea, euskarazko liburuen egoera eskasa ikusiz, beldurtu egin zen eta erabaki zuen lehenbizikoa bakarrik benturatzeara. Eta honek ekarriko zizkion albisteen araura, jakingo zuen zer egin bigarrenaz: edo atera edo atera gabe utzi (Ax. n.º 6).

Bi parteen aipatze honek problema asko, galdera asko sortzen dizkigu. Galdera hoientzat orain arte ez da errepuesta egokirik izan. Eginik ote zuen Axularrek bigarren parte hori? Eta eginik baldin bazuen, zer gertatu da parte horrekin? Lafittek uste du (Ikus *Gero-ren Bilduma*), aitzin solasean hori esanagatik, liburuan bi parteak daudela, nahasiak hori bai, eta bigarren hori beharbada osotoro bukatu gabe. Ordurako Axular oso zaharra bait zen, ilobak haren pape-rak hartu eta zeuden bezala inprentara bialduko zituen, eta hala, nahas-nahas argitaratu ziren.

Lafitte bera saiatu da liburuan bi parteen gaiak bilatzen, hots, logikak eskatuko lukeen bezala, liburua ordenatzen. Lehenago Intxauspe Kalonjea ere lan horretan ibili zen. Baina ez bat eta ez besteak ez dirudi asmatu dutenik. Logika bat baino gehiago egon daiteke hemen, gaia-ri nondik heltzen zaion. Ez da, bada, erraza hau-zia logikaz erabakitzea.

Lehen edizio honetatik ale guti ezagutzen da gaur. Vinson-ek (*Bibliographie de la Langue Basque*, 22a ikus t. 2.^o p. 545), sei-zazpi aipatzen ditu. Ale hoiak oso estimu handitan direla esan beharrik ez dago.

2. Edizioa

Gero-ren bigarren edizioa misterio bat da, orain arte inork argitu ez duen misterioa. Bor-

delen, eta G. Milanges-en etxean atera zela dio lehen orrian. Urterik ez du jartzen. Bi parteen aipua liburu aurretik suntsitu egin da. Eta liburuaren titulua, ez *Gero*, baina *Geroko Gero* jartzen du. Gainera, beste hau dio: Bigarren Edizioa, Korrijetua eta emendatua. Azken hitz hau ez dut uste Vinsonek ongi itzultzen duenik: *amendé*. Duda gabe, gehitua, handitua esan nahi du. Edizio berri guztietan bazen ohitura lelo hori jartzeko. *Nueva edición, corregida y aumentada...*

Egia esan, liburua ez da gehitu. Lehenbiziko edizioan egin ziren huts batzuk zuzendu, hori bai, eta inoiz testua argitzearren zerbait aldatu, baina aldakuntza eta gehitze oso tipiak dira. (Ikus esate baterako, Ax 190. Lehen edizioak honela dakar. *Orduan urruititik (ez) (1) hurbil*. Bigarrenak: *Orduan urruititik egon, ez hurbil*. Beraz, bigarrenak *egon* sartu du eta ezabatua zegoen *ez* horri balioa bihurtu dio).

Gainerakoan, huts batzuk zuzendu eta beste batzuk itzuri dira bigarren edizio horretan.

Baina, harrigarriena, titulua aldatzea izan da. Zergatik ipini digute titulu berri hori, eta zer esan nahi du presiski titulu bitxi horrek? Misterioa hemen ere.

(1) Lehen edizioak tatxatua eman zuen.

Lacombe-k uste du (*Varia sur Axular et son livre*) titulu honek zera esan nahi duela: *Gero*-ren bigarren edizioa, hau da, *Gero*-ren ondoren dato-
rren *Gero*. Hobeki esateko, Saroihandy-ren iritzia
omen da hau, eta Lacombe ere iritzi horretara
jartzen da. Nik ez dut uste euskaldunen belarrie-
tan titulu horrek hori aditzera ematen duenik.

Liburuan berean Axularrek erabiltzen du esal-
di hau: *geroko gero*, luzamendua edo luzapena
signifikatzeko. Hona hemen pasarte bat:

Hala erran zuen Aingirua ere, gafiñekoaz zin
egifiñik, etzela izanen gehiago denborarik, akhaba-
tuko zirela geroko gero guztiak (Ax nº 112).

Duda gabe, sentidu horretan hartu behar da
hemen ere; baina era hortara jarria, titulu be-
zala, bere kontestutik aterata, pixka bat arrotz
eta bitxi egiten zaigu.

Noiz eta nork egina da bigarren edizio hau?
Misterioa hori ere. Vinson-ek azterketa zorrotz
bat egin du (*Bibliographie de la langue basque*
n.º 22b) lehen edizioko ale bat eta bigarreneko
beste bat elkar joaz, letren tipuak miatuz, xehe-
tasun asko ikertuz, eta istudio horren ondorioa
hau izan da: edizio hau ez dela G. Milanges-en
etxean egina izan, nahiz eta lehen orriak hori
esan, eta lehen edizioa baino 60 edo 80 urte ge-
roago egina dela. Beraz, 18. mende hasieran. Bai-
na horren segurtamenik ere ez dugu.

Ale asko da bigarren edizio hontatik. Aran-

tzazun badugu bat, Aita Palazios, herri mixiolari ospetsuarena izan zena, eta seguru asko ale hau berau erabili zuen Añibarrok *Gero*-ren bizkaierazko itzulpena egiteko.

Kritika aldetik bigarren edizio hau ere oso baliotsua da, orpoz orpo lehenbizikoari segitzen bait dio (zenbait aldaketa txiki kenduz gero).

Liburuaren tamainari buruz, formatuari buruz alegia, hau esan behar da: lehen eta bigarren edizioak ez direla berdinak. Lehenbizikoa da in 8.º, hau da, 160 x 105. Bigarrena, berriz, in 12.º, hau da, 155 x 95. Inchauspek berriz ere lehenbizikoaren formatua hartuko du.

3. Edizioa (1864)

Baionan, 1864. urtean, Lamaignère alargunaren moldekintzan egina. *Geroko Gero* du titulua honek ere.

Inchauspe zuberotar kalonjeak egin zuen edizio hau. Aitzin solas eder bat ere jarri dio liburuari. Liburu aurrean hauxe dio: *Edizione Berria, garbitua, xuxendua eta bere baitako ordenan emana*. Hau izan da, bai, Inchausperen kezka. Aitzin solasean dioen bezala, Inchauspek uste du liburu hau ez zela behar den ordenan atera:

Badirudi Axularren gutun edo paperak emanak izan zirela inprimatzailleari ondozkatu gabe, ordenan ezarri gabe; eta hunek inprimatu dituela al-

bezala, eskuen artean gertatzen zitzaizkion ereduraz, lehenaz azken, azkena lehen, etzelakotz gidaririk eta ez xuxenzaillerik.

Inchauspek, bada, ordena eta egitura jatorra aurkitu nahi izan du, liburuaren gaiak bi partetan partituak ematen ditu, kapituluak tokiz aldatu eta beste disposizio batean jarriaz. Gainera, testu aldatze eta kentzeak egin ditu. Horregatik, gehiegizko libertadeak hartu dituelako, haren edizioak ez du kritika aldetik balio handirik, ez baita fiatzekoa. Gainera, ez dut uste berak proposatzen duen ordena, liburu honen ordena jatorra eta orijinala denik.

Gaurko belarrien minberatasunagatik *leku harro, zakar eta gordinegi* batzuk leundu egiten ditu. Inchauspek baino lehenago, gauza bera egin zigun Añibarrok bizkaierazko itzulpenean. Ideien, ohituren eta hizketaren eboluzioari ohartzeko agian ez da hau ezaugarri makala.

4. Edizioa (1954)

1954. urtean Zarautzen Itzaropena irarkolan egina. D. Manuel Lekuona apaizak prestatu zuen edizio hau, eta bai hitzaurre luze mamitsu batez hornitu ere. Edizio honen testua lehenbiziko ediziotik hartua da, baina oraingo ortografia jarritz. Hatxe batzuk kendu eta beste batzuk utzi egin dira, hortan zer kriterio edo erregela segitzen den ez dakizularik. Ortografia gaurkotze honek badi-tu bere lanak eta korapiloak. Batzuetan, ortogra-

fia aldatzean, ohartzeke, ahozkatze modua ere aldatu egiten duzu, esate baterako *chori*, *txori* bihurtzean (Axularren mintzairan *xori* bait da). Berdin gertatu da *xalupa* eta *xakur*-ekin ere.

Gainerakoan, 2. edizioko aldakuntzak ere bazterrean jartzen dizkizu edizio honek. Edizio hau Euskaltzaindiaren ardurapean egin zen, eta badiu eraskin batzuk, Aingeru Irigarai-k eta L. Mitxelena-k eginak. Axularren liburua zabaltzeko eta ezagutzera emateko bere mesedea egin du, nahiz eta kritika aldetik oso fiatzekoa ez izan.

5. Edizioa (1964)

1964. urtean Barcelonan atera zen, Juan Flors-en etxean, neronek prestatua. «Espirituales Españoles» delako sortaren barrenean dator eta gaztelaniazko itzulpena ondoan duela. Lehen edizioko testuari jarraitzen zaio, baina ortografia gaurkotuaz eta hatxe letra errespetatuaz. Badu introduzio luze samarra, liburu honi buruz zernahi xehetasun emanez (1).

Edizio honen inprimatze lana Donostian egin zen, Alkorta jaunaren etxean (Gráficas Izarra).

(1) Flors-en edizio hau ere Euskaltzaindiaren laguntzaz egin ahal izan zen. Argitaldaria prest zegoen erdal itzulpen soila argitaratzeko, baina euskeraz eta erderaz egitekotan, Euskaltzaindiak 500 ale hartu behar zituen. Eta hala egin zen.

Probak zuzentzen axola handia ipiniarren, itzuri dira haatik zenbait makur.

Urquijorena, **Riev-en**

Nahiz eta liburu bezala ez egon, ezin utz dai-teke aipatzeke Urquijo jaunak *RIEV* aldizkarian zatika eta aldika argitaratu zuen edizioa. Azken urteotan egindako Axularren edizioak honi esker-rak egin bait dira.

1911. urtean (bere edizio lan honi hasiera eman ondoren, alegia) hitz gogoangarri hauek idatzi zituen Urquijok:

Después de no pocas dudas y vacilaciones y aun a riesgo de que el entusiasmo de mis paisanos no corresponda a la cuantía del sacrificio, me decido hoy a editar el *Guero*, con lo cual creo además contribuir de una manera real y positiva al florecimiento de los estudios euscaralógicos. No puede en efecto negarse el provecho que para éstos ha de seguirse de la empresa que hoy acometo, dada la escasez de las dos primeras ediciones de la obra fundamental de la literatura vasca, y las imperfecciones y lagunas de la que publicó el canónigo Sr. Inchauspe (*Riev* V, 539).

Bada hitz hauetan jakingarririk aski guretzat. Berek agertzen digute nolako girotan burutu behar izan zuen Urquijok bere lana: hoztasun giro batetan, haren herritarrek ez bait zuten egintza honen nondik norakoa konprenitzen. Bai-

na gehienetan edo beti hala izaten dira gauza hauek mundu kaxkar honetan.

Liburu honek gure literaturan duen oinarri balioa ongi ikusten zuen Urquijok, eta nahiz eta bere inguruan konprenzio eta eskerron handirik ez ikusi, eta bere sakelaren kaltetan ibili, faksimilezko argitaratze lan hau egitera jarri zen, lanak, batez ere gerora, bere frutua ekarriko zuela koan. Eta hontan ez zen oker egon.

Izan ere 40 urte hontan euskal istudioetan gertatu den berriztapena ezin da ukatu, eta berriztapen hau Urquijoren neke-lan hauei da gehienbat zordun. Ongi ikusi zuen hark euskal literaturaren oinarriak non ziren eta literatura hau pizberritzeko nondik jo behar zen.

Euskaltzaleen haztamuka ibiltzea garaitzeko berak eman zizkigun tresnak (Azkue eta beste zenbaiti zor zaiona ezertan ukatu edo gutietsi gabe).

Egia da denak ez direla oraino konturatu. Joan gizaldiko mentalidadean eta ikusmoldean gogortuak daude, berriztatzerik gertatu ez balitz bezala. Baina legami berria orotara zabaltzen ari da. Batasunaren abiadura ere berriztapen honen ondorioa izan da.

Urquijo jaunak, bada, edizio berezi bat egin zuen *Riev-en*, aldizkari honen IV. urtean hasita (1910). Aldizkaria 1936. urtean hil zenean, liburuaren zatirik gehiena agerturik zen, baina ez

osorik. (*Gero*-ren 47 kapitulu azaldu ziren eta obra osoak 60 kapitulu ditu). Edizio hau faksimil erara eginik da, beraz lehen edizioaren reproduzio zehatza. Eta agertu ez zen zatiaren plan txak Donostiako Diputazioan egon behar dute.

Axularren liburua den bezala ezagutzeko honera jo behar du beti hizkuntza zaleak. Eta on litzake plantxa hoiek baliatuz edizio berezi bat egin baledi, jatorrizko testua liburu batean den bezala emanek. *Riev*-en agertu zena tomo askotan barreiaturik bait dago eta gainera ez zen osorik agertu.

Gero-ren itzulpenak

Euskeraren barrenean, euskalki batetik bestera alegia, itzulpen oso bat egin zuen Aita Añibarrok bizkaierara, 1820. urte inguruan. Baina bere garaian ez zen argitaratu. Itzulpen honen orijinala Hondarrabiko kaputxinoetan dago. Makinaz egindako kopia bat Arantzazuko artxibuan da (eta beste bat, Euskaltzaindiaren liburutegian: kopia hoiek, oker ez banago, Altzeta zenaren etxeok egin eta erregalatu zituztela uste dut). Itzulpen honen testua ere, zati handi bat bederen, *Riev* aldizkarian agertu zen, XIV. urte-tik hasita, baina dena agertu baino lehen hil zen aldizkaria.

Gipuzkerara ere egin nahi izan zen itzulpen bat, eta zati batzuk *Euskal Esnalea*-n (Ikus 1909.

urte inguruan) azaldu ziren. J. A. Ateaga izan zen itzularia, baina puska batzuk besterik ez ziren agertu, eta oso aldatuak gainera (hizkuntza aldetik, noski).

Ibar-ek bere *Genio y Lengua* liburuan, 44. orrian nota hau dakar:

Quien repasara la colección de *Argia* hacia los primeros meses de 1925 tropezaría con un documento notable a este propósito. Allí vería con qué modos tan expeditivos se hizo abortar un proyecto de reedición del *Guero* «obra plagada de voces exóticas».

Zinez, gure idazle zaharrei gatza eta ura ere ukatzen zitzaizkien orduan!

Euskeratik kanpora egin den itzulpen bakarra gaztelaniara neronek egina izan da, eta 1964.ean agertua, *Gero*-ren 5. edizioaz batera.

Gogoan dut itzulpen lan hori egiten ari nintzenean Fausto Arozena jaunak esan zidana: Itzulpenaren proba jasan behar du liburu batek balio sendo eta trinkoa baduela jakiteko. Iku-siko dugu *Gero*-k proba hori gainditzen duen.

Axularrek proba hau ongi jasan duela uste dut. Bere garaian eta bere sail eta mailan egiten ziren liburu hoberenen parean jarririk, ez da bat ere motz gelditzen.

Liburuaren orijinaltasuna

Gero liburuaren orijinaltasunaz beren dudak eta susmoak agertu zituzten bai Humboldt eta bai Schuchardt-ek ere. Liburu hau eskutan hartzen duena, hango erudizio eta zita piloaz erasana gelditzen da. Euske-razko liburuetan ez bait da holakorik gertatzen (Etxeberri Sarakoa da zaharren artean, Axularri hontan hurbiltzen zaiona).

Nondik eta nola herri txiki bateko apaiz txar

batek izan zezakeen horrenbeste jakinduria? Nola eduki zezakeen han aipatzen den beste liburu?

Liburua erderatik itzulia balitz, errazago konprenituko litzake gauza. Baina *Gero*, liburu bezala, erderatik itzulia izan dela ez du nehork frogatu. Eta ez dut uste frogatuko duenik ere. Orain beste kontu bat da liburuan badirela handik eta hemendik karriatutako gaiak.

Bai. *Gero* zitaz josirik dago goitik behera. Antzinateko autoreak, nahiz jentilak nahiz kristauak, ia etengabe aipatzen dira, eta hoietarik atera edo hartu ohi ditu egileak komeni zaizkion edo harira datozkion exenpluak, istorioak, erakutsiak eta abar.

Esan behar da hori garaiko moda edo ohitura zela. «Renacimiento» delakoak ekarri edo berpiztu zuen moda. San Frantzisko Saleskoak berak ere horrelako zerbait egin ohi du. Honen obretan ere anitz exenplu ageri da animalien bizimodutik eta bai jentil aroko jakintsuetarik atereak. Honela jokatzeari bere garaiko seme bezala ageri da Axular. Zesarea-ko Eusebiok zioenez, Grezia zaharraren jakinduria «Praeparatio evangelica» izandu zen (prestaera suerte bat Ebanjeliorako), eta kristautasunak jentil jakinduria hori neurri batean hartu eta beretakotu egin zuen.

Nolanahi ere, zer moduzko liburutegia ote zuen Axularrek Saran? Ez dakigu. Dexente ona eta joria bazuela pentsa dezakegu, baina aipatzen dituen autore guztiak eduki beharrik ez zuen.

Lafitte jaunak idatzi duenez, baziren bildumak, berariaz eginak, eta hoietarik asko atera zezakeen: *Catena*, *Exempla*, *Dicta factaque memorabilia*, *Antiquae lectiones*, etc. (Ikus Lafitte, *Les Citations d'Axular*).

Autore aipatuak eta iturriak

Gehienetan Axularrek aipatzen dituen autoreak zaharrak dira. Horrek ez du esan nahi bere mendekoak irakurtzen ez zituenik. Irakurri bai, baina aipatu ez hainbeste. Hori ere moda edo usuarioa zen. Zaharrek bazuten halako itzal edo kutsu beneragarria. Modernuek, gehiago irakurtzen baziren ere, ez zuten horrenbesteko pisurik.

Autore zaharren artean Seneka da, noski, Axularrek gehien aipatzen dituenetarik bat. Eta hain zuzen, gauza jakina da nolako arrakasta zuten Espainian mende haretan Senekaren obrek.

Bere garaiko autoreetarik Zumel da Axularrek aipatzen dituenetako bat, bere eskola nabusitzat aitortuaz, gainera (n.º 69). Bekatari ostinatu, gogortu eta itsutuen kontua esplikatzen du hemen Axularrek, bere eskola-nabusia gidaritzat hartuz. Seguru asko honen liburuak izango zituen bai Axularrek. Hemen, Arantzazuko liburutegian, badira Zumelen bi liburu: *De Deo ejusque operibus*, Salamanca 1590. Eta beste bat, aurreko orriak falta dituen, Salamancan 1585. urtean agertua. Biotan azaltzen da Axularren pundu hau: lehenbizikoan 659. orrialdean; biga-

rrenean 616. orrialdean. Eta Axularrek puntu honi buruz dakartzkien zitak (Bibliatik edo Eliz Gurasoetarik hartuak), ia denak Zumelen obretan datozen berberak dira. Zumelen beraren partea hitzez hitz Axularrek dakarren bezala ez dut aurkitu, baina bai antzera xamar. Horra:

At vero indurati et obstinati, propter habitum peccandi firmissimum, quem habent ob suam culpam; vix aut fere nunquam utuntur bene prioribus auxiliis; atque ita non accipiunt posteriora illa auxilia, quae reliquis peccatoribus saepe donantur (aipatutako 2. liburuan; 617-618 orriald.).

Domingo de Sotoren liburuak ere izango zituen noski, teologia puntu batzuk argitzeko honi jarraitzen bait zaio (Ikus n.º 139 eta 375).

Modernuetarik Ribadeneira, Monserrateko Historia eta Doktor Navarro ere aipatzen dira (Ikus n.º 233, 234, 163). Vita Thomae Mori Ax 332.

Baina hemen kontua beste hau da: Axularrek bere liburua egiteko, aipatzen dituen autoreez gainera, ez ote zituen beste batzuk ere erabili? Kidekoak edo mende hartakoak aipatzea ez zela ohitura esan dugu; hoiek irakurri eta baliatu, bai, egiten zen gogotik. Eta Axularrek ere hala egingo zuela uste izateko da. Gai hauetan nehor ere ez da xoil orijinal. Gauza guztiak bere baitatik sortzen eta ateratzen dituen ez da jaio.

Luis Mitxelena jaunak idatzi du berriki sagarroiaren exenplua (Axularrek 53. numeroan da-

karrena) Alejo de Venegas-en ageri dela, autore honek Toledon 1538. urtean agertu zuen liburu honetan: *Agonía del tránsito de la muerte* (Ikus FLV, III (191), 166). Axularrek exenplu hau Venegas-en liburutik zuzen-zuzenean hartu ote zuen. ala beste nunbaitetik? Ez jakin.

Fr. Luis de Granada

Baina honetan ere Julio de Urquijo jauna izandu da erbia eraiki zuena. Berak erakutsi zuen zein izan zitekeen Axularren maisu, gidari eta iturri nagusietarik bat: Fr. Luis de Granada. Usna ona izan zuen honetan Urquijok. Pasarte guti batzuk aipatzen ditu berak Fr. Luisen obretarik atereak eta Axularren liburuan beren ordezkoa dutenak. Ez hori bakarrik. Mitxelenak aitortu duenez (FLV, 1. c., p. 166), bada halako senidetan bat idaztankeran, esaldiaren egituran, perpausen moldagintzan, t.a., Axularren eta Fr. Luisen artean. Hori froga lezakeen istudioa ez du oraindik nehork egin, eta ni ere ez naiz hortan sartuko.

Fr. Luis de Granadaren obrak izugarri zabaldu ziren Europa guztian. San Frantzisko Saleskoak *Idazle izpiritualen printzea* deitzen du. 1504.ean edo 1505.ean jaio eta 1588.ean hil zen. Beraz, Axular Frantzia aldera joan baino lehenxeago.

Aita Justo Cuervok egina du Fr. Luis de Granadaren obra guztien edizio kritikoa, 14 tomo

handitan. Jaun honek dioenez, Granadak bere *Guía de Pecadores* lehenbiziko aldiz Lisboan 1556. urtean atera zuen. Baina 1559. urtean Valdés Inkisidoreak liburu hau, beste askorekin batean, liburu debekatuen zerrendan sartu zuen.

Gertatu hau dela eta, Avilako Santa Teresak hitz eder hauek idatzi zituen:

Gaztelaniazko anitz liburu irakurtzetik kendu zirenean, nik pena handia hartu nuen, hoietako batzuk irakurriz sekulako poza hartzen bait nuen ('eta latinez egonarren ez nintzen gauza). Orduan Jaunak esan zidan: Ez dezazula penarik har, Neronek emango dizut liburu bizia. Hori zergatik esan zitzaidan, ezin nuen nik orduan asmatu, artean ikuskizunik izan gabea bait nintzen; gero, berriz, handik egun gutxitara, txit ongi ulertu nuen. Izan ere, begion aurrean ikusi dudana izan dut bai pentsagairik eta neure baitara biltzeko biderik aski. Jaunak enekiko eta eni irakasteko izan duen amodioa hain izan da handia, ezen ez dut geroztik liburu behar handirik somatu, edo bat ere ez. (Vida, XXVI, 5).

Valdesek zergatik debekatu ote zuen Granadaren liburua? Cuervok dioenez (Ikus X. tomoaren hitzaurrea), Testamentu Berriko pusketa luze asko erderaz dakarzkielako.

Dena dela, obra hau arras eraberritua, hobetua eta baimen guztiekin atera zuen Granadak Salamancan 1567. urtean, Andrea de Portonariis-en etxean.

Axularrek, bada, Granadaren obrak erabili zituela ezin uka daiteke. Horrek ez du esan nahi beti harekin ados denik. Esate baterako, ifernuan, ez beroa bakarrik, bainan hotza ere badela diotenen kontra ateratzen denean (n.º 375), dirudienez Granadaren ustea du begien aurrean, eta haren aurka ari da (Ikus *Euskera* 1962, 7).

Granadaren obra guztiak aztertzerik nik ez dut izan. *Guía de Pecadores* bere bigarren redazioan azertu izan dut, eta han aurkitu ditudan azterren nagusiak jarriko ditut.

Eta hasteko, esan behar da Granadak (Axularrek bezala) bere obra hori bi liburutan partitzen duela. Lehen liburuaren gaia hauxe da: deboziozko edo bertutezko bizitzea hartzeko zein arrazoi diren. Bigarrenean, berriz, bertutezko bizitza hori zer den edo nolakoa den erakusten da. Ez ote da hau berau Axularrek egiten duen partiketa, nahiz eta bere liburuaren gai bereziari leial egon? Hala dirudi, *Gero*-ren portadan dioenari kasu ematen badiogu behintzat.

Granadaren lehen liburuak hiru parte ditu. Leheneko bietan bertutea besarkatzeko ditugun arrazoiak luze eta zabal dakarzki; eta arrazoi hoiek pixka bat goitiarrak dira. Hirugarren partean (hau da motxena), bekatariak ez konbertitzeko ateratzen dituen arrazoiak aipatzen eta erantzuten dira. Eta hain zuzen, atal honetantxe dira arrastorik garbienak. Esan nahi dut: hemendik bai hartu du Axularrek zerbait, eta zer-

bait baino gehiago, bere libururako, baina beti gauzak bere gisa eta antzora moldatuaz.

Granadaren bigarren liburua ere bi partetan berezia dago, bertutezko bizitzearen bi alderdietarik aitzakia hartuz: hots, bekaturik ez egin eta bertutea hartu. Bitaratze honen arauaz, lehen liburuan bekatu mota arruntenen kontrako erre-medioak dakartzki eta bigarreanean bertuteen do-trina.

Axularrek bere liburua pixka bat Granadaren antzera taxutu baldin bazuen, ezin zokora daiteke arinki Inchauspe eta Lafitteren ustea: Axularren obran, alegia, gaur dadukagun bezala, bi parteak daudela, nahiz eta beharbada bigarre-na ez osorik egon. Izan ere, Granadaren lehen liburutik azken atalaz bakarrik baliatu da. Eta bigarren liburutik, lehen parteko gaian xoilki datoz bat autore biak (Granada eta Axular, alegia).

Beraz, goialdeko arrazoiak aipatzen ibili baino nahiago izan du beherengo mailatik hasi, eta lur gogorrean oinak finka. Ez da, ez, teilatu zalea gure Axular. Bere artaldea ongitxo ezagutzen bait zuen.

Eta beste gabe, aurkitu ditugun pasarte paraleluok eskaintzera goaz.

Fr. Luis de Granada, *Guía de Pecadores*, libro 1.º, parte 3.ª
(Edición Cuervo, tomo I)

Cap. 24

1. — *Espera, Señor, un poco, aguarda otro poco, agora dejaré el mundo, agora saldré de pecado.* (Pg. 250)
2. — *Tú dices que adelante; yo digo que luego. Tú dices que adelante te será esto más fácil de hacer; yo digo que luego lo será: veamos quién tiene razón* (Pg. 250)
3. — *Que como le hubiese sucedido muy bien la cosecha de un año, púsose a hacer consigo esta cuenta: ¿Qué haré de tanta hacienda? Quiero derribar mis graneros y hacerlos mayores, para guardar estos frutos; y hecho esto hablaré con mi ánima, y decirle he: Aquí tienes, mi ánima, muchos bienes para muchos años. Pues que así es, come, bebe y huelga, y date buena vida. Y estando el miserable haciendo esta cuenta, oyó una voz que le dijo: Loco, esta noche te pedirán tu ánima; eso que tienes guardado ¿para quién será?* (P. 251)
4. — *Porque con el pecado se oscurece el entendimiento y se enflaquece la voluntad, y se desordena el apetito, y se debilita más el libre albedrío, y se hace menos señor de sí y de sus obras.* (P. 252)

1. – Ha, launa, utztazu aphur bat, igurikazu bertze aphur bat, ez lehia, ez kexa, ez berantets, sarri naiz zurekin. (Ax 34)
2. – Ordea pontua da ea noiz utziko dugun. Eta zuk diotzu, gero. Baina nik diot ezen ez gero, baina orai. Dakusagun ea zeñiek dioen hobeki, zeñiek duen arrazoiña. (Ax 36)
3. – Zer egiñen dut? Norako dut hunenbat ogi, arno, bihi, fruitu eta onhasun? Eztut edukitzeko lekhurik ere. Baina badakit zer eginen dudan, erraiten dio berriz bere buruari. Leheneko bihitegiak, ardandegiak, so-toak, salak eta ganbarak handitukoitut, edukitzeko lekhuia franko eginen dut. Eta gero sosegatuko naiz, ardura guztiak utzirik, pausatuki, hatsaren gainean iarriko naiz, erraiten dudala neure baitan: Orai atsegin har dezadan, ian dezadan, edan dezadan, zeren berdin eztut deusen eskasik, eztut gerokoren perilik, badut ethorkizunekotzat behar den konplimendu gutia. Bada kontu hautan, kontuak egin gabe zebillala, aditu zuen zerutik mintzoa: Ha erhoa, zentzungabea, zer mintzo aiz? Egin dik hireak, gaur eskatuko zaizkik heure arimaren, gaur gorputzetik atherarik, eramannen deraue. Eta gero orduan, bildurik dadutzan on horiek norentzat izanen dira? (Ax 50)
4. – Bekhatuak ilhuntzen du adimendua, flakatzen du memoria eta gaixtatzen du borondatea; zenbatenaz bekhatu gehiego eta bekhatutan egonago, hanbatenaz adimendua, memoria eta borondatea ezteusago. (Ax 57)

5. – *Agora peleas por ventura con cien pecados, adelante pelearás con mil; agora con un año o dos de mala costumbre, adelante quizá con diez. Pues ¿quién te dijo que adelante podrás más fácilmente con la carga que agora no puedes, haciéndose ella por todas partes más pesada?* (P. 253)
6. – *¿No has leído lo que el Eclesiástico dice, que la enfermedad antigua y de muchos años pone en trabajo al médico, y que la de pocos días es la que más presto se cura?* (P. 254)
7. – *Esta manera de engaño declaró muy al propio un ángel a uno de aquellos sanctos padres del yermo, según leemos en sus vidas. Porque tomándole por la mano, sacóle al campo, y mostróle un hombre que estaba haciendo leña; el cual después de hecho un grande hace, como probase a llevarlo a cuestras, y no pudiese, volvió a cortar más leña y juntarla con la otra; y como menos pudiese con ésta por ser mayor, todavía porfiaba a hacer aun mayor la carga, creyendo que así la podría mejor llevar. Pues como el sancto monje se maravillase desto, díjole el ángel que tal era la locura de los hombres, que no pudiendo levantarse de los pecados, por el peso grande que tenían sobre sí, añadían cada día pecados a pecados y cargas a cargas, creyendo que adelante podrían con lo más, no pudiendo agora con lo menos.* (P. 254)

5. – Orai hamar bekhatuekin dihardukazu, gero ehunekin iharduki beharko duzu. Orai urte baten edo biaren usantza gaixtoa duzu, gero hogoiena edo berrogoiena izanen duzu. Bekhatu egiteaz koropilloak doblatzeintuzu, katheak berretzeintuzu, karga handitzen duzu. Zer erhokeria da bada haur, uste baituzu ezen gero karga handiarekin hobeki manaiatuko zarela, orai ttiptiarekin baiño? (Ax 57)
6. – Eritasun luzeak eta zaharrak nekhatzen du midikua, baiña laburrak eta berriak egiteko guti emaiten dio, hura laburzki sendatzen du. (Ax 57)
7. – Egia haur eman zeraukan aditzera aingiru batek lehenago mendietan eta ermitetan bizitzen ziren saindu hetarik bati. Hartu zuen aingiru hark gizon baten iduria eta ioan zen mendietako saindu hetarik baten-gana, eta eskutik harturik, eraman zuen oihanean barrera, eta han erakutsi zeraukan gizon bat, hari zela egur egiten. Eta zama bat egiñik, lothu zuenean, hasi zen enseiatzen ea iasan ahal zezakeienz. Baiña hain egin zuen handi, ezen ezin iasanez utzi baitzuen. Utzi zuenean, hasi zen berriz bigarreanean egur egiten, eta are leheneko zamaren handitzen. Handitu zuenean, hartu zuen eta hasi zen lehen bezala enseiatzen ea iasan ahal zezakeienz. Baiña are orduan gutiago, zeren lehendanik handituago baitzuen. Ordea guztia-rekin ere, hasi zen hirugarrenean ere lehiatzen, egur egiten eta bere leheneko zamaren, lehen bezala, handitzen, ustez ezen halatan arinduko zeikan eta erraxkiago iasanen eta eramanen zuen. Sainduonek haur ikhusi zuenean, galdegin zioen aingiruari: Zer erhokeria da haur, uste baitu gizon hunek, berretuz, karga arinduko zeikala? Eta handituz, erraxkiago iasanen eta eramanen duela? Orduan ihardetsi zioen aingiruak: horrela duk bada munduko erhokeria ere, uste

8. — *Como una calentura lenta de tísicos, que está allá metida en las entrañas del hombre, que no espera cura ni medicina. (P. 255)*
9. — *Esto mismo nos mostró también el Salvador en la resurrección de Lázaro, de cuatro días muerto; al cual resucitó con tan grandes clamores y sentimientos, como quiera que los otros muertos resuscitase con tanta muestra de facilidad, para dar a entender cuán gran maravilla sea resucitar Dios al que está ya de cuatro días muerto y hediondo: esto es, de muchos días y de mucho tiempo acostumbrado a pecar. (P. 255)*
10. — *Porque así como el que ha tenido una larga o recia enfermedad pocas veces sale della sin reliquias para adelante, así lo hace también el largo uso de los pecados y la grandeza dellos. (P. 257)*
11. — *Acuérdate de tu Criador en el tiempo de tu mocedad, antes que vengan aquellos días trabajosos, y aquellos años en que ya la misma vida suele ser a los hombres enojosa. (P. 259)*

Cap. 25

12. — *Mas antes que entremos en esta disputa, presupongamos primero lo que Sant Agustín y todos los doctores generalmente dicen: conviene a saber, que así como es obra de Dios la verdadera penitencia, así la puede él inspirar cuando quisiere: y así en cual-*

baitute bekhatorek bekhatu anhitzekin, karga pisua rekin hobeki iaikiko direla ariñarekin baiño. (Ax 58).

8. – Zeren nola baita hetika daritzan eritasun bat, zein egiten baita sukharra denbora luzeaz eta aphur bana hezurretan barrena sartzeaz: eta eritasun hark ezpaitu erremediorik mirakuilluz edo baizen, eta izaitekotz ere xoil luzaro; hala... (Ax 65).
9. – Haur beror eman zuen aditzera gure Salbatzailleak berak, Lazaro laur egunetako hil kirastua, anhitz hats-beherapen, eta sentimendu eginik, pitztu zuenean. Bertze guztiak erraxki eta aise zegoela pitztu zituen, baiña Lazaro, iduriz, nekez. Aditzera emateagatik zein gaitz den, denbora luzeaz, bekhatutan usatua, usteldua eta kirastua dagoen bekhatorearen sendatzea eta erremediatzea. (Ax 65)
10. – Zeren nola eritasun handiak, sendatuz gero ere, utzten ohi baitu bere ondotik zenbait herru gaixto, zenbait kutsu, narrio eta arrazadura, hala utzten du denbora luzeaz bekhatutan egoiteak ere bere ondotik zenbait ondore gaixto. (Ax 63)
11. – Orhoit zaitezi zeure Iaungoikoaz zeure gazte denboran, zahartzeko peneetara baiño lehen, eta hurbildu gabe urte hek, zeinengatik datozinean erranen baituzu: eztira ene gogarako. (Ax 115)
12. – Baiña egiteko hunetan sarthu baino lehen, nahi nuke iakin zenezan gauza bat, eta da: Nola egiazko penitentzia baita Iainkoaren donua, dohaina eta emaitza, Iainkoak berak plazer duenean eman dezakeiena: hala egiazko penitentzia hura, noiz nahi den dela,

quier tiempo que la penitencia fuere verdadera (aunque sea en el punto de la muerte) es poderosa para dar salud. (P. 262-263).

13. — *El que puesto ya en el postrer término de la vida pide el sacramento de la penitencia, y le recibe, y así sale de esta vida, yo os confieso que no le negamos lo que pide; mas no osamos a afirmar que salga de aquí bien encaminado. Torno a repetir que no oso decir esto; que no os lo prometo; que no lo digo, que no os quiero engañar. ¿Pues quieres, hermano, salir desta dubda, y escaparte de cosa tan incierta? Haz penitencia en el tiempo que estás sano. Si así lo haces, dígame que vas bien encaminado, porque heciste penitencia en tiempo que pudieras pecar. Pero si aguardas a hacer penitencia en tiempo que ya no podías pecar, los pecados dejaron a tí, y no tú a ellos. (P. 264).*

14. — *A la postre vinieron las vírgenes locas, diciendo: Señor, Señor, abridnos; y fueles respondido: En verdad os digo que no os conozco. (P. 265).*

15. — *¿Pues cuál es el desatinado que osa poner el mayor de los tesoros en el mayor de los peligros? ¿Hay cosa mayor en el mundo que tu salvación? ¿Pues en qué seso cabe poner una cosa tan preciosa en tan grande peligro? (P. 266).*

16. — *En lo cual parece ser esta manera de penitencia muy semejante a la que suelen hacer los mareantes en tiempo de una grande tormenta, donde proponen y prometen grandes virtudes y mudanzas de vida. Mas*

heriotzeko azken orenean bada ere, salbatzeko asko sendo eta boteretsu dela. (Ax 131)

13. – Osasuna duela, bere bekhatuen kofesa, eta penitentzia egiten duena, eta gero handik harat ongi bizitzen dena, ongi eta segur ilkitzen da hemendik. Baiña bere azken fineraino eta azken eritasuneraino gauza hauken egitera igurikitzen duena, ez naiz segur, ongi eta segur ilkitzen denz. Segur naizenean erraiten dut segur naizela, eta ez naizenean, ez naizela. Ahal derraket orduan ere badaidikeiela penitentzia, ez ordea eman segurantzarik. Eztut erraiten kondenatuko dela, eta ez salbatuko dela ere. Ez naiz fida, ez naiz segur, eztakit. Hunela dio San Agustinek, eta erraiten du oraino gehiago ere: Nahi duzu dudatarik iltki? Nahi duzu segurean iokatu? Egizu penitentzia sendo zareino, bekhatu ere ahal daidizuiño. Zeren bertzela, baldin zuk egin nahi baduzu penitentzia eri zarenean, hiltzerakoan, bekhaturik ere ezin daidikezun denboran: eztitutzu orduan zuk utzten bekhatuak, baiña bekhatuek zu utzten zaituzte. (Ax 140)
14. – Erranen deraue halaber halakoei Ebanjelioko borz birjina ergel hei erran zerauena: Zoazte hortik, etzaitutzet ezagutzen. (Ax 142)
15. – Zer da haur? Non da zentzua? Non da akhordua? Zer egin da adimendua? Zeure salbamendua, hanbat dihoatzun gauza, sekulakotzat ongi edo gaizki izaitea iben dezazula benturan? (Ax 49)
16. – Hala eriek ere bere eritasunetan eta marinel tormenatuek bere tormentetan anhitz promes eder egiten dute, saindutzeko gogo hartzen dute, debozino bat erakusten dute. Ordea nola hura guztia beldurrez

acabada la tormenta, y escapados del presente peligro, luego se vuelven a jugar y blasfemar como lo hacían antes, sin hacer más caso de todo lo pasado, que si fuera un propósito soñado. (P. 269).

17. – *Pues según esta cuenta decimos que cosa es ordinaria que así el justo como el malo reciban su merecido al fin de la vida y según sus obras. Pero fuera desta ley universal puede Dios usar de especial gracia con algunos para gloria suya, y dar muerte de justos a los que tuvieron vida de pecadores; como también podría acaescer que el que hubiese vivido como justo, por algún secreto juicio de Dios viniese a morir como pecador: que es como el que ha navegado prósperamente toda la carrera, y a boca del puerto viniese a padecer tormenta. (P. 274).*
18. – *Pero la doctrina segura y general es: Quien viviere bien tendrá buena muerte. Pues por esta causa nadie debe asegurarse con ejemplos de gracias particulares; pues estos no hacen regla general ni pertenecen a todos, sino a pocos, y esos no conocidos; por donde no puedes tú saber si serás del número de ellos. (P. 274-275).*
19. – *Porque cierto es que hay muchas maneras de atricción y de dolor y que no por cualquier atricción destas se hace el hombre de atrito contrito. (P. 275).*

Cap. 26

20. – *Dices que es grande la misericordia de Dios, pues por los pecadores se puso en la Cruz. Yo te confieso que es muy grande, pues te consiente tan grande blasfemia como es hacer tú su bondad fautora de tu maldad; y que la Cruz que él tomó por medio para destruir el reino del pecado, tomes tú por medio para*

egiten baitute, eritasuna eta tormenta iragan direnean, iragan dateke heken debozinoa ere, eta handik harat lehen bezain gaixto edo gaixtoago egiten dira. (Ax 138)

17. – Gertha diteke lainkoaren zenbait sekeretuz eta ordenamendu estaliz, ongi eta prestuki bizi izatu dena, gaizki hiltzera, azkenean behaztopatzera eta galtzera; untzi anarteraiño ongi ibilirik, portuan sartzean galtzen den bezala. Nola halaber bere mendean gaizki bizi izatu dena, azken finean erremedia baititeke, ohoin ona egin zen bezala. (Ax 144)

18. – Komunzki ongi bizitzen dena ongi hiltzen da. Haur da bide zabala, erreala, plauna, eta segura. Bertze guztiak dira bidexkak, bide xidorrak, hertsia, meharak, malkhorrak eta perilez betheak (Ax 144)

19. – Ex atrito per sacramentum fit contritus. (Ax 340).

20. – Haur da deabruaren hitzkuntza, haren eskolan irakurtua, han ereiña eta handik banatua. Lainkoaren misrikordiatik, ontasunetik eta Pasione sainduaren meritutik eta baliostasunetik nahi duzu hartu okhasino eta ausartzia bekhatu egiteko eta bekhatutan egoiteko. Hain da itsustasun eta itsutasun handia eta iende

fortalecerlo; y donde le habías de ofrescer mil vidas que tuvieras por haber puesto la suya por ti, tomes de ahí ocasión para negarle esa sola que él te dió. Más le dolió esto al Salvador que la misma muerte que padecía; pues no quejándose della, se quejó deste agravio por su profeta diciendo: Sobre mis espaldas fabricaron los pecadores, y extendieron su maldad. (P. 278).

21. – *La primera obra de la divina justicia... (P. 280).*
22. – *Desciende luego más abajo al paraíso terrenal y verás otra caída no menos espantosa, si no fuera reparada. (P. 280).*
23. – *Mas sobre todo esto, ¿qué mayor muestra de justicia que no contentarse Dios con otra menor satisfacción que la muerte de su unigénito Hijo para haber de perdonar al mundo? (P. 282).*
24. – *¡Qué cosa tan espantosa como ver de la manera que estará aquel sumo Dios mirando desde el trono de su gloria un ánima que habrá estado penando millones de años en tan terribles tormentos, y que no por eso se inclinará jamás a compasión della, sino antes holgará que pene, y que esta pena sea sin cabo, y sin término, y sin esperanza de remedio! ¡Oh alteza de la justicia divina! (P. 283).*
25. – *Todo el mundo peresció con las aguas del diluvio, y solas ocho ánimas se escaparon en el Arca de Noé. (P. 286)*
26. – *Seiscientos mil hombres sacó Dios de Egipto para llevar a la tierra de promisión, sin mujeres y niños que no se cuentan. (P. 286-287).*

galduen kontua haur, ezen gure Salbatzaillea arrenkuratu ezpazen ere bere heriotze penatuaz eta desohorezkoaz, arrenkuratu eta sentikortu baitzen bidegabe hunetzaz, erraiten zuela: Ene sorbalden gainean egin zuten egur bekhatoreek, han bere gaixakeria hedatu, luzatu eta zabaldu zuten. (Ax 89)

21. – Iustiziaren lehenbiziko kolpea eta desarra... (Ax 92)
22. – Baiña egin zuen lurrean ere bertze bat, ez bere arauaz atseginagoa, baldin erremediorik ordenatu ezpalitzai-ka. (Ax 92)
23. – Miserikordios da Iainkoa, baina erran behar da iustiziati ere badela. Zeren munduari barkhatzera, ezin deusek ere balakatu zuen eta ez amoratu, bere semearen heriotzeak baizen. (Ax 92)
24. – Miserikordios da Iainkoa, eta bere miserikordia guztiarekin beha dagoka ifernuan dagoen bati; ikhusten du, eta ikhusiko du, nola milla urthez, eta hamar millaz penatzen den. Eta guztiarekin ere, hala ikhusiagatik ere, han bere lekhuaz utzten du. Etzaika bat ere bihotzik hautsten: etzaika bat ere hala dagoen on-beharra urrikaltzen. Aitzitik, atsegin hartzen du zeren hala penatzen den, eta nahi du pena dadin, eta are handik ilkitzeko esperantzarik gabe pena dadin. Gogortasunaren handia. Iustiziaren bortitza. (Ax 92)
25. – Miserikordios da Iainkoa, eta guztiarekin ere Noeren denboran, zortzi presunaz bertze guztiak, uholde batez hondatu eta akhabatu zituen. (Ax 93)
26. – Iragaiten baitziren seyetan ehun milla presunatan. (Ax 15)

27. – *Por donde no sin causa se llaman los justos muchas veces en la Escripura Divina piedras preciosas; para dar a entender que son tan raros en el mundo como ellas, y que la ventaja que hace el número de las otras piedras toscas a éstas, ésa hace el número de los malos al de los buenos, como lo testificó Salomón, cuando dijo que era infinito el número de los locos.* (P. 287)
28. – *Según la presente justicia (si no vuelves la hoja) estás reprobado.* (P. 288).
29. – *...y que si de los infieles se pierden todos, y de los cristianos tantos...* (P. 288)
30. – *¿Perderá por ventura Dios su gloria, si tú solo dejares de entrar en ella? ¿Tienes tú algunas grandes habilidades de que Dios tenga particular necesidad, porque te haya de sufrir con todas tus tachas buenas y malas? ¿o tienes algún especial privilegio más que los otros, porque no te hayas de perder con ellos, si fueras malo como ellos?* (P. 289)
31. – *Aquellos grandes favores que promete Dios en sus Escripturas, señaladamente pertenecen a los justos, los cuales así como guardan fielmente las leyes de Dios, así les guarda él fielmente su palabra, y les es verdadero padre, como ellos le son obedientes hijos. Y por el contrario, cuando lees de amenazas y maldiciones y rigores de justicia, todo eso habla contigo, y con los tales como tú. Pues ¿qué ceguedad es la tuya, que no tengas miedo de las amenazas que hablan contigo, y tomes grande contentamiento con las palabras que no dicen a ti?* (P. 290).
32. – *Esa suerte es de los buenos: tú que eres malo ¿qué*

27. – Eta halatan Eskritura Sainduan konparatzen dira giristino onak harri preziatuekin, aditzera emateagatik giristino on ere guti dela; batak bezain bertzeak direla gaitz edireiten. Eta nola bertze harrietarik baita preziatuetarik baino frankoago, hala dela halaber kondenatuetarik ere salbatuetarik baiño gehiago. Salomonek dioen bezala: Erhoen kontua infinitu da, infinituki anhitz kondenatzen da. (Ax 93)
28. – Itzultzen dute plama eta orria bertze aldera. (Ax 111)
29. – Eta orai ere ifernuratzen dira giristino eztirenak. Eta beldur naiz giristinoetarik ere gehienek bide hura hartzen duten. (Ax 93)
30. – Uste duzu zuretzat lege berri bat iarriko dela? Uste duzu lainkoa han goitian, zu gabe ezin iragan ditekela? Edo zu ez haratzeaz bere loriatik galduko duela? Zer burupe, zer pribilejio edo abantail duzu zuk orai, ifernuan daudenek bere denboran zuten baiño gehiago, baldin hek bezala bizitzen bazara, ez hek bezala haratzeko, edo handik eskapatzeko? (Ax 93)
31. – Bada Eskritura Sainduan lainkoak prometatzen dituen fabore handi, ezti, gozo, miseriakordiazko hek, iustuentzat, ongi, artez eta prestuki bizitzen direnentzat dira: eta mehatxuak, keiñadurak, iustiziaren garratzasunak eta gaztiguak gaixtoentzat, zure eta zu bezalakoentzat. Zer erhokeria da bada haur, zuretzat diren mehatxuez eta gaztiguez eztagizun konturik, eta zuretzat eztiren miseriakordiazko solhasez har dezazun atsegin? (Ax 95)
32. – Zeren orduan iustizia bai, baiña miseriakordia ezta

tienes que ver con ella? Deja de serlo, y hablará contigo la benevolencia y la providencia paternal de Dios. Entretanto tirano eres, y usurpador de lo ajeno, y en lo vedado quieres entrar. (P. 290).

Cap 27.

33. – *Porque, como dice Sant Agustín, no son penosos los trabajos de los que aman, sino antes ellos mismos deleitan, como los de los que pescan, montean y cazan. (P. 300)*

2.º LIBRO, 1.ª PARTE

Cap 9

34. – *Plutarco refiere que un hombre muy sabio y experimentado, despidiéndose de un emperador, grande amigo suyo, no le dio otro consejo sino que cuando estuviese airado, no mandase hacer cosa alguna hasta que pasase primero entre sí todas las letras del a b c, para darle a entender cuán desatinados son los consejos de la ira al tiempo que hierve el corazón. (P. 382)*

Cap. 6

Remedios contra la lujuria

35. – *Porque (como dice Sant Bernardo) entre todas las batallas de los cristianos, las más duras son las de la castidad: donde es más cuotidiana la pelea, y más rara la victoria. (P. 362)*

- zurekin mintzo, ezta orduan zure. Aparta zaite bekhatutik eta izanen da zure: aparta zaite bekhatutik eta izanen duzu parte. Baiña anarteraiño, bitartean, iustizia edukazu zeuretzat, eta utzazu miserikordia, bere bekhatuetarik apartatzen direnentzat. Zeren bertzela debekuan nahi dituzu eskuak sarthu, bertzeren zuzena nahi duzu zeuretu eta goratu. (Ax 95)
33. – Hunen arauaz erraiten du San Agustinek: Amorioz eta gogotik dabilzanen travailluak, eztira travaillu, aitzitik, hetan atsegin hartzen da: ihiztariak, arranzaleak, pilotariak, dantzariak, nekhatzen dira, travaillatzen dira; eta alabaiña travaillu hura guztia bestatzat hartzen dute. (Ax 315)
34. – Hirugarren erremedioa ez haserretzeko eta kolaren iraungitzeko edireiten dena da, Livio filosofoak bere diszipulu Teodosio enperadoreari eman zioena, erraiten zioela: Badakit, Enperadore handia, zenbait aldiz haserretuko eta kolera iarriko zarela. Bada ordukotzat eman nahi deratzut konseillu on bat. Hala zarenean ez kexa, ez lehia, ez berehala abia, iguriki aphur bat: ez al baitzeneza deus egin, ez erran eta ez aitzina A. B. C. eta hei darraizten bertze letrak erran arteiño, edo hartako espatioa, bitartea eta denbora iragan arteiño, har al baitzeneza hainbertze asti eta pazientzia. (Ax 199)
35. – Hargatik erran zuen San Agustinek: Giristinoen arteko gerlarik handienak eta gogorrenak, kastitatearen gerlak dira. Zeren han baita gudua eta konbata egunoro, eta biktoria eta garaitia bakhan eta gutitan (Ax 226)

Orijinaltasunaren funtsa

Hemen gelditzen naiz. Aitortu behar dut ene bilakuntzak ez direla oso-osokoak izan, motxak eta axalekoak baizik. Seguru aski Fr. Luisen obren oianean barna sartzen denak oraindik gehiago aurkituko du.

Baina inork ondorio faltsorik atera ez dezan, honako hau esan beharrean gara: Pasarte hoiek (eta hioen antzera aurki daitezkenak), zer frogatzen dute? Bere liburua egiteko, gaiak handik eta hemendik karriatu zituela. Baina hori lehendik ere bagenekien, liburua goitik behera besteren zitez josirik bait dago. Gainera, liburuaren portadan garbiki aitortzen du hori egileak: *Eskritura Saindutik, Elizako doktoretarik eta liburu debozinozkoetarik Axular Sarako errotorak bildua*.

Baina horrekin ez dugu frogatu *Gero* liburua, liburu den aldetik itzulia dela, edo orijinala ez dela; ezta gutiago ere.

Orijinaltasunaren funtsa ez bait dago horretan, bistan da. Eruditua maiz ibiltzen dira ihizi txakur antzo, idazle batek irudi hau edo harako exenplu hura nondik hartu ote duen usnan; eta beren ustez arrastoa edo iturria aurkitu dutenean, hor airatzen eta kanpatzen dute, idazle gai-xoa lapurretan harrapatu balute bezala. Baina idazleek, eta batez ere idazle izpirituaiek (aspal-

diko mendeetakoe behinik-behin) bat ere erre-zelo eta kezkarik gabe egiten zuten hori. Granadak berak auskalo zer eta zenbat ez ote zuen hartu bere aurrekoetarik. Eta horregatik ez dio inork nortasunik ukatuko.

Gero liburuaren hizkuntza, bera da salatari-rik eta ezaugarririk hoberena liburu hau Euskal Herriko fruitu jatorra dela ohartzeko. Hitz jo-koek, alusioek, errefrauek, ateraldiek, umore kol-peek, denek dute euskal kutsu gozoa. Baina hor-taz *Euskera*-n agertutako lanean aski esan nuen.

Granadaren liburua eta Axularrena elkar jo-tzen baldin baditugu, gauza batez konturatzen gara: Granadak erderaz bakarrik dakarzuki-la zitak; Axularrek, berriz, beti latinez eta euske-raz. Axularren liburua dena goitik behera lati-nezko testuz josirik ageri da (1); eta testu hoi-en euskal itzulpena ematen zaigu; Granadak sekula ez ditu ekartzen latinezko pasarteak. Axular hon-tan beste bidez badabil, hori ez du intenzio gabe egiten, hurrengo kapituluan ikusiko dugunez. Gainera, pasarte hoi-en egileak edo iturriak aipa-tzerakoan, maiz Granadagandik apartatzen da. Horrek esan nahi du baduela, Granadaz beste jakin-iturririk. Gizon eskolatua zen, eta bazekien nunbait hark ematen dituen obren eta autoreen izenak kritika aldetik ez direla beti fiatzekoak.

(1) Aistian aldatu ditugun pasarteetan Axularrek dakar-zkien latinezko testuak guk kendu egin ditugu, zitak ez lu-zatzeagatik.

Eta azkenik, guk jaso ditugun zatietarik ageri denez, Axularrek ez ditu Granadaren puskak hitzez-hitz eta lotu antxean hartzen. Gaia handik hartu bai, baina beretakotu egiten du, euskeraz bere gisa eta erara emanez.

Axularren bide berezia

Mitxelenak uste du gure erretorak izango zuela bere harrokeria-txoa, latinezko testuak euskerara zeinen ederki itzultzen zituen ikustean (FLV 1971, 167).

Bai. Hau ohargarria da oso. Axularrek bere liburua latinezko testuz josia atera zigun, eta testu hoiek beti euskerara itzultzen dira. Granadak, esate baterako, ez du horrelakorik egi-ten. Hark erderaz bakarrik eman ohi ditu aipuak, Axularrek beti latinez eta euskeraz.

Hemen bada ene ustez intenzio bat. Esan nahi dut: hainbeste testu latinezko sartu baditu, hori ez du arrazoi gabe egin.

Apaiz euskaldunari bidea erakutsi nahi dio Axularrek. Apaiz euskaldunak lotuta ikusten zuen bere burua. Kristau fedeko jakinduriaren ondasunak (denak latinez edo latinaren kume diren hizkuntzetan daudenak) euskeraz emateko estu eta larri aurkitzen zen, nondik jo edo nola asmatu ez zekiela. Axularrek bere ustez aurkitu du bidea, berari atarramendu ona eman diona. Eta bide hori erakutsi nahi die bere apaiz anaiei.

Izan ere Axular euskal apaiz idazle bezala problema larri baten aurrean aurkitzen zen, eta berak bazekien hori ondotxo. Hauxe da konkretuki problema: Mendebaleko kristau kulturaren ondasunak nola euskeraz eman? Apaiz euskaldunak kristau erlijioko erakutsi eta jakinduria partitu behar dio kristau fededun euskaldunari. Nola ordea? Inguruko hizkuntzek lan hori egina dute aspaldidanik; baina euskera egituraz hain da bestelakoa, beste hizkuntza hoiek ez bezalakoa! Eta egikizun hoietan hain da usatu gabea! Mendebaleko kulturaren ondasunak eman ahal dakizkioke euskeraz euskaldunari? Eta ematekotan, nola eman daitezke?

Horra Axularrek zedukan problema, garbi adierazia. Eta segituan ikusiko dugu berak problema honi eman zion soluzioa, berak idiki zigun bidea.

Hitzaurrean dugu bide hori garbi adierazia:

Ez eta eztitut bethiere eskritura saindua eta dok-toren erranak ere hitzez hitz euskarara bihurtzen. Zeren euskera eta bertze hitzkuntzak diferent baitira (Ax 11).

Hauxe dugu, bada, Axularren bidea, berari ondorio ona eman diona. Ez da hertsiki lotzen testuari. Beronen mamia jasotzen du, eta gero mami hori libreki, eta euskaldunki, euskaldun irakurleak konpreni dezakeen eran, euskeraz ematen du. Era hortara itzulpenak baino gehiago, komentarioak edo parafrasiak ematen dizkigu. Soluzio bat, bide bat zen, noski.

Jokabide hau zuritzeko ematen digun arrazoia ere entzun dugu: *Zeren euskara eta bertze hitzkuntzak diferent baitira...*

Bai, hori ere hala da, noski. Baina, ene ustez, ez dago hortan hauzi honen azken kakoa. Euskerak, diferent izanik ere, itzulpenak, benetazko itzulpenak egiteko gai izan behar luke.

Hemen beste zerbait gertatzen da: Idazlea irakurleari zor zaiola. Halako hurbiltasun edo kidekotasun bat behar dela bion artean.

Zer moduzkoa zen Axularren garaiko euskaldun irakurlea? Nekazari, artzain, arrantzale, t.a. Hoiek ditu Axularrek begien aurrean. Hori ere esan digu hitzaurrean: *Eztut liburutto haur letratu handientzat egiten* (Ax 11). Herri mailako

kultura giroan ari da. Herri honek dituen ikusmolde eta esan moldeetan hustu du Axularrek bere dotrina guztia.

Mintzatzaileak neurri batean hizkuntza ere bere iduri antzera taxutzen du (1). Gizon eskolatu eta eskolagabea ez dira berdin mintzo. Eta hau diodanean, ez naiz ahozkatze moldeaz eta hitzetaz bakarrik ari. Pentsa moldea eta ideiak haragiz janzteko moldea ere desberdina dute oso.

Horregatik dio Mitxelenak:

Xenpelarrek askozaz ere hobeki zekian euskeraz nik baiño. Xenpelarren hizkerak haatik ez du netzetat balio (*Euskera* 1968, 219; *Idazlan hautatuak* p. 115).

Euskal Herrian zer gertatu den badakigu. Herri mailako jendea euskerari atxikia izan den bitartean, besteak, goi mailakoak eta eskolatuak gibela bihurtu diola. Eta goiko hori guganatzen ez baldin badugu, azkenean baita herria ere galduko dugu.

Euskera, herri kultura mailan zerbait landu da. Beste mailan, ordea, ia bat ere ez edo oso gutxi. Eta beste hau ere beharrezkoa dugu. Beste hitzez esateko: gizon kulturadunak behar du bai

(1) Inork ere ez du aginpiderik hizkuntzaren gainean, esan du norbaitek. Beste aldera da egia, ordea: denek dutela, neurri batean behintzat. Ikus Mitxelenaren idazlan hautatuak 396 or.

herri euskera ondo ikasi eta barnatu, herri euskeraren baliamentuak argitara eman, t.a.; baina behar du era berean bere bide berezia, berari dagokiona, urratu eta muntatu euskeraren barrenean. Hori hizkuntza denetan gertatu da eta gu-rean ere horren beharrean gara. Bestela tresna horren ezak galduko gaitu.

Beraz, Axularren bidea, nahiz eta ona eta ondorio onetakoa izan orduko euskal jendearen mailari begiratuz, ez da euskeraren bide bakarra, euskerak har dezakeen bide bakarra. Bide honek badituela bere mugak: hori da nik esan nahi dudana. Mintzatzailearen kultura maila eta giroa aldatzen den neurrian, beste bide batzuk ere urratu beharko dira.

Eta besteak beste, itzulpenak, benetazko itzulpenak egiteko euskera gaitu beharra daukagu. Honetan Leizarragak eta Axularrek bakoitzak bide bana erakutsi digute. Axularren bidea eta Leizarragarena desberdinak dira oso. Leizarragak Jainkoaren hitza itzuli digu euskerara. Eta hitz honi zor zaion itzal eta errespetuagatik, hitzez hitz lotzen zaio jatorrizko testuari (edo latinezkoari, behintzat). Gehiegi lotzen zaio, noski. Baina funtsean era hau ere bidezkoa da, eta hizkuntzak frankotan hartu beharko duena. Bestela, beste hizkuntzetan erretako frutuak euskeraz ezin emango dira, edo ematekotan lan berri bat egin beharko da, eta ez da hori itzulariaren zeregina. Guk sortu eta asmatu ez ditugun kultura pitxiak euskeraz eman nahi baldin baditugu, euskeraren beraren ateak pixka bat zabaldu be-

har ditugu, bai hiztegian eta bai perpausen muntatzeko eran ere.

Leizarraga eta Axular: horra bi maisu, bi bide urratzaile, bi eskola. Bientzat dago tokia euskararen. Biak behar ditugu.

Axularrek bere bide berezi honen barrenean maisu lana egiten asmatu du. Idazlearen eta irakurlearen artean halako zubi, lokarri edo kide-tasuna behar dela esan dugu. Eta Axularrek bere bide horrekin ederki lortu du hori. Gainera, arnasa luzeko liburu bat eman digu, batasun harri-garri bat duena. Gai sakonak eta goratu xamar-rak ere xehatzen eta azaltzen ditu. Bere haria beti zuzenki mantentzen eta aitzina eramaten daki, arrazoiketak eta perpausak beti borobilak, ongi osatuak eta konplituak ateratzen zaizkio. Hizkuntza eta hizkuntzaren baliamentuak miragarriki baliatzen ditu. Eta denari halako jator kutsu eta euskal isuri gozo bat eman dio. Benera maisu lan bat egin du gure literaturan.

Liburuaren mamiaz

Axularren liburua, giza liburu guztiak bezalaxe, bere garaikoa da, noski. Badu bere garaiko marka. Orduko jazkera eta orduko ikuskera moldea. Fedeko gauzak azaltzerakoan ere, orduko teologia eta orduko teologumenak nahasten ditu. Gainerakoan, hori nahi-ta-nahiezkoa da, eta beti gertatzen dena. Alde hortatik ere baditu liburu honek bere mugak.

Baina beste aldetik, muin eta mami iraunkor baten ekarle dela ere ezin uka.

Zertaz ari da Gero? Gizonaren sekulako salbamenduaz. Kristau fedeaerentzat gizonaren bizitzea ez bait da hilobian bukatzen. Aitzitik, orduantxe hasten da gizonaren egiazko bizitzea, sekulakoa; eta bizitze hori zorionekoa ala zorigaiztokoa izan daiteke, eta hori betirako. Zorion betierekoa, ordea, hemengo aldian, bizitze temporal honetan, behar da irabazi. Geroko bizitzearen argiak eta esperantzak argitzen du hemengo bizitzearen esanahia.

Gainera, Jainkoaren Semea gure salbamendua egiteagatik zerutik lurrera jetxi eta lurretik gurutzera igo bazen, eskubide osoz galde genezake: Zer ote da gizona, Jainkoa bera eman zaionean? Aste Sanduko otoitz hura datorkigu gogora: «Begira, Jauna (eskatzen dizugu), zure familia honi, gure Jaun Jesukristok ez bait zuen herabe izan beronengatik gaizkileen eskutan jarzera eta gurutzeko pena igarotzera» (Ostirale Sanduko Matutietako otoitza).

Beraz, kristau fedeaerentzat giza presunak baidu balio trinko eta ermo bat, fedegabearentzat ez duena. Izan ere federik ez duenarentzat, zer da banakoa, indibidua (ez dut esaten pertsona, hortaz ez bait daki fitsik ere fedegabeak)? Gizarte makinaren gurgiltxo bat. Pikor bat. Hutsa.

Kristau fedearen begientzat, berriz, ez dago ezer giza pertsona baino baliotsuagorik: ez makinak, ez dirua, ez aurrerapena, ezta gizartea bera ere. Hau da kristau humanismo jatorra.

Eta honek ematen dio Gero-ri balio iraunkorra eta bai gaurkotasun apartekoa ere.

Kondaira lekuko, badakigu nolako egoera eta gizonaren desbaloratzea zen munduan kristautasuna etorri baino lehen. Eta hain zuzen desbaloratze horretan edo okerragoan berriz erortzeko arriskuan gara.

Eta gaurko lasaikeriak, erotismoak, arinkeriak eta materialismo dorpeak hortara garamazki, ohartzeke beharbada.

Erdi-Europako Apezpikuak, Hitler-en garaian egindako lazkerien ondoren, izu-ikarak hartuak, kezka bakar honekin joan omen ziren Kontzilio-ra: Gizona behar da salbatu, gizona. Ongi da. Kuestioa da ea Jainkoa gabe gizona salba ote daiteken. Nik duda egiten dut, eta nork ez du duda eginen?

*Askok diote:
Jainkorik ez.
Jainkorik gabe
gizonik ez,*

dio Belokeko kantu batek. Hitler-ek ez zuen Jainkoagan sinesten. Egia da sinesten dutenek ere egiten dituztela barrabaskeriak, baina sinesten ez duenak, inongo traba eta galgarik gabe, zer ez du egingo?

Eta ez sinestuagatik, oraino fedeak sortu duen giroa zutik den bitartean, fede ezaren ondorioak

ez dira hain aguro nabaitzen. Baina giro hori suntsi dadinean izango dira kontuak.

Jainkoa eta gizona, bi-biak daude elkartuak ezin hautsizko elkartasun batekin. Jainkoa gabe gizona bera ezin dagoke zutik. Hau da Gero-ren mensajea, mezua. Balio iraunkorra duen mezua, eta aparteko modu batean gaur egunerako balio duena.

Kristau humanismoaren fruitu jatorra dugu, bada, Gero. Eta era berean, euskal lurraren fruitu gozo berezkoa ere bai.

GERO-ri darion umore puntta

Osasun onaren seinalea omen da umorea. Izpiritu arrai eta ongi gatzatuaren mandatari eta albistaria.

Osasun onetako izpiritu baten jabe zen, du-darik gabe, gure erretorea. Eta hala, umore fin, leun eta berezko baten isuri gozoa ezagun da ha-ren liburuan.

Miresgarri ere bada hori, *Gero*-ren gaia jakinik. Gizonaren betiereko salbamendua, Aszetika

eta Izpiritualidadea gaitzat duten liburuek ez bait dute maiz umorearentzat toki handirik uzten.

Gero-n behintzat umore mehe baten ateraldiak ez dira falta.

Umore kolpe hoiek denak bana-banaka hemen aipatzerik ez dago. Azterketa luzeegia behar-ko litzake. Haatik pasarte batzuk aipatuko ditut.

Gimnosofistek alferkeria hainbestearaino gorroto zuten, non afal aitzinean presuna gazteak deitzen bait zituzten, eguna zertan iragan zuten jakiteko, eta baldin frogatzen bazitzaien alferkeriarik «etzerauen afariak gaitzik egiten» (Ax. 19).

Axularren ustez, alferrek badute dohain aparteko bat: hiltun ederrak izatea. Eta hoiekin gertatzen dena umore finez utzi digu pintaturik. Segurki baino segurkiago egunoroko bizitze arruntetik hartutako puskak dira pintura hoiek. Alfer hoietako bat mintzo denean denak daude ahoa zabaldurik eta beharriak ernaturik beha. «Ordea gero azkenean hek eskale, eta zu emaille» (Ax. 27).

Inork jende alferrei prestatzen zienean, sententzia prestatzailearen kontra ematen omen zuten Lukanoek. «Baina nik uste dut —dio Axularrak— ezen etzela halako sentenziaren emateko premiarik, bera baitago emana. Zeren ezpaitu

halakoei prestatzaileak koberatzeko perilik» (Ax. 19).

Sagar bat jateagatik, gizon bat, are bere ondoko guztiekin, heriotzera kondenatzea, «badirudi iustizia berriarena» (Ax. 37).

On da esperantza edukitzea, baina esperantza jatorra, behar bezalakoa. Ba omen dira jende tailu batzuk den sanduenak baino salbatzeko esperantza gehiago dutenak, nahiz eta maliziaz beateak egon. Halakoen agerbide jostagarri bat egi ten digu Axularrek (Ax. 99).

Penitentzia zahartzeraino uzten duena, zeruratuko da beharbada baina purgatorioan luzaro egon beharko du. Peril du (dio Axularrek) «lehenbiziko urthean zamarrik edo arropa forraturik beharko eztuen» (Ax. 124).

Inork guti jaten duela edo goseak dela aditzera emateko esaera hauek erabiltzen ditu: «Sabel ederretako» (Ax. 267) eta «sabel-uzkur» (Ax. 154).

Inork ere ez omen du zerura joango ez den beldurrik. Gainera, zerbaitetarako da purgatorioa ere. «Gaixtoeneko kontuan guztiok purgatorioetara uste dugu» (Ax. 157).

Hil baino lehen ondasunik utzi nahi ez dutenek, honako hau esaten omen dute: «Eztut ohera gabe biluzi nahi» (Ax. 157).

Juramentu egiteko usantza dutenek, kofesatzera datozenean, «ohore bailliz bezala, iuramentuak ibenzeintuzte brankan» (Ax. 174).

Haserretasunak eta kolerak egunak laburtzen omen ditu. Presuna hirosak «ez ohi du begi orde anhitz higatzen» (Ax. 187).

Eman dezagun haragizko bekatuan sartua ibili den bat. Bekatua utzi eta bertutea hartzera deliberatu du. Nola utziko du, orde, bere amorantea: etsaitu gabe ala etsaituz? «Bada egiteko, bada zertan pensa». «Zutzaz gaizki erraiten badu ere, paira ezazu, zeren zeure merezia duzu. Hala-ko ezteietan, halako zopak» (Ax. 245).

Ejiptoko monasterio batean ba omen zen fraide gazte bat haragiak bortitzki tentatzen zue-na. «Bero hutsez bethi zirakiena», dio Axularrek (Ax. 249).

Pertsona ederrak, gorputza bere eskuko eta ongi egina duenak, ez du kanpoko edergarrien beharrik. Itsusia, berriz, bere apaindura guztiekin ere, «etxean legoke ederkienik» (Ax. 331).

Tomas Mororen ateraldi jostagarri bat ere badakar. Neskato bat bere kopeta edertzeagatik nola penatzen zen ikusiz, hau esan omen zuen sandu hark: «Bidegabe eginen dio Iainkoak neskato huni, baldin hunenbat pena eta traillaugatik emaiten ezipadio ifernua» (Ax. 332).

Eta azkenik, ifernura ioaten direnagatik hara

zer uste duen Axularrek: gehienak «gero baten benturan iarririk» joaiten direla (Ax. 50).

Izanen da segurki umore kutsua darion beste pasarterik. Baina aski da hoiekin ere guk nahi duguna frogatzeko.

Gizona den bezalakoa ikustera ohiturik zen Axular. Eta badu harentzat ongi nahi eta urri-karizko begirada bat.

Ongi daki gizonen jaidura eta ahulezien berri. Hala ere (edo hargatik), irriño baten aieru gozua haren ezpainetarik ez da sekula ezkutatzen.

Mami eta azalaren arteko ezkontza

Gero esaldi labur, trinko eta sarkorrez josirik bezala dago. Esaldi hoietarik asko eta asko herritik jasoak dira. Herriak bere jakinduria horrelako esaera motx eta lirainetan mamiturik bezala eskaintzen digu. Honelako esaldiak (Oihenartek *atsotitzak* deitzen zituenak, alegia) maiz ageri dira *Gero*-n. Ez dakizu ordea beti herritik jasoak diren ala herrikoen antzera Axularrek berak asmatuak ere bai. Denak jasotzea eta euskal atso-titzen biltzaileek beren bildumetan eman dituztenekin elkar jotzea, lan interesgarria litzake. Ni

ez naiz lan horretan sartuko. Atsotitz edo herri esaeren tankera duten esaldi mordoxka aipatuko dut xoilki.

Bat dugunean, bia nahi ditugu; bia ditugunean, hirur (Ax. 167). Presuna hirosak ez ohi du begi orde anhitz higitzen (Ax. 187). Akhabatzean kantatzen da loria (Ax. 306). Halako ezteietan halako zopak (Ax. 245). Fin gaitz eginen duk, xoria, baldin gaztedanik ezpadagik kafia (Ax. 120). Otharre bat egiten duenak egin ditzake ehun ere (Ax. 178). Usoak ioan, sareak heda (Ax. 158). Gezurak zainak labur ditu (Ax. 331). Ezpatak ezpata sar arazitzen du maginan (Ax. 366). Iokoa ezta errenta (Ax. 45). Otsoak jan dezake ardi kontatuetarik ere (Ax. 162). Dabillan harriari etzaika goroldiorik lotzen. Ur irakinean eztu uliak pausatzen. Ardurako arropari etzaika zerrenik egiten (Ax. 24). Zabiltza errota hartara: irina lothuko zaitzu (Ax. 259). Irabaziak oiñak arin (Ax. 318).

Horrelakoetan (beti ez bada ere) Axularrek berak abisatzen digu *erran komuna dela*.

Hortaz gainera, badira *Gero*-n makina bat konparazio eta irudi herritik jasoak edo herriari arrunt zaizkion gauzetarik atereak. Hona hemen adibide batzuk: «epherki iatean baiño atsegiñago hartzen baitu» (Ax. 324). «Nigar hek arrosak dira elhorrien artean» (Ax. 323).

Plutarkoren esaldi bat euskeratzeko, euskaldun laborariari arrunt trebe zitzaion tresnaz ba-

liatzen da. Plutarkok dio: «Iuventutis cotem». Eta Axularrek itzultzen: «Gaztetasunaren zorrotz harria» (Ax. 17).

Gurdi kargatuak bere karga ezin jasanez egi-ten zuen soinu hori gaur ez da gehigo entzuten gure artean. Eta entzuten zenean (Domingo Agirrek *Garoa*-n dioenez) baserritarentzat ezti leun eta atsegingarria zen, eta herritarrentzat hasunaz lepoan ikutzea bezala. Bazirudien pisuaren astunaz arrenkuratzen zela gurdia. Axularri bekatiariaren kontzientzia dakarkio gogora, «hala arrenkuratzen da bada bekhatorearen kontzientzia ere bere bekhatuen karga eta pisutasuna ezin iasanez» (Ax. 278).

Hitz joko polit asko ere aurkitzen da *Gero*-n. Hots, euskeraren barrenetik bakarrik ulert daitezkeen hitz jokoak, itzulpena egiterakoan suntsitu egiten direnak, alegia. Besteak beste, hau da *Gero* liburu orijinala dela frogatzeko azterna bat, oso salataria gainera.

Hitz joko hoietako batzuk aipatuko ditut. «Zeren *eztiari*, nola baita gozo, eta izena bezala, *ezti*, anhitz baitarraika...» (Ax. 21).

«Hura laster, baiña ura lasterrago» (Ax. 142).

Orhoit zaitezi sekula, sekula gabeko, sekula hartzaz (Ax. 389).

Boskarren kapituluaren tituluan beste hitz joko bat dator, benetan miresgarria. Euskaldu-

nak bakarrik jaso dezakeena hau ere: «Nola gero-ko *benturaren benturan benturaturik* galtzen garen».

Beste hitz joko bat: izena eta izana (ikus Ax. 3, 288).

Ezaguna da bi euskal hitzen artean egiten duen bereizkuntza ere: nahikunde eta nahiaren artean, alegia. Gure gogoa zinetakoa denean, «deliberatuki deliberatua» denean, orduan omen da nahia; bestela, berriz, nahikundea baizik ez da (ikus Ax. 30 eta 31).

Aurreragoko kapitulu batetan aipatu dugu S. Agustinen testu bat. Axularrek testu hura latinez ematen digu, eta gero euskaraz. Baina euskal itzulpenean latinez ez datorren zertxobait, *pilotariak eta dantzariak*, bere kontu sartzen digu. Zergatik? Bistan da, euskal giro hartan hoiien aipua txit aukerakoa bait zen.

Herrian entzuten diren esanak edo usteak ere inoiz jakinarazten dizkigu: «Hala erraiten da ardiak ere arratsaldean fitetzago ianez bere goizeko guti iana erdiesten duela» (Ax. 114). Beherago gauza bera bir-esaten du (Ax. 127).

Lapurtarren emigrazioa Ameriketara Axularraren garaian ez dirudi oso ugaria zenik. Hurrengo mendeetan askoz ere ugariagoa izango da. Haatik orduan ere izango zen poxi bat. Axularrek behintzat aipatzen du (Ax. 71).

Axularren liburua giza bizitzearen teatroa edo agertokia bezala da. Garai hartako euskaldun mundua bizi bizirik azaltzen zaigu bertan.

Han dituzu laboraria eta artzaina, ihiztaria, arrantzalea eta marinela, oiloa eta haren xitoak, otsoa eta ardiak, aztorea, usoak eta sareak, oiana eta mirua, ekarle gabez basoan alferrik galtzen den egur ederra, haltza oianaren bista baina fruitu gabea... Han dira tabernariak, alferrak, pagatzaile gaiztoak, beren onak ardo truke bahitzen dituztenak...

Han da errota eta bai errementaldegia ere. Han dira gizonaren ofiziorik gehienak: zurginak, harotzak, dendariak, zapataginak, etxez etxe dabiltzen joskinak. Han dira eskaleak eta bai aiton-nen seme edo zaldunak ere.

Han dituzu gure hirietako portaleak ere (ikus Ax. 127). Gure hiri zaharretan portaleak izaten ziren. Seguran, esate baterako, ezagunak dira gaur ere «Zeraingo portalea», «Ursuarango portalea», etab.

Han duzu batez ere betiereko gizona, bere betiko kezka, amets, bizio eta jaidurekin. Gero-n ageri den gizona betikoa da, alde eta aldi orotakoa, eguzkipean ezagutzen den bezalakoa: hots, mila lokarritz lur hontara lotua eta katigatua, beti susmoti eta errezeloz betea bere burua Jainkoari emateko.

Gizon horrek arrazoiak eta estakuruak pila-

tzen eta metatzen ditu bere autonomia gorde nahian. Beti da beldurrez, Jainkoagana konbertitzeaz berak amets duen zoriontasuna ez ote duen galduko. Jokaera hau ez da, ez, oraingo gizonarena. Betikoa da.

Eta *Gero*-n garbi azaltzen da, nahiz eta orduko gizona Kristiandade egoeratan bizi.

Gizon honekin ari da lanean Axular. Gizon honekin ari da bere arrazoiketak neurtzen. Gizon hori nahi du gorantza altxa, Jainkoagana, alegia. Gizon honi nahi dio erakutsi Jainkoari ematen zaiona ez dela bat ere galtzea, eta gizon jainkotiarra bestea baino zoriontsuagoa dela, nahiz eta kanpoko iduria bestelakoa izan (ikus Ax. 323). Izan ere, bekatariak uste ere ez duen atsegina eta bozkarioa jasotzen du hark Jainkoa zerbitzatzetik. Baina bekatariari nola hori sinestarazi? Itsuak nola jakin lezake koloreen berri? (Ax. 325).

Bukatzeko, eta beste behin esan nuena berrituz («Euskera», 1962, 27), honako epai hau eman daitekeela uste dut, oker egoteko perilik gabe:

Gero da liburu bat, zeinetan betiereko gizona azaltzen eta ikertzen bait da. Bai. Betiko gizona, sekulakoa, alde orotakoa, bere jaidura eta ahuleziekin; eta betiko gizon hori *Gerok* nahi du gorantza altxa eta bultza, Jainkoagana eta bertuterantza, alegia. Alde hortatik liburu orokarra duzu. Baina izpiritu gizatiar, giristino eta orokar honek, bat aldiz behintzat, eta zorionez, euskal-

dun haragia hartu du, euskeraz gatzatu eta mamitu da. Euskera hartu du mintzabide bezala. Dakarren berria eta mezua euskaldunei zuzendua izan da. Gure *Gero* zinetako maisu lana da, beraz, bai azalez eta bai mamiz, betiereko balioa duten hoietakoa, balio iraunkorra dutenetakoa. Badira, noski, giza liburu guztietan bezala, garai hartakoak diren ideiak, gaur gairatutzat jo ditzakegunak; baina alde batetik mami giristino eta gizatiarraren gizenak, eta bestetik euskal formaren perfetasunak (azal eta mamiz «konplitu» izateak, alegia), balio trinko eta iraunkorra seguratzten diote liburu honi, inork hauzipean jarriko ez duen balioa.

G V E R O
B I P A R T E T A N
partitua eta berecia,

L E H E N B I C I C O A N
E M A I T E N D A , A D I T C E R A ,
cenbat calte eguiten duen, luça-
menduran ibiltceac, eguitecoen
gueroco utzteac.

*Bigarrenean quidatcenda, eta aitcinatcen, luça
menduac utciric, bere hala, bere eguin bi-
deari, lothu nahi çalcana.*

Eſcritura ſaindutic, Eliçaco Doct̃or etaric-
eta liburu debocinozco etaric. Axular Sa,
raco errotorac vildua,

*Ne tardes conuerti ad Dominum, & ne differas
de die in diem, Ecclef. 5.*



B O R D E L E N ,
G. M I L A N G E S Erregueren Imprima
çaillea baithan.
M. D C. X L I I I .

GEROren
irakurgai hautatuak

GEROren atarian

Gomendiozko karta

Ene iaun BERTRAND
DE ECHAUS, Tursko Arzipizpiku, Frantziako lehenbiziko
erremusinari. Ordenako aitonen seme, eta erregeren Kon-
seillari famatuari

Zeruko Loria

Nere iaun maitea, ioan zatzaizkit lurretik, baiña ez
gogotik, eta ez bihotzetik. Heldu nintzen. Ezterautazu igu-
riki. Ordea eneak dira faltak, enea da hobena. Gerotik ge-

rora ibili naiz, eta hala dabillanari gerthatzen ohi zaikana egin zait niri ere.

Baiña guztiarekin ere, neure obligazino handiek, ontasun errezibituek, eta bethiere, ene alderakotzat, obrekin batean, erakutsi duzun borondate borondatetsuak, ezterautate utzten, ondotik bedere, zutzaz orhoitzapen egin gabe, liburutto hunen, kanporat atheratzeko, ausartziaren hartzera.

Zeren iduritzen zait oraiño bizi zarela, begien aitzinean zaitudala: eta halatan, hala baitzinitut bezala, mintzatu nahi natzaitzu.

Aita prestu ohorezko bat hiltzen denean, ondotik gelditzen den seme emazurtza, anhitz lehutan da bere aitaren amoreakgatik, ongi ethorria, eta arraiki errezibitua. Liburutto haur da emazurtza. *Posthumus*. Aita hillez gero sorthua. Baiña zu bezalako aitaren semea, emazurz izanagatik ere, ezin dateke gaizki. Zeren ondotik ere, zure prestutasuna, ohorea eta fama ona, baliatuko baitzaitza.

Eta zure prestutasunaz, ohoreaz, eta aitzineko eta ondoko, fama on famatuaz, nork zer erranen du?

Nor da euskal-herrian aldez edo moldez, zordun eta obligatu etzaitzunik? Behartu eta enplegatu etzaituenik? Eta baliatu etzaitzunik? Zure etxea, egon eta ibilli zaren lekhu guztietan, bethiere izatu da, euskaldunen etxea, pausalekhua eta portua. Guztiek zuregana laster. Zuri bere arrenkurak, egitekoak, koaitak, eta ondikoak konta. Eta zuk guztiak arraiki eta alegeraki errezibi. Zuhurki konseilla, kida, goberna eta burutan athera.

Zu izan zara, eta izanen zara, euskaldunen ohorea, habea, iabea, sostengua eta kantabres fina, naturala eta egiazkoa.

Zu izan zara Echaus, mendi Piriniotan, Alduideko he galetan, bethiere zentinela, eta begiraille bezala, iratzarrik dagoen iauregi eta gaztelu handi, eder, noble hartako seme. Hango Bizkondeak eta seme guztiak izatu dira bethiere, egundaiñoz gero, erregez enplegatuak, estimatuak, fin eta leial frogatuak. Eta bai egiazko fedearen eta legearen defendatzaille, eta aitzinatzaile buruzagiak ere. Nafarroa behereko parte hetan. bertze anhitz lekhituan bezala, lege katolika saindua, iduriz flakatzera, kordokatza eta erortzera zihoanean, badaki munduak nola zure aita Iauna, bere etxeaz, onez eta biziaz ere kontu guti eginik, ioan zen Donapalaiaora, non baitzen orduan Nafarroako Parlamenta. Eta han ausartzia handi batekin, bere bihotz giristino noblearekin, hasi zen, ezpata biluzia eskuan harturik, oihuz, Matatias bat bere denboran bezala, erraiten zuela: *Omnis qui habet zelum legis, statuens testamentum exeat post me* (2 Mach 2). «Ea giristinoak, giristino izenarekin, izana duzenak, bertze egiteko guztiak utzirik hurbil zakizkidate, iarraiki zikizkidate eta egiazko legearen eta fedearen mantenatzen eta sostengatzen, lagun zakizkidate.» Eta hanbat egin zuen, non bere herria eta inguruneakoak ere, hetan sartzera zihoan eritasunetik begiratu baitzituen. Eta gero handik hartako herraz eta mendekuz bere iauregi ederra erre zioten. Hunelakoak ziren zure aita Iauna eta bai bertze aitzinekoak ere.

Bada eztuzu zuk ere zeure arrazaz ukhatu, etzara zeure leifutik eta ethorkitik hastandu, berezi eta ez aldaratu. Zeren zuk ere Baionako Ipizpiku zinenean, eta bisitan zenenbiltzanean ikhusirik ezen, elizatik kanpoan zebiltzan iende batzuek, nahi zituztela, bere azken finean, gorputza elizan sarthu eta ehortzi; zeure bisita hautsirik, Nafarroako hirur estatuak bildurik, ioan zinen Gorthera: eta han anhitz trabailu iraganik, kontrakarra izanik, ekharri zenduen, gero ere, behar zen erremedioa, eta handik harat, halako desordenuen debekatzeko ordenantza eta manamendua. Beraz

etzara zu ere, zeure aitzinekoen giristinotasunaren gibelatzaile izatu.

Bada ez eta ohorearen iraungitzaille ere. Aitzitik badi-rudi ezen zuk xedea aitzinatu duzula, marra iragan duzula, eta Echausko etxearen arropa gorriaz bestitzeko bidetan izan zarela. Zeren ezta eztakienik, ezen erregek hartarakotzat hautatu eta izendatu zinituela. Eta kolpea huts egin bada ere, eztela zure faltaz edo zu hartako ez gai izanez, huts egin, zeren utzirik alde batetara zure merezimendu handiak: eta elizari, erregeri eta komun guztiari, anhitz okhasinotan egin derautzetzun zerbitzuak eta endrezuak, naturalezak berak ere anhitz donu, dohain, eta abantail suertez dotatu, hornitu eta konplitu baitzaitu. Adimendu eder bat, memorio handi bat, eta borondate onera, ohorera, eta pres-tutasunera erori bat, isuri bat, eta eman bat eman baite-ratzu.

Baiña zertako sartzen naiz ni itsas hondar gabe hune-tan? Ezin athera naitekeien oihanean? Zure laudorioen ai-phamenean? Berak dira bere buruz asko gora mintzo: be-rak dira bere baithan asko klar eta ozen. Utz ditzadan be-raz nik hek, hutsik eztagidan. Eta iragaiten naizela aitzina, derradan hutsik egin gabe. Zer ere eskribatuko baita euskaraz, hura guztia, euskaldunen buruzagi bezala, zuri dagotzula, zuri zor zaitzula, eta arrazoiñez orai ere zuri pre-sentatu behar zaitzula. Eta guztiz ere zure zerbitzari ttipi hunen travaillu aphur haur, gerotik gerora egitekoen lu-zatzeak, zenbat kalte dakharkeien, zuk hain ongi dakizun pontu haur, nori egonen zaika zuri ezipadagotzu? Nork ki-datuko, nork ostatuko du, zuk ezipadezazu?

Zure gerizan doha: zure itzalaren azpian benturatzen da. Errezibi ezazu bada, defenda ezazu, alde zakitza, egio-zu begitarte. Ediren bedi liburutto hunetan Echaus eta Echausen omena eta izena. Zeren halatan eta harekin ba-tean, ibiliko den lekhu guztietan, burua gora ekharriko du,

burupe izanen du eta nehoren guti beldurrik, iendartera, bere begitartea, ausartki atherako du.

Bai ordea ioan zara: lekhuz aldatu zara: hemengo aldia egin duzu.

Egia da, hala da, Eta aldez damu dut, eta aldez atsegin. Damu, zeren ezpaitzaika nehoi ere handik, niri bezanbat kalte ethorri.

Atsegin. Zeren nola ezpaikara bi mendetako eta zuk zeurea, hain ongi, hain ohorezki eta dohatsuki iragan baituzu, csperantza baitut zeruko lorian, Iainkoaren konpaiñian, kredit handiarekin zaudela: eta hortik helduko zatzaizkidala, eskua emanen derautazula: eta arranoak, airean dohanean, bere umetara bezala, zuk ere enegana begia edukiko duzula. Eta gero nik ere (hemengo aldía egin hurren baitut), Iainkoaren garaziarekin eta zure arartekotasunarekin batean, zure zorthe ona erdietsiko dudala: eta orduan guztiez eskerrak errendatuko derauzkitzudala. Iainkoak hala nahi duela.

Zure zerbitzari ttipiena, eta obligatuen
P. de Axular (1-5)

Irakurtzailleari

Egun batez, konpaiñia on batean, euskaldunik baizen etzen lekhuari nengoela, ekharri zuen solhasak, izan zen perpausa, etzuela deusek ere hanbat kalte egiten arimako, eta ez gorputzeko ere, nola egitekoen geroko utzteak, egunetik egunera, biharretik biharrera luzatzeak. Eta on zatekeiela, gauza hunetzaz liburu baten, euskaraz, guztiz ere euskararik baizen etziakitenentzat, egitea: eta hartan, gero dioenak bego dioela erakustea. Konpañia berean galdegin zen berehala, ea nori emanen zeikan liburuaren egiteko

kargua. Eta bertze guztien artetik, hasi zeizkidan niri neroni aditzeira emaiten, lehenbizian kheinuz eta aieruz, eta gero azkenean, klarki eta agerriz, nik behar nituela, egiteko hartan eskuak sarthu. Ordea nola ezpainintzen neure buruaz fida, desenkusatu nintzen ahal bezanbat. Baiña alferrik, zeren hain zinez eta batetan lothu zeizkidan, non ezetz erraiteko bide guztiak hertsu baitzerauskidaten. Eta hala deliberatu nuen, buru-eragotzkarri bezala, liburutto baten, bi partetan partiturik, gero hunen gainean egitera.

Eta nahi nituzkeien bi parteak elkharrekin, eta batetan athera. Baiña ikhusirik zein gauza guti edireiten den euskaraz eskiribaturik, gogan behartu naiz eta beldurtu, etziren bideak asko segur eta garbi, baden bitartean zenbait trabu edo behaztopa-harri. Eta halatan hartu dut gogo, lehenbiziko parte hunen, lehenik benturatzeko, eta berriakitera bezala aitzinerat igortzeko. Hunek zer iragaiten den, zer begitarte izaiten duen, eta nor nola mintzo den, abisu eman diazadan. Gero abisu haren arauaz ethorkizunerat gobernatzeko; eta bigarren partearen kanporat atheratzeko, edo barrenean gelditzeko eta estaltzeko.

Badakit anhitzek miretsiko duela eta edirenen arrotz eta estraiñoio, ni lan huni lotzea. Zeren anhitz izan baita orainokoan, eta baita orai ere, ni ez bezalakorik, ni baiño hunetako gaiagorik, eta anzatsuagorik, ezpaitute guztiarekin ere, orainokoan, hunelako materiatan, hunela ausartziarik eta eskudantziarik hartu. Baitirudi ezen asko behar lizatekeiela arrazoin haur ene gibelatzeko eta geldi arazitzeko ere. Baiña ene kontra dela dirudien arrazoin hunek beronek, ni esportzatzen eta aitzinatzen nau, hunek bihotz emaiten deraut, haur edireiten dut nik neure alde eta fabore, zeren enseiukarrean bezala egiten diren lehenbiziko obrek eta enseiuek, zenbait huts eta falta izanagatik ere. badirudi ezen, zeren lehenak diren, barkhakizun direla, eta bat bederak disimulatzeko, ez ikhusi iduri egiteko, eta are desenkusatzeko dituela.

Badakit halaber ezin heda naitekeiela, euskarako minzatze molde guztietara. Zeren anhitz moldez eta diferentki mintzatzen baitira euskal herrian. Nafarroa garaian, Nafarroa behearean, Zuberoan, Laphurdin, Bizkaian, Gipuzkoan, Alaba-herrian, eta bertze anhitz lekhutan. Batak erraiten du *behatzea*, eta bertzeak so *egitea*. Batak *haserretzea*, eta bertzeak *samuritea*. Batak *ilkitzea*, bertzeak *ialgitea*. Batak *athea*, bertzeak *bortha*. Batak *erraita*, bertzeak *esatea*. Batak *irakurtzea*, bertzeak *leitzea*. Batak *liskartzea*, bertzeak *ahakartzea*. Batak *hauzoa*, bertzeak *barridea*. Batak *aitonen semea*, bertzeak *zalduna*. Finean bat bederak, bere gisara, anzura eta moldera. Eztituzte euskaldun guztiek legeak eta azturak bat, eta ez euskarazko minzatzea ere, zeren erresumak baitituzte diferent.

Bada eskiribatzeaz denaz bezan batean ere ez naiz egiteko gabe. Zeren bada hunetan ere diferentzia. Batak eskiribatzen du *chehero*, bertzeak *gehero*. Batak *chedea*, bertzeak *gedea*. Batak *ichilik*, bertzeak *igilik*. Batak *lacho*, bertzeak *lajo*. Batak *choil*, bertzeak *joil*. Batak *kecho*, bertzeak *kejo*. Batak *chuchen*, bertzeak *jugen*. Eta hunela bada bertzerik ere zenbait hitz, batak eta bertzeak, nork bere herriko edo erresumako arauaz diferentki eskiribatzen baitituzte.

Ordea zeren ezpaitira hamar bat hitz edo baizen, hunela diferentki, eta bi aldetara eskiribatzen direnak: halatan nik ere zenbait aldiz eskiribatukoitut alde batera liburuan barrena, eta bertze aldera liburuaren bazterrean, *in margine*. bat bederak zerbait kontentamendu duen *amorekatik*.

Finean eskiribatze hunen gainean, diot ezen, nola latinak bi *i* eta bi *v* egiten baititu bat eta hartzen batentzat: *adjicio*, *conjicio*, *vultus*, *vulnus*. Eta espainolak ere bi *l* egiten baititu bat, *llamo* *lloro*: hala euskarak ere bi *t* egiten dituela bat, *ttipia*, *ttipitoa*, *gizonttoa*, *haurttoa*. Zeren es-

kiribatzero, *txipia*, *txipitxoa*, *gizontxoa*, *haurtxoa* ezta ongi heldu, euskaraz ongi minzatzen direnen artean.

Baiña zeren komunzki, hala eskiribatzea, nola minzatzea, nori berea iduritzen baitzaika hoberenik eta ederrenik: eta ene haur ezpaita zurea bezala, ez, othoi, hargatik arbuia eta ez gaitz erran. Hunetzaz kontent ezpazara, egizu zuk zeure moldera, eta zure herrian usatzen eta segitzen den bezala. Zeren ez naiz ni hargatik bekhaiztuko, eta ez mutturturik gaitzez iarriko. Aitzitik haur da nik nahi nukien gauzetarik bat, ene enseiu aphur hunek kilika zinitzan eta gutizia, bertze enseiu hobeago baten egitera eta ene hemengo falten ere erremediatzera. Zeren halatan, ez lizateke euskara hain labur, eskas eta ez hertsia, nola munduak uste baitu, eta baitaduka, dela.

Orai badirudi euskarak ahalke dela, arrotz dela, ezte-la iendartean ausart, entregu, bithore eta ez trebe. Zeren are bere herrikoen artean ere, ezpaitakite batzuek, nola eskiriba, eta ez nola irakur.

Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, franzeses, edo bertze erdaraz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak.

Eztut liburutto haur letratu handientzat egiten. Eta ez xoil deus eztakitenentzat ere.

Ez eta, eztitut *bethiere*, eskritura saindua eta doktoren erranak ere, hitzez hitz euskarara bihurtzen. Zeren euskara eta bertze hitzkuntzak diferent baitira. Ordea ezta ez handik segitzen gaixtoago dela euskara. Aitzitik badirudi ezen bertze hitzkuntza eta lengoaia komun guztiak bata bertzearekin nahasiak direla. Baiña euskara bere lehenbizikoko hastean eta garbitasunean dagoela.

Baiña euskara eta euskararen minzatzeko eta eskiribatzeko moldeak eta diferentziak utzirik: zeren hek azala eta lorea bezala baitira: har ezazu liburutto hunen fruitua, barreneko mamia: haur dasta ezazu, haur eskuzta ezazu, irakurtzen duzula, ez lehiaz, ez gaingiroki eta ez arbuiatzeko kontuan ere. Baiña intenzione on batekin, zeurea, zeurk egina baitzendu bezala, eta baldin halatan eta orduan bat ere gozorik edo zaphorerik edireiten badiozu, zeren hura guztia Iainkoaganik heldu baitateke, eta ez eneganik faltarik baizen, hari eskerrak errenda iatzotzu, eta nitzaz ere othoitz egiteaz, arren othoi, orhoit zaitezi. *Vale.* (6-11).

Denbora

Erran beza Aristotelek nahi duena denboraz («*Tempus est numerus motus, secundum prius et posterius*». Arist. 4 Physic.). Baiña gure kontuko, denbora da lehen, orai eta gero, gauzeen ibiltzea, iragaitea eta iragaitearekin batean hingatzea eta akhabatzea. Denbora bethi doha. *Neque quod futurum est meum neque quod fuit*, dio Senekak (Senec. lib. 6 Natur quaest.). Iragana, eta ethorkizuna eztira gure. Ioana ioan, ethorkizuna ethorkizun, presentekoa da gure, eta ez bertzerik.

Eta presenteko haur, hain da guti ezen erraiten baitu San Tomasek: *De tempore nihil est accipere in actu, nisi nunc* (S. Thom. I p. q. 66 art. 4 ad 4 et 5). Denboratik eztugu deus ere, orai bat baizen, iraute aphurra, pontutsu bat, eta ez gehiago. Egia da, ordea, nola pontutsu hunek, orai hunek iuntatzen eta iosten bezala baititu elkharrekin iragana eta ethorkizuna, ioste hunek orhoitzen gaitu iraganaz eta ethorkizunaz ere esperantza emaiten. Eta halatan orhoitze hunekin, eta esperantza hunekin batean, iragana, eta ethorkizuna presentekoarekin lothurik, eta bat eginik, etzaiku presentekoa hain labur iduritzen. Zeren guztiak elkharrekin bezala, eta bat baillira bezala hartzen baititugu. Hala erraiten du Senekak: *Longam illi facit vitam, omnium temporum in unum collatio* (Senec. de brevitate vitae. cap. 13).

Ordea den bezala, eta behar den bezala denboraren hartzera, edirenen dugu, deus guti dela, mehar dela eta labur. Presentekoa goza dezakegu, ethorkizunekoa desira, eta iragana lauda edo auhen eta deithora. Iraganak eztu erremediorik, hura ioan da: ethorkizunekoa eztakigu emanen zaikunz: presentekoa hain da guti, labur eta ez deus, ezen orai ere, bigarren hitza hasi dudaneko, iragan baita-teke lehenbizikoa, eta lehenbizikoaren denbora.

Izatu da erran duenik denbora eztela deus, hartzaz orhoitzapenik eta pensatzerik eztenean. Eta halatan lo datzanari, etzaikala orduko denbora deus iduritzen, eztuela sentitzen, ezpailliz bezala iragaiten zaikala. Zeren orduan ezpaitu hartan pensatzen, eta ez gogorik edukitzen.

Urarekin nahi nuke konparatu denbora. Zeren denborak eta urak elkharren idurika handi baitute. Ura bethi doha, bata bertzeari darraika. Iragana aitzina da, ethorkizunekoa gibela dago, eta aitzinekoak aitzinean guti irauten du. Eztu nehork iragan den uretik hartzen, eta ez ethortzeko dagoenetik ere: aitzinekotik, iragaitean, presentean

denean behar da atrapatu. Hala da, bada, eta hala egin behar da denboraz ere, presentekoari lot zakitza, hari probetxa zakitza. Zeren bertzela, haize ona denean, bela egin gabe gelditzen den untzia bezala, geldi ahal zindezke zu ere. (102-103).

Gaztezaroa

Badirudi ezen desohore eta laido zaiela oraiko presuna gazte prestuki bizitzea eta bekhatuik egin gabe egoitea. Bere eginbidea, lainkoari zor dioten zerbitzua, gero-ko, zahartzeko ordenatzen dute, erraiten dutela; Berdin oraino ezta hiltzeko perilik, sendo naiz, gazte naiz, eta gazteak gazte antzu, gazte bezala behar du bizi eta gobernatu. Zer lerrake munduak berak ere, baldin oraidanik parti barenengio? Hor heldu da zahartasuna, denbora pausatua, umoa, erhokerien utztekoa. Orduan bai, orduan onduko naiz: orduan munduari gibela emanen diot, eta debozinoan sarthuko naiz. Baiña anarteraiño-koan dezadan atsegin har, dezadan mundua zerbitza: nakion goza; nakion behin, berriz bihurtzeko desirarik eztukedan bezala, ase, eta asper. Haur da oraiko presuna gazten deliberamendua, haur da hekhen gogoia: eta haur da adinean bezala, gaiñerakoan ere gazte izaitea, eta azken finean, fin gaitz egiteko perilean iartzea.

Baldin bazina esperantzatan hemendik urthe baten buruan erdiesteko iaun handi bateganik, zenbait kargu edo errenta, ez lizateke erhokeria handia, bitartean, anarteraiño-ko denboran, iaun haren kontra ibiltzea? Bada are da handiagoa zuk egiten duzun erhokeria. Zeren zuk nahi duzu hemendik urthe baten buruan, edo gehiagoren, zeure zahartzean, ondu, zuk nahi duzu orduan lainkoarekin adiskidetu, eta harenganik anhitz fabore eta garazia erdietsi; eta alabaiña bitartean, anarteraiño-ko denbora guztian, zeure gaztetasunean, lainko haren kontra zabiltza, harekin

etsai zara, eta etsai bezala anhitz bidegabe egiten diozula, bizitzen zara. Ha zer bidea eta moldea, zer lausengua eta balakua, harenganik zahartzean, endrezu izaiteko, nahi duzunaren erdiesteko!

Zahartzean anhitz balioko duenak, gaztetik behar du ezagun eta ageri. Fruiturik izanen duen zuhaitzak, aitzinetik behar du loratu. Doktor handi izanen denak, haurretik behar du eskolatu. Gaztean harmarik utkitu eztuena zahartzean nola kapitainduko da? *Quae in iuventute non congregasti, quomodo in senectute invenies?* (Eccli 25). Gaztean bildu eztuzuna, nola edirenen duzu zahartzean? Gaztean luzaro gaizto izatu dena, nola kolpe batez eta laburzki onduko da zahartzean? Zeren bertzeak bertze direla (lehen erran den bezala), gazteko usantzak iarraikitzen ohi zaitza nebori zahartzean ere, eta are orduan kargatzenago, iauntzenago eta lehiatzenago zaitza. Bada badirudi ezen deabrua ere orduan permatzenago dela. (117).

Zahartzaroa

Zahartzean begietako bista laburtzen da, beharrietan gorrieria egiten da: belhaunetan hezueria iartzen da, indarra gutitzen da, aphetitia galtzen da, loa ioaiten da, ikhara ethortzen da, larrua zimurtzen da, illea urdintzen da, burua karsoiltzen da, hatsa khiratsten da. Finean, presuna zaharra, hotzberatzen, minberatzen, idurikortzen, haserrekortzen, eta alde guztiz on-behartzen eta urrikalkizun egiten da: hain urrikalkizun, non baldin nehon ere gorputzak narriorik, arrazadurarik, edo falta estalirik baldin badu, orduan guztiak agertuko baitira.

Zertako du beraz lainkoak halakoa? Munduak eta mundukoek beretzat on eztadukatena, bere artean ikhusi nahi eztutena, eta konpainietan ere narda zaiena, nahi du-

zu zuk har dezan Iainkoak bere bestale, maita dezan, besarka dezan? Bere konpainian eta lorian errezibi dezan? Hoberena behar duenari, eta onik baizen hartzen eztuenari, nahi zeneraukaio zuk gaixtoena bulkhatu?

Eta gaixto hura, zahar, itsu, maingu, hebain, eri hura har baleza ere Iainko miserikordiosak, ez lizateke ez guztiarekin ere halakoa, egiteko gabe. Zeren non da bekhatuagatik egin behar den deskargua eta pagamendua? Nolatan zahartzean, hain denbora laburrean eta adin flakoan eta erbalean, pagatuko eta satisfatuko du, hanbat bekhaturen zorra eta obligazinoa? Hargatik erraiten du San Agustinek: *Qui sero poenitet, non evadet ignem purgatorii* (August. de vera et falsa poenit. cap. 18 Tom 4). Beranduraño penitenziarik egiten eztuenak, zahartzeraño Iainkoagana itzultzen eztenak, peril du hoberenaz ere, purgatorioetan luzaro egon beharko duen, hara gabe eskapatuko ezten, lehenbiziko urthean zamarrrik edo arropa forraturik beharko eztuen.

Zeren Klimako sainduak dioen bezala, balentia handia da egunean eguneko deskarguaren egitea. (Climac. Scala 8 in fine). Eta badio San Mateok ere: *Sufficit diei malitia sua* (Mt. 6). Egunak berak du bere buruarekin egitekorik asko.

Nola nahitutzu bada zuk, hanbat egunetako, eta denboratako, gaztetasun guztiko bekhatuak, zorrak eta egitekoak elkhargana bildu eta guztiak zahar denborako begiratu, eta eduki? Eztakusazu zahartzeko manaiua, manaiu aphurra dela? Eta adin hark bere denboran egiten dituen falten ere erremediatzen egitekorik asko izanen duela?

Beraz hunelatan, gaztedanik behar da Iainkoa zerbitzatu, penitenzian enplegatu, bekhatuetarik apartatu, eta ez gerotik gerora, gaztetik zahartzera, luzatu. (123-124).

Luzamendutan

San Agustinek, frogatuak bezala, anhitz gauza erraiten du luzamendutan ibiltzeko pontu hunen gainean. Kontatzen du nola bere bizitze gaixtoaren utzteko ingurunera zenean, ibili zen ezin ethenduz, ezin partituz, eta bere baitan ezin deliberatuz. Kontatzen du halaber, zenbat trabu edireiten zuen, zenbat gerla egiten zioten bere lagunak, okhasionek eta aztura gaixtoek. Alde batetik desiratzten zuen bide onean iartzea, hartara bulkhatzen zuten bere ama sainduaren nigarrek, konzientziaren autsikiek, eta lainkoaren manamenduek. Eta bertzetik trabatzen eta gibelatzen zuten leheneko usantzek, eta guztiz ere emaztèn balakuek, hitz ederrek eta plazerek. *Tenaciter colligabar a foemina (lib. 8 Confess. cap. 1).* Emaztek zedukaten hortizki lothua. *Dixeram da mihi castitatem et continentiam, sed noli modo.* Timebam enim, ne me cito exaudires eta sanares a morbo concupiscentiae, quam extinguere (8 Confess. cap. 7). Emaztetarik apartatzea, hain zeikan gaitz eta gaitzi, ezen bere othoitzak ere, hetzaz geroko, ethorkizuneko egiten baitzituen. Zeren beldur zen, enzun zezan berehala lainkoak, eta bere plazerak, gozatu nahizko desira handi batekin, bere gogoan zerabiltzanak, gibela ziatzon. Egiteko hunetan zebillanean, erraiten zioen lainkoari: *Modo, ecce modo, sine paululum* (8 Confess. cap. 6). Ha, launa, utzazu aphur bat, igurikazu bertze aphur bat, ez lehia, ez khexa, ez berantets, sarri naiz zurekin. Hunela erraiten zuen, hunela luzatzen zuen. Eta luzamendu hautan zebillala, denbora handia iragan zeikan. Ordea gero ere hura asko goiz bihurtu zen, etzen azken ponturaino egotu. Aitzitik, alde batetik eta bertzetik bere kontuak egiñik, erran zioen, deliberamendu handi batekin, bere adiskide bati: *Ego iam me abrui, ab illa nostra spe et ideo servire statui, ex hac hora, in loco hoc aggredior* (8 Confess. cap. 6). Nitzaz denaz bezan batean, ni kanpoan naiz munduko egitekoetarik, banalorietarik eta esperantza guztietarik, nik

hautsi dut munduarekin, egin dut harekikoaz, eta deliberratu dut lainkoaren zerbitzatzeri. Eta orai bereon, presenten hasten naiz: ezta ia gehiago, geroko gerorik, luzamendurik, eta ez ephetan ibiltzerik. Eta hala, erran bezala, egin ere zuen. Anhitz luzamendu erabili zuen, baiña azkenean guztiak, eta asko goiz, utzi zituen. Baiña guk eztugu hala egiten, egunetik egunera gabiltza, bethi prometa, bethi gogo har; eta behin ere ez ethen, behin ere ez delibera, eta ez konpli, bethi nahi, beti nagi, nahikunde hutsetan, desirkundetari, denbora guztia gal, eta hala gaudezila, heriotzeak atrapa, atzeman eta har. (34).

Irabazia, gizonaren eragile

Laborariak fruituen esperantzan, gogotik iragaiten du bere lur-lanetako nekea. Merkataria irabazi ustez, egiten du itsasoz eta leihorrez, hain arintki hanbat bide, itzul inguru, eta ioan ethorri. Finean irabaziaren esperantza hunek, deusen usteak, ernatzen, eta iratzartzen du mundu guztia: Hain iratzartzen, non esperantza hunekin, neguak uda, eta atsekabeak ere, atsegintasun eta plazentzia iduritzen baitzaizkigu.

Bada baldin mundu hunetako irabazi aphur baten esperantzak, anhitzetan ere, enganaturik utziten gaituenak, hain gogotik, hain arindurik eta guti sentiturik, trailla arazitzen bagaitu; zer izanen da arrazoin eragin dezan zeruko loriaren esperantzak, usteak, eta orhoitzapenak? Eta zer izanen da halaber, loria haren, irabazi guztien gaitheko irabaziaren ondoan dabillanaz? Hain gauza handiaren esperantzan traillatzen denaz? Halakoari, barurtzea, orazinotan egoitea, etsaiari barkhatzea, haragiaren plazeren utzte eta finean obra on guztien egitea, iduritzen zaika errax eta deus guti. Zeren trailla aphur heken gatik, sekulako loriaren, hain irabazi handiaren eta pagamendu abantaillatuaren esperantzan iartzen baita.

Halatan erraiten du San Agustinek: *Cum attenderis quid accepturus sis, omnia erunt tibi vilia, quae pateris, nec digna aestimabis, pro quibus, illud accipias* (Aug. in Ps. 36. Tom. 8). Konzidera dezazunean zein pagamendu handia emanen zaitzun hemengo travaillu aphurrakgatik, erranen duzu, eztuzula, hain deus gutigatik, hanbat merezi. Zeren travaillua baita ttipi, labor eta tenporal, eta pagamendua handi, luze eta sekulako.

Konzidera dezagun beraz pagamendua eta edirenen dugu errax lainkoaren lege saindua. (319).

Etsaietarik probetxua

Plutarkok egiten du liburu bat, etsaietarik atheratzen den probetxuaz, eta guztietako handiena eta printzipalena dio dela, alferren travailla arazitzea, lotien iratzartzea, eta antsikabèn ansiatsu eta arduratsu egitea (Plutarc. lib. de utilitate ex inimicis capienda). Adiskiden artean garenean laxo gara, eztadukagu deusez ere konturik: eztugu gaizki mintzatuagatik eta milla erhokeria eginagatik ere antsiarik. Zeren baitakigu, ezen adiskide direnaz geroz, hek guztiak estaliko eta onera hartuko derauzkigutela. Baiña etsaien artean garenean, behar dira buru-beharriak ernatu, zer egiten eta erraiten den behatu. Zeren nola etsaiak be-thiere zelatan baitaude, zer ere huts edo falta edireiten baitute, hura berehala harrapatzen dute, eta are batzutan berreturik, airatzen eta kanpatzen dute. Hargatik erraiten du San Krisostomok: *Saepe vero ab inimicis non minus lucramur quam ab amicis. Cum enim nobis peccata exprobraverint, et iam invitos, in ipsorum correctionem excitant* (Chrys. hom. 13 ad populum Anthio. tom. 3). Anhitzetan egiten derakute etsaiek hanbat ongi eta ontasun nola adiskideek, eta bai batzutan gehiago ere, Zeren etsaiek geure faltak erranez, eta hetzaz eranzute eginez, emaiten derakute okhasino ernatzeko, iratzartzeko, falta eginen emen-

datzeko, erremediatzeko eta bai are aitzinerat gehiago egi-
tetik ere begiratzeko.

Arrazoin hunengatik erran ahal diteke, etzuela egun-
daiño, gure Iaungoikoak nahi izatu akhaba zekizten Is-
raeleko seme hei bere etsai guztiak, baiña ordenatu zuen,
edo permititu, geldi zekien bethiere zenbait bakhotx eta
hondar iratzartzeko, ernatzeko, eta alfertzetik begiratzeko.

Irabazi zutenean Lazedemoniakoeck bere fronterako hiri
etsai bat, mugakide zuten bat, erran zuten Lazedemonia
hartako bereko gobernariak: *Sublata est pubis nostrae pa-
laestra, non habebunt post hac, quibuscum luctentur adver-
sarios* (Plutarc. in Aphothe). Egin da gure iende gazteaz,
eztute hemendik aitzina ihardukitzeko paradarik izanen eta
ez borrokatzeko etsairik.

Lazedemoniako hek berek etzuten desegin nahi izatu
hiri kontrast bat, bethiere bere kontra eta etsai izan zuten
bat, erraiten zutela, ezen, hiri hura zela, *Iuventutis cotem*:
gaztetasunaren zorrotz-harria, zeren gaztek han bere inda-
rra eta antzea frogatzen, zorrotzten, eta herdoiltzetik begi-
ratzen baitzuten (Plutar. Ibid.).

Hunen arauaz ihardetsi zuen Kleomenes Sparziako hark
ere, galdegin zeraukatenean, ea zergatik hala bere mene-
raz gero, etzituen bere etsai Argiboak desegin? *Ut habea-
mus qui inventutem nostram exerceant* (Plutarc. in Laco.).
Eztitut desegin, dugun amoreakgatik nork gure iende gaz-
tea zertako den frogatzean.

Enzun zuenean Publio Nasikak, egotzi zutela Erroma-
koeck herritik Anibal bere etsai handi hura. Kartago ere
hartu zutela, eta hainbertzez, bere ustez, aitzinerat segu-
rean iarri zirela, erran zuen: *Atqui nunc in lubrico sumus*
(Plutarc. in Aphothe.). Aitzitik orai gaude egundaiño baiño

linburtzeko eta erortzeko peril handiagoan. Zeren ezpaitugu orai, lehen bezala, iratzartzaillerik eta geure eginbidearen eragillerik.

Izan zutenean Erromatarrek, desiratzten zuten abantailla eta garaitia Kartagotarren gainean, sarthu ziren konseilluan Erromatarrak, ea zer eginen zuten Kartagoko hiri hartazaz (Vide August. lib. de civitate Dei cap. 30 tom. 5). Eta Katonek (prinzipalenetarik bat baitzen) erran zuen guztiak desegin, plaundu eta lurrarekin berdindu behar zuela, zeren bere gerla guztiak eta egitekoak hiri hartarik sortzen zeiztela, eta hura deseginez gero, bakean eta soseguan iarriko zirela. Baiña Szipion kapitain famatu hark ethorkizunari hobeki behaturik, erran zuen: etzutela neholatan ere hiria desegin behar. Zeren baldin desegiten bazuten, gerla bat iraungi ustean, bertze handiago bat pitzuko zutela. Zeren berehala iendea, alferkeriari, ian-edanari, erran-merranei, eta aisiak dekhazkeien gaixtakeria suerte guztiei, emanen zeila. Eta handik nahastekak, diferentziak, guduak, hauziak, etsaigoak, eta Kartagotarrekikoa baiño gerla perilosagoa, bere arthean sorthuko zeila. Eta hala gertatu zen. Zeren Szipionen konseillua utzirik, hartu zuten Katonena, desegin zuten Kartagoko hiria, iarri ziren bere ustez bakean. Baiña Szipionek erran zarauen bezala, fite berak, eta Erromako hiria ere, behehitu eta erori ziren.

Egia haur ezaguturik Perikles famatu hark mantenatzen zuen bethiere bere herritik kanpoan zenbait gerla. (Plutarc. in Pericl.). Eta urtheoro igortzen zituen untziak iendez betherik, gerla hartara. Eta hetan bulkhatzen zituen ediren ahal zitzan alfer guztiak. Eta gero bizitzen zen bake handi batetan. Zeren nola herri guztietan, ohi baita komunzki zenbait alfer eta iende galdu, eta hek anhitz kalte eta nahasteka egiten baitute, ontasun handia heldu zaika herriari halako heken khentzeaz. Nola lurrari ere heldu baitzaika probetxu iorratzeaz eta belhar gaixtoen atheratzeaz. (16-18).

Alferra eta alferkeria

Lehenagoko filosofo batzuek, ez aithortzeagatik egon zela behin ere lainkoa alferrik, erran zuten, mundu haur, lainkoa bera bezala, eterno zela eta haste gabe. Zeren bertzela mundua egin arterainoko bitartean alfer egon beharko zuela lainkoak. Baiña ez mundua da eterno, eta ez haste gabe, eta ez hargatik egotu lainkoa egundaino alferrik. Zeren badu, eta bazuen lehen ere lainkoak, munduaren egitea eta gobernatzea baiño obra handiagorik: nola baitzen, eta baita, bere buruaren kontenplatzea, onhes-tea, eta bai bertzerik ere anhitz. Ordea filosofo hek eman zuten hartan bere ahal guztiaz aditzera gauza gaixtoa eta perilosa zela alferkeria, lainkoa baithan edireiten zela ez aithortzeagatik, erran baitzuten erhokeria handi bat, lainkoa bera bezala, mundua ere eterno zela eta haste gabe. Eta puntu batean, mundua haste gabe zela erraiten, huts egin bazuten ere, ordea bertzean, alfertasuna gauza gaixtoa, perilosa, eta nork bereganik egotztekoa zela erakustean, etzuten hutsik egin. Zeren hain da gauza galdua eta galgarria alferkeria, non naturalezaren beraren ere kontra baita. *Homo nascitur ad laborem et avis ad volatum* (dio Iobek) (Job. 5). Gizona sortzen da traillaiko, eta hegaztina aireko. Nola hegaztinari emaiten baitzaitza hegalak, airtzeko, eta hegaldatzeko: hala gizonari ere emaiten zaitza eskuak traillaitzeko.

Munduko gauza guztiek kondenatzen dute alferra. Zeren hartaz bertze guztiek enplegatzen baitute bere denbora, zertako eginak baitira hartan. Iguzkiak arraizonekin erran ahal diazaio beranduraino ohean datzanari: zerk aratza hor alfer-nagia? Nik atzo, hik baiño bide gehiago iragan nian, inguratu bainuen mundu guztia, eta orai ere, hi baiño goizago iaki nauk. Zuhaitzek ere erran ahal dezakete: eztakusazue nola gu ezkauden behin ere geldirik eta

ez alferrik? Nola hazten, handitzen, loratzen eta geure denboretan eta sasoiñetan fruituz bethatzen garen?

Bada animalia adimendurik eztutenek ere, behintzat erleek eta xinhaurriek, arrazoiñekin erranen derakute, beha diazegula, heken nekeak, trabailluak eta ioan-ethorriak konsidera ditzagula, eta halatan agian, ahalketurik bedere, geure eginbidearen egitera, eta trabaillatzera, ernatuko eta erdutuko garela.

Erleak, hain gauza ttipiak, eta flakoak, bethatzen du mundua eztiz eztitzeko, eta ezkoz argitzeko. Eta gaitz lizateke kontatzea nola gobernatzen diren erleak elkharren artean; nola duten bere erregea, eta obeditzen duten; nola zaharrak kofauean barrena, etxeko lanen egiten, egoiten diren; eta gazteak, bere mantenuaren eta bizikaien garraion, kanpotik hari diren; nola duten bere athal-zaiña, eta behar ere bai. Zeren eztiari, nola baita gozo, eta izena duen bezala, ezti, anhitz baitarraika, eta baitzaika aiher. Nola trabaillatzen direnek, trabaillatzen eztiren alferrak eta nagiak, ezten kolpez egotzten dituzten bere konpainiatic. *Expellunt ab alvearibus pigras* (Plin.). Eta nola bertzerik ere anhitz gauza egiten duten, eta guztiak hain ordenantza handiarekin, non baitirudi ezen eztela erregerik, bere erresuma hain ongi gobernatzen duenik, nola erleek bere erregearekin batean trabaillatuz, gobernatzen baitute berea.

Bada xinhaurriaren gobernuaz, zuhurtziaz, trabailluaz, ethorkizuneko egiten duen probisioneaz, hornizoiñaz, eta biltzen duen mantenuaz, nork zer erranen du? Nork eztu miretsiko, eta gogoeta egingen? Spiritu Sainduak berak igortzen gaitu animalia ttipitto hunengana, zer egin behar dugun ikhastera, erraiten duela: *Vade ad formicam, o piger, et considera vias ejus, et disce sapientiam quae, cum non habeat ducem nec praeceptorem, parat in aestate cibum sibi* (Prov. 6). Zoaz, nagia, xinhaurriagana, eta konsidera

itzatzu haren bideak eta bidexkak, ioan-ethorriak eta itzul-inguruak, nekeak eta travailluak, eta ikhasiko duzu zuk ere nola behar duzun aitzinerat eta bethiere bizi, ibili eta gobernatu. Hark erakuslerik eta kidaririk gabe, berak bere buruz biltzen du udan, neguaren iragaiteko behar duen mantenua, bazka eta bihia. Eta bihi hura gordetzen du lurrean barrena, berak eginikako ganbaretan, eta bihi-tegie-tan. Eta hain da zuhur eta goithatu, ezen kanpoan deus ezin izanez, bere bilduetara, bildu behar duenean, lehenik hozitu behar duen burutik hasten baitzaika bihiari: zeren bertzela sor liteke bihi hura, buztan liteke, belhar bihur liteke; eta gero handik harat, alfer-lan gertha lekidakaio bere leheneko zuhurtzia guztia.

Are gehiago, hozidurak ianez gero ere, lurraren humidurak, eta hezetasunak, gaiñerakoa ustel eztiazon, atheratzen du noizik behin kanporat, airatzera eta iguzkiztatze-ra: eta orduan denbora onaren seiñalea dateke. Eta halatan eta hala iragaiten du xinhaurriak bere negua: eta erakusten dio bat bederari nola eta zer moldez behar duen mantenatu, gobernatu eta alferkeria guztiak utzirik, bere denboran travaillatu. (20-22).

Kristau bizitza

Bi bideak

Ifernuko bidea dadukanak, badirudi eztuela halako atsekaberik, persekuzionerik eta kontrarik izaiten, eztuela halako gerlarik eta egitekorik sentitzen.

Zeren bere gogoak eta haragiak diotsan bezala, bide zabalaz, bere aisiara baitabilla. Halatan erraiten du San Mateok: *Lata porta et spatiosa via est, quae ducit ad perditionem et multi sunt qui inurant per eam.*

Athea, athe zabala, eta bidea ere bide handia eta espaziotsua da ifernurat dohana; eta anhitz ibiltzen da bide hartan, eta bai athean ere sartzen: bada han oin-hatza franko, eta ez konpainia eskasik.

Eta ifernuko bidea gaixtoek daramatena, deitzen da handia eta zabala, zeren hartan dabiltzanak, ezpaitira erregelaz bizi eta ez ordenantzaz. Eztute hek bertze erregelarik, bere borondatea baizen; eztaude legearen azpian, legea da heken azpiko. Bidea huts eginak, errebelatuak dabilta: eta hala dabiltzanak, nondik nahi den dabilta, hekentzat guztiak dira bide, guztiak dira zabal. Eta nola zabal baitira eta laguna ere franko baitute, plazer zaie, bere errebelamendu guztiarekin ere, bide zabal hartan ibiltzea.

Plazer da mihiaren anhitz arnegu eta iuramentu egiten duela, nahi duen bezala minzatzera utzte. Plazer da igandetan eta bertze bestetan, solhasean, ian edanean, iokoan eta atsegin hartzen, mezaz, bezperaz eta orazinoz konturik egin gabe, denboraren iragaitea. Plazer da haragiak kilikatzen zaituenean, berehala zeure desiraren konpliztea. Plazer da bidegabe bat egiten deratzutenean, mendekatztea, ordaiñez ordain, moneda berean pagatztea. Plazer da, bere edo bertzeren eskuen artean, zerbait erabiltzea, eta alfer eta aise, ebatsiz izanen bada ere egoitea. Plazer da ohe onean eta garbian etzatea. Plazer da ez barurtzea, ongi iatea, hobeki edatea, eta barazkari onagatik, afari hobearen ez utzte. Finean plazer, plazent eta atsegin da, bere gogoak eta aphetituak diotsan bezala, bide zabalaz ibiltzea.

Ez ordea ezta plazer eta ez atsegin, baiña gaitz eta penos da, parabisuko bide meharraren edukitzea; manamendurik hautsi gabe, bethi artez ibiltzea eta bizitzea. Gaitz da mihiaren ongi gobernatzea, linburtzetik begira-

tzea, eta bertzeak zutzaz mintza litezin, nahi zendukeien bezala, zu ere hetzaz minzatzea. Gaitz da bidegabe bat egiten deratzutenean, barkhatzea: gaizki erraiten deratzunari ez ihardestea, zeure eskuan duzularik, ez mendekatzeta. Gaitz da, haragiak tentatzen zaituenean, gaitetan eta okhasinoetan zarelarik, zeure buruaren bortxatzea, desiraren ez konplitzeta. Gaitz da tratuetan eta salerosietan, bethi egiaz ibiltzea; bertzerena eskuan darabillazularik, ez kutsatzea, errotan irinik ez lotzea. Gaitz da zur baten gainean, zeure ohe ona utzirik, eta larru arras zilizio bat, zerdazko gerriko bat harturik etzatea eta ibiltzea. Gaitz da barurtzea, ianhari ona, edari hobe, eta aphetitu ere duzularik, guztien lainkoagatik utztea. Finean gaitz da eta penos da munduan garelarik munduan ezpaikina bezala, munduaz konturik egin gabe, lainkoaren borondateari errendaturik egoitea; haren manamenduen arauaz, haragiz ezpaikina bezala, bethi spiritualki bizitzea.

Eta alabaiña gaitzago bada ere, haur da parabisura ioaiteko bidea, haur da han sartzeko athea. Beraz orai badirudi ezen eztela gaitz, galdez gauden egitekoari ihardestea. Zeren iduriz frogatu baitugu asko klarki, errazago eta plazentago dela ifernuko bidea parabisukoa baiño, parabisukoa hain gaitz denaz geroztik.

Baiña guztiarekin ere aihertzen naiz erraitera, eta erraiten dut, parabisuko bidea errazago, plaunago, eta plazentago dela, ifernukoa baiño. Eta ifernura ioaiten denak, pena eta trailla gehiago iragan behar duela, are mundu hunetan ere, ifernura ioaiteko, parabisuratzen denak, parabisuratzeko baiño.

Eta hartarakotzat frogatzen dezagun lehenik, erraz dela parabisuko bidea, eta gero frogatuko dugu, errazago dela ifernukoa baiño. (310-311).

Kofesioa

Nola anhitz presuna baita, kofesatzera herabe duenik: nagi eta loti denik, halakoen iratzartzeko, nahi nuke kapitulu hunetan eman zenbait arrazoin, eta erakutsi, zenbat probetxu dakharkeien maiz kofesatzeak, eta kalte gutitan egiteak; hek konsideraturik bat bedera maiz kofesatzera, eta bere eginbidearen egitera, erna dadin amoreak-gatik.

Lehenbiziko arrazoiña. Maiz behar da kofesatu. Zeren kofesatzeak emaiten dio bekhatutan dagoenari, bere bekhatuen barkhamendua; garaziarik ez-tuenari, garazia eta garazia duenari, eta saildu denari, berretzen dio, eta handitzen, bere leheneko garazia, eta saildutasuna.

Ordea erranen du hemen zenbaitek. Nolatan ahal da-teke hori horrela? Nolatan kofesatzeak berret ahal deza-ke, eta handi, leheneko garazia, eta saildutasuna? Zeren kofesatzera heldu dena bekhatutan dago, zeren hala ez-palego, ez-luke zer kofesaturik. Beraz etzuen lehen gara-ziarik, eta ez saildatasunik, eta baldin ezipazuen, erran ahal diteke, kofesatzeak emaiten duela. Bada ordea erran diteke berretzen duela, eta erran ere ongi, eta egiazki. Ze-ren anhitz ethortzen da kofesatzera, bekhatu mortalik ga-be, eta bekhatu mortalik ez-tuena, lainkoaren garazian da-go, Anhitz presuna prestu, anhitz iende debot, eta saildu, edireiten da munduan, eta hek maiz kofesatzen dira. Ze-ren bekhatu mortalik ez izanagatik ere, badute zenbait benial, eta benialak asko dira kofesatzeko. Eta nola be-nialak asko baitira, eta baitakusate ezen, kofesatzeak, tra-burik ez-tenean, iratxekitzen dioela bethiere zenbait gradu, leheneko garaziarik, halatan berretura hura, eta benialen ere barkhamendu erdietsi nahiz, kofesatzen dira hain maiz.

Eta ongi egiten dute hala egiteaz, zeren hain da gauza handia, eta estimatzekoa, kofesatzeaz erdiesten den garazia edo garaziaren berretura, non hartarik den gradu-rik ttipienak ere, mundu guztiak baiño gehiago balio baitu: eta bertze munduan ere, hemendik garazia gehiago eramaiten duenari, loria gehiago emanen baitzaika. Beraz maiz behar da kofesatu.

Are gehiago maiz behar da kofesatu, bigarren arrazoia. Zeren maiz kofesatzeak arintzen, gutitzen, eta laburtzen du purgatorioetako pena, eta pena hetan egon behar den denbora. Kofesatzen denari, kofesatzen den guztiaz, ongi kofesatzen bada, barkhatzen zaika, eta gutitzen bere zor duen penatik parte bat. Eta hain maiz kofesa ahal ditekete, eta hain ongi, non guztia pagaturik, hartzeko dun ere gertha baititekete, lehenagoko saildu handi, maiz kofesatzen ziren hek, gerthatu ziren bezala.

Eta purgatorioetako penen bortiztasuna konsideratzen duenak, eta han iragan behar diren pena hek, maiz kofesatzeaz, arintzen direla dakienak, segur da, akhusatuko duela bere nagitasuna eta egiten den baino maizago, kofesatuko dela. Zeren mundu hunetako pena guztiak elkharri iratxekirik ere, ezpaitira deus, purgatorioetan den penarik ttipienarekin konparaturik. Beraz maiz behar da kofesatu eta kofesatzeaz, pena heken iraungitzera, eta gutitzera enseiatu.

Are gehiago hirugarren arrazoiña: maiz behar da kofesatu. Zeren maiz kofesatzeak haserretzen du Deabrua, eta are erhoturik, eta zoraturik bezala, zer hari den, eta zer egin eztakiela, ibentzen du.

Bekhatuak kofesatu gabe, denbora luzeaz bere baithan barrena gorderik, eta estalirik dadutzana baithan, esku handia du Deabruak, nabusi da harentzat. Baina egin, eta

berehala agertzen, eta kofesatzen dituenari, beldur zaika, gogan behar zaika, etzaika sobera fida.

Ikhusen duzunean ezen presuna bat dela erasle handi, minzatzaile, aha-zabal, hitz mitzti, elha berriti, eta salhati, eztiozu halakoari sekereturik fidatzen. Zeren Spiritu Sainduak dioen bezala: *Qui denudat arcana amici, fidem perdit* (Eccli. 27). Adiskidearen sekeretuak biluzten, agertzen, eta salhatzen dituenak, galtzen du nehork haren baithan ahal dukeien sinhestea, eztu merezi nehor fida dakion. Hala bada Deabruak ere, dakusanean ezen, eragiten derauzkitzun bekhatuak ixil, eta sekeretu eduki bazi-nitza, nahi bailluke, zuk berehala kanporatzen dituzula kofesorari erraiten, eta agertzen derautzatzula, galtzen du zure baithan zuen sinhestea, eta fidantzia. Ikhusirik ezen haren iduriz hitz mitzti, eta salhati zarela, utzten zaitu, etzaitu handik aitzina hanbatean tentatzen, eta ez bekhatu egitera narritatzen. Zeren berdin baitakusa eztuela probetxurik; hark egiten duen guztia, zuk berehala kofesoraren aitzinean desagiten duzula.

Gutitan kofesatzen direnak dira deabruaren gogarkoak, hek dira haren zerbitzari finak, eta leialak: hek dira haren sekretariak, haren bekhatu sekeretuak, sekeretu, denbora luzeaz edukitzen dituztenak.

Bada halako nabusi gaixtoaren sekretari, eta zerbitzari ez izaiteagatik, hari damu egiteagatik, eta gure baithan ahal dukeien fidantzia ere galdurik utz gaitzangatik, behar da lehen baiño lehen, behar da maiz kofesatu.

Are gehiago, laugarren arrazoiña, behar da maiz kofesatu. Zeren maiz kofesatzen dena baithan, eztira bekhatuak hala gogortzen, eta ez finkatzen, eztira hala errotztatzen, eta ez hain barrena sartzen.

Erranen duzu. Iende batzuk kofesatzen dira maiz, eta

bai halaber maiz ere leheneko bekhatuetara bihurtzen: eror, eta iaiki dabilta; garbitu bezain fite likitsten dira. Zer probetxu da bada halako kofesatzeaz, iaikitzeaz, eta garbitzeaz? Zer probetxu den? Bada bai probetxu. Zeren baldin maiz erortzen badira, halaber maiz iaikitzen dira: baldin maiz egiten badute bekhatu, halaber maiz erremediatzen dute. Eta erremediatu duten bitarte hartan, iaikiak, eta garbituak daudenean, dei ditzake lainkoak, hil ditezke orduan, eta bai halaber halatan salba ere. Eta hala batean eror, eta bertzean iaiki dabillanak, peril badu ere galtzeko, ez ordea hanbat, nola bethiere eroririk datzanak. (344-346).

Esperantza faltsoa

Zeren lainkoa den bihotz bera, eta miserikordios, ezta ez hunetarik hartu behar okhasinorik eta ez eskudantziarik bekhatu gehiago egiteko. Zeren haur lizateke kontra pozoinaren pozoin egitea: lainkoaren miserikordiaz eta ontasunaz kontrara usatzea: eta bai miserikordiarik ezten lekhuana ere, oiñen permatzeko, perilean iartzea. Badira bisera batzuk, begi-ordethaillu batzuk, zeiniek gauzak diren baiño handiago, iduri arazitzen baitituzte. Eta gertha ditekaien kasua da halako biserekin zubi batetarik iragaiten zarelara, zubia den baiño handiago iduriturik, eta zubirik ezten lekhuana oiñak emanik, eror baitzindezke zubi azpiko hosinera, eta han itho, eta honda. Bada zeruko loriara iragaiteko zubia, miserikordia da: eta baldin miserikordiaren zubi hunetarik iragan nahi baduzu zuk ausartkiegi, fidatukiegi, esperantza erho baten biserak iauntzirik, eta iduriturik ezen zeren zaren giristino, eta lainkoa ere den miserikordios, hargatik beragatik ere, salbatuko zarela, engana ahal zindezke eta miserikordiaren zubirik ezten lekhuana esperantzaren oiñak ibenirik, iustiziaren hosinean eror ahal zindezke. Zeren lainkoaren miserikordia infinituki handi izanagatik, ezta ez aditzen, eta ez handik segitzen, handi-

tasun hark zuri bekhatu egiteko okhasinorik eman behar deratzula. *Non sic est Deus misericors, ut sit iniustus*, dio San Agustinek (August. in Ps. 39). Ezta lainkoa halako moldez miserikordios, non iustiziarri bide gaberik egin diazon.

Badio halaber San Agustinek: *Puniamus nostra peccata si quaerimus misericordiam Dei. Non potest Deus miseri omni operantium iniquitatem, quasi blandiens peccatis et non erradicans peccata* (August. in Ps. 58). Gaztiga ditzagun geure bekhatuak, dagigun hetzaz penitentzia, baldin nahi badugu erdietsi lainkoaren miserikordia. Zeren lainkoak ezin barkha diazaio bekhatoreari, bekhatutan dagoeiño, hetan atsegin hartzen dueiño, hetarik apartatzera delibera arteiño. Ezta lainkoaren miserikordia hain aitzina heltzen, eta ez hedatzen. Eta ez hedatze haur, gauzaren ezinkizunetik heldu da, eta ez miserikordiaren eskastasunetik. Ezta erraiten miserikordios dela lainkoa, zeren bekhatutan dabillanari, hala dabillaino, eta ibiltzeko gogo dueiño, lausengatzen eta barkhatzen dioen. Baiña erraiten da miserikordios dela, zeren bere bekhatuak behar den bidean utzirik, behar den bidean ethortzen zaikanari, eta bere ahala egiten duenari, ezpaitio faltatzen, eta ez barkhamendurik ukhatzen. Eta asko da haur eta hunela egitea miserikordios izaiteko.

Enzuten duzunean, bihotz bera eta miserikordios dela lainkoa, ategin hartzen duzu, eta enzunagatik gaitz, gogor eta iustiziatu ere badela, eztuzu konturik egiten. Bada Eskritura Sainduan, lainkoak prometatzen dituen fabore handi, ezti, gozo, miserikordiazko hek, iustuentzat, ongi, artez, eta prestuki bizitzen direnentzat dira: eta mehatxuak, kheñadurak, iustiziaren garratzatasunak eta gatziguak gaixtoentzat, zure eta zu bezalakoentzat. Zer erhokeria da bada haur, zuretzat diren mehatxuez, eta gatziguz eztagizun konturik, eta zuretzat eztiren miserikordiazko solhasez har dezazun atsegin? Miserikordia iustuei, zu ez be-

zalakoei dagote. Eztuzu zuk bekhatutan zaudeiño hartan parterik, eta ez ikhukizunik: eztuzu orduan lainkoa miserikordios dela enzunagatik, zer bozturik. Zeren orduan, iustizia bai, baiña miserikordia ezta zurekin mintzo, ezta orduan zure. Aparta zaite bekhatutik eta izanen da zure: aparta zaite bekhatutik eta izanen duzu parte. Baiña anarteraiño, bitartean, iustizia edukazu zeuretzat, eta utzazu miserikordia, bere bekhatuetarik apartatzen direnentzat. Zeren bertzela debekuan nahi dituzu eskuak sarthu, bertzeren zuzena nahi duzu zeuretu eta goratu. (94-95).

Haserrea

Anhitz gauzak egiten derauka giristinoari gaitz eta kalte, eta hetarik bat da, eta are buruzagietarik, hira, kole-ra, haserretasuna, mendekatzeko desira desordenatua. Hunek arima eta gorputza zaurtzeintu, hunek biak eritzeintu, egunak laburtzeintu, eta muga baiño lehen, illeak ere urdintzeintu. Hala emaiten du aditzera Spiritu Sainduak: *Zelus et iracundia minuit dies, et ante tempus senectam adducet cogitatus* (Eccli. 30). Hunen arauaz eta ereduz erraiten du Senekak ere: *Vitanda est ira, non solum moderationis causa, sed sanitatis* (Senec, ep. 18). Begiratu behar da sobera haserretzetik, alde egin behar zaika hirari, begia eduki behar zaika kolerari: eta ez, ez, prestuki eta onhetski bizitzeagatik beragatik, baiña bai gorputzeko osasunagatik ere. Zeren haserretasunak, mendakatu nahiak, barreneko hegigoak, irakidurak, hudigoak, gorrotuak, korromioak, eta herrak, arimari eta gorputzari egiten deraue kalte, biei senti arazitzen deraue, biak eritzeintu.

Eta halatan presuna hirosak, erreak, eta haserrekorrak, ez ohi du, begi orde anhitz higatzen, eta ez komunzki bere umèn umerik ere bere ingurunean ikhusten. Zeren bere barreneko koleraren suak eta irakinak, errai guztiak erratzen, elkhortzen, eta idortzen baiterautza. Eta hala ikhusi-

ko duzu, bere egitez iauzkor, eta mendekos diren presunak, baldin berehala bere desiren arauaz mendekatzen ezpadira, egosten eta desegiten direla. Eta baldin halaber mendekatzera, eta eskuen odolztatza gertha badakie, gero ondotik dolutuak, eta atsekabeztatuak dabiltzala. Halako suertez, ezen nola nahi den dela, nahiz mendekaturik, eta nahiz mendekatu gabe: nahiz bere gogoak historik, eta nahiz histu gabe, ezta halakoentzat damurik, atsekaberik eta asaldurik baizen.

Eta ezpere beha iazozu heserretua dabillan bati, nola mintzo den, nola ahotik habuiña darion, begietarik iharrak iauzten zaitzan, lurra ostiko ioiten duen, ethortzen zaitzan arartekoez eztuen konturik egiten: eztioen nehoi ere ohererik ekhartzen (Vide Chysost. 4 T. 3). Aitzitik erho batek bezala, aitzin gibel behatu gabe: ethorkizunaz konturik egin gabe, guztiak gezurztatzen dituen, desohoratzen dituen: bulkhatzen dituen: hil nahi dituen. Beha iazozu bada halako bati eta zentza zaitte haren baithan. Zeren iakizu ezen zerori ere, haserre zarenean, hala zarela, erho zarela, itsu zarela, hordi bat bezala irrigarri zarela.

Presunak, haserre denean, badirudi eztirudiela lehena. Hargatik abisatzen zituen Platonek bere diszipuluak, har zezatela, haserre zirenean, mirail bat bere aitzinean, eta hartan ikhus zitzatela bere buruak. Eta erraiten du Senekak ere: *Quibusdam profuit aspexisse speculum, perturbavit eos tanta mutatio sui* (Fulgent. lib. 7 cap. 2, Senec. li. 2 de ira cap. 36). Batzuei on egin izan deraue, haserre zirenean, bere buruen miraillean ikhustek, Zeren han da ezagun, nola kolerak bat bedera muthatzen, eta lehen zena eztirudiela ibentzen duen. Eta badio San Krisostomok ere: *Quod si iratus seipsum intueri posset, nulla alterius indigeret admonitione, nihil enim irato turpius* (Chrysost. Hom. 25 in cap. 3 Joan. Tom. 3). Baldin presuna haserreak, haserre denean, ikhus albaleza bere burua, ez luke ez berriz haserretzeko, bertze abisuren beharrik: zeren or-

duan hain da itsusi, non itsutasun hark berak begira baillezake, aitzinerat gehiago haserretzetik. Koleran dagoenak hanbat erhokeria egiten du eta erraiten, non hari bere plazerera beha dagokana, ahalketzen baita erhokeria heken ikhustez eta enzuteaz.

Eta halakoak berak ere, bere baithara dadinean (zeren koleran dagoena eztago bere baithan), nork erranen du, zenbat damu, eta atsekabe izanen duen? Zein ondore gaixtoa edirenen duen? Zein on-behar, eta triste geldituko den? Orduan gogoratzen zaika ikhusi dutela bere adiskidèk, eta bai etsaiek ere, guztiak beha egotu zaitzala. Eta hark bere koleran egin dituen desordenez, eta erhotkeriez, adiskidèk hartu dutela damu, eta atsekabe, eta etsaiek atsegin eta plazer. Orduan erreko da bere baithan barrena, despitatuko da, tristetuko da, malenkoniaturko da. Eta guztiz ere, baldin bere haserre hartan kolperik egin badu, barber beharrean nehor ezarri badu, edo bere hitzetan nehork bahirik hartu badio. Han dira zinak, eta minak, han dira kexadurak, izerlekak, hats-beherapenak, intzirinak, eta maradizioak. Orduan iartzen da bere buruarekin go-goetan, erraiten duela San Krisostomoy dioen bezala: *Et quid mihi pugna opus erat?*

Quid in iniuriis? Quid contentionibus? Haec et illa pereant, et his omnibus terrenis maledicunt, qua ipsis discordiae materiam praeberunt (Chrys. Hom. 4. Tom. 3). Zer mengoa nuen nik, egiteko hautan sartzeko? Diferentziantan ibiltzeko? Hitz gaixtorik erraiteko? Kolperik emaiteko? Fin gaitz dagitela hunelako egitekoek, ni hunela egitekotan ibeni nautenek. Baldin ez nagoenean, banengo, begira bide nindeke, berriz hunela itsutzetik, erhotzetik, minzatzetik, eta egin naizen bezala iauztetik, eta kolera-tzetik. Hunela minzatzen da hotztu denean, hunela bere buruaz arrenkurutzen da, haserredura ematu denean.

Haur da koleraren ondorea, ihardukitzearen fruitua:

arimaren galtzea, gorputzaren desegitea, eta tristura handi baten azpian damuztaturik ibentzea, eta utztea. (187-188).

Jainkoa, pozgarri

Ikhusiko duzu saindutto bat zokho batean nigarrez, eta hats-beherapenez, orazinotan dagoela: eta ikhusiko duzu halaber orazinoz, eta debozinoz konturik egiten eztuen bat, bethiere iend'artean, iokoan, dantzan, eta atsegin hartzen dabillala. Bada orai zuri idurituko zaitzu ezetz, baiña zokhoan orazinotan dagoen hark, beroago, eta alegerago du bere baithan barrena bere gogoa, munduko atseginetan dabillanak baiño. Zeren lainkoak bere garaziaz, eta faborez debozinotan dagoenaren nigarrak gozatzen, eta zaphoratzen baititu: eta berak ere nigar hetan ondore on bat edireiten baitu. Halakoagatik erraiten du San Agustinek: *Semper doleat, et de dolore gaudeat* (Agust. de vera & falsa poenitentia cap. 13 in fine. Tom. 4). Beu be-thi dolore, eta doloreaz gozo, eta zaphore.

Ikhusen duzunean presuna bat bere bekhatuen dolore hutsez, nigarrez dagoela, uste duzu ezen presuna hura triste dela, baiña enganatzen zara: zeren alegera da, eta alegeraz nigar hek egiteintu. Zeren San Ambrosiok dioen bezala: *Non solum dolor lachrymas habet, habet et laetitia lachrymas* (Ambros. de obitu fratris orat. 4. Tom. 5). Eztira ez nigar guztiak doloretik heldu, badira alegriantzatik heldu direnak ere. Presuna iustuen hats-beherapenak, orazinotan, eta penitenzietan daudenen nigarrak, alegriantzatik heldu dira. Nigar hek, arrosak dira elhorrien artean. Egur hezeak egiten du gar, eta egiten du nigar: sua datxeka, eta ura dario. Hala bada presuna iustuak ere berthutezko obretan egiten du nigar, eta egiten du irri: badu travaillu, eta konsolamendu, badu tristura, eta alegriantza: kanpoan tristura, eta barrenean alegriantza. Eta barreneko alegriantza hark, garaitzen du kanpoko tris-

tura. Zeren tristura hura bere nahiz, eta borondatez, eta bere probetxutan hartzen baita, eta haren ondoan alegrian-tza uste baitu.

Halakoagatik erraiten du Elizak ere: *In labore requies, in aestu temperies; in fletu solatium*. Trabailluan pausua: beroan freskura, nigarrean konsolamendua. Hala-ber halakoagatik erraiten du David sainduak: *Labores manuum tuarum quia manducabis* (Ps. 127). Bere eskuen traillaak ianen dituela. Traillaatzen denak, bere traillaaz izaiten duen irabazia, iaten ohi du, eta ez trailla bera. Eta alabaiña erraiten du Errege Davitek, presuna iustuak trailla bera ere iaten duela. Eta arrazoi-nekin erraiten du hala (Vide August. super hunc ps.). Zeren iustuak trailla hartan ere, ianhari gozo baten iatean bezanbat atsegin hartzen baitu. Gristino onak iaten ditu mundu hunetan bere traillaak, eta bertze munduan. traillauren irabaziak eta fruituak. Zeren trailla hetan, barurtzean, orazinotan egoitean, eta nigar egitean ere, epherki iatean baiño atseginago hartzen baitu.

Fuerunt mihi lachrymae meae, panes die ac nocte, dio Profetak (Psalm. 41). Ene gauazko, eta egunazko ogia, nigarrak izan ziren. Ogiz asetzean bezanbat, atsegin hartzen nuen, nigar egitean. *Gaudet iniquus in pompa, gaudet martyr in catena* (August. in Psalm. 137). Gaixtoak munduko banalorietan, ponperietan, bonbazietan, eta handirasuntan hartzen du atsegin eta plazer: eta martirak, iustuak, gartzelean, traillaetan, eta gathean. Eta martir hark atseginago hartzen du bere traillaetan, eta lainkoagatik iragaiten dituen penetan, gaixtoak munduko plazere-tan baiño. Zeren San Agustinek dioen bezala: *Maiores est suavitas mentis, quam ventris* (August. de Verbis Domini serm. 28). Handiagoa da arimaren konsolamendua, eta bere gogara, gorputzarena baiño, adimenduaren atsegina sabelarena baiño, eta barreneko bozkarioa, kanpokoa baiño.

Nola gaixtoek, munduko atseginetan, ian edanean, io-koan, eta bertze plazeretan dabilzanek, ezpaitute barur-tzearen, orazinoaren, eta bertze berthutén barreneko mamia, kanpoko azala baizen ikhusten, ezpaitute penitenzian, eta penitenziazko obrétan estalirik dagoen gozotasuna frogatzen, uste dute ezen penitenziak eztuela bat ere ontasunik, atseginik, eta plazerik; eta izaitekotz ere, bertze munduan izanen duela, eta ez hemen. Eta nola bertze mundukoa baita geroko, erraiten dute, eztutela presenteko plazera, geroko esperantzagatik utzi nahi. Eta erraiten dute hunela, zeren baitakusate ezen berthuteak, lainkoaren lege sailduak, kanpoko iduria, eta figura duela itsusi, latz, eta gaitz. Eta handik kanpoko gaitztasun hark iziturik, utzten dute barreneko mamia, eta hartzen dute kanpoko azala.

Emaztétara emana den batek, eztu uste, emaztékin segitu gabe, nehor bizi ahal ditekeiela. Baldin erran badiazozu badela anhitz segitzen eztuenik, eztu sinhesten. Zeren ezpaita bera eguiten.

Iokari bati, arnegari bati, edale bati, edo halako bertze iende thailluei, iduritzen zaie ezen bizio hetan dela, plazer guztia; eta berthuteak, lainkoaren zerbitzatzeak, manamenduen konplitzeak, eztuela bat ere atseginik, eta ez plazerik, penarik, eta atsekaberik baizen. Baiña enganutzen dira, eztakitenak bezala mintzo dira. Eztute egundaino frogatu, eztute egundaino lainkoa zerbitzatu, eta gero erraiten dute gaitz dela lainkoaren zerbitzatzea: dastatu eztuten bianda arbuiazen dute, eztakiten gauza kondernatzen dute. Gaitz da, itsuak kolorèn berri iakitea, gorri, ala more den ezagutzea, hartan sententzia emaita. Saildu guztiek erran dute, eskiribuz ezarri dute, lainkoaren uzta-rria plazent dela, haren lege saildua erraz dela, beraz hek, nola berak frogatuak baitira, sinhetsiako behar dira, bat ere berririk iakin gabe bere plazerera mintzo direnak baiño. Eztu egundaino nehork lainkoaren lege saildua es-

kuztatu, eta frogatu, non ezpaitu milla ontasun, eta laudorio, lege hartaz erran, eta kontatu.

Deabruak emaiten derauzte bere iendei bere atsegin, eta plazer moldeak. Zer, bada, Iainkoa izanen da hain idor, eta on-edeki, non utziko baititu bere adiskideak, eta zerbitzariak, atsegindasun mokho bat ere gabe? Zein parte estimatzen duzu hobe, Iainkoarena ala Deabruarena? Baldin ba Iainkoarena? Beraz Iainkoaren atseginak eta plazerak ere hobeagoak, eta handiagoak izanen dira Deabruarenak baiño. (323-325).

Teologi gogoetak

Konzientzia

Erraiten du San Tomasek, eta frogatzen den gauza da, gure laungoikoak ereiña eta landatua dadukala gure baithan barrena, iakin behar diren gauzen iakiteko, eta egin behar direnen egiteko hazia eta landarea (S. Thom. 1 part. p. 79, art. 2). Badu gutarik bat bederak, bere baithan barrena, Iainkoak emanikako aitzindari bat, kidari bat, eta argi egille bat. Eta hark erakusten deraku zer dagokun ongi eta zer gaizki: noiz goazin makhur eta noiz artez. Eta are gehiago,

hark berak bere ahal guztiaz, aitzinatzen eta bulkhatzen gaitu ongi egitera, eta gibelatzen eta hastantzen gaizki egitetik.

Barreneko aitzindari haur edo argi egille haur –zein deitzen baitute doktorek *Synderesis*–, da gure konzientzia edo arrazoi naturala. Zeren ezta munduan halako aitzindariarik, gidaririk, argi-egillerik eta ez erakuslerik, nola baita arrazoin naturala, eta arrazoin naturalak dioena: naturaren arauaz, legez eta ethorkiz dakiguna: bat bederaren barrena, konzientzia: eta konzientziaren lehenbiziko mugida, abiadura, erakuspena eta konseillua.

Hala erraiten du San Krisostomok: *Ab initio Deus hominem formans, legem illi naturalem indidit. Et quid, tandem, est lex naturalis? Conscientiam nobis expressit, et per se discibilem constituit bonorum et contrariorum scientiam. Non, enim, opus habemus discere quod mala est fornicatio, sed ab initio hoc scimus* (Chrys. Hom. 12 ad popul. Anthio. T. 5). Hastetik, egin zuenetik beretik, eman zeraukan lainkoak gizonari lege naturala. Eta zer da lege naturala? Bat bederaren konzientzia, zeinetan barrena baitago, bere buruzko ezagutza bat, iakiteko zein den zuzen eta zein makhur: zein den ongi eta zein gaizki: halako moldezen ezpaita zer ibilirik frogatzen, gauza gaixtoa dela bekhatua, eta gauza ona berthutea, zeren badakigu haur gerok ere geure burutik, lege naturalak berak, konzientziak erakutsirik.

Hunetan da ageri maite gaituela geure laungoikoak. Zeren geure baithan barrena, geure etxean, bertzetara konseillatzera ioaiteko premia gabe, emaiten baiteraku behar dugun nabusia eta erakuslea, zein baita konzientzia. Eta halatan kondenatzen dira lege naturalaren arauaz bizitzen ezitiren ientilak.

Merkatari batzuek egiten dituzte sal-erosi nahasiak,

tratu gaixtoak, lukureriazkoak, enganamenduz betheak. Eta gero ioaiten dira bere kofesoretara edo bertzetara, galdegitera, ea tratu hek iustu direnz, egin ahal ditezkeienz. Eta ioaiten dira mengoa gabe, premia gutirekin. Zeren hain da klar eztirela iustu, non baldin bertzetan ibili gabe, galdegin baliazote berèk bere konzientziari hark berak erakuts baillizaie egia. Eta handik berèk kondena baillitzakete bere buruak. Zeren bere konzientzian barrena, ediren baillizakete, eskiribaturik bezala, galdez dauden guztiaren errepuesta.

Utzi nahi badigu konzientziari, bera da asko, errebelatzerik begiratzeko, artez eta xuxen erabiltzeko. Zeren badaki behar dena, eta bere egitez guztia da onera emana. Eta San Tomasek dioen bezala, ontasunari egiten dio besta eta begitarte, eta gaixtatasunari liskar eta beltzuri; *Synderesis dicitur instigare ad bonum, et murmurare de malo* (S. Thom. 1 pars q. 79 art. 13). Beraz bere konzientziaren arauaz, haren buruz eta konseilluz gobernatzen eta kidatzen dena ongi da, alegera da, kontent eta pagu da. Baiña bertzela, bere konzientziaren kontra dabillana gaizki da, beltz, ilhun, goibel eta triste da.

Eta arrazoiñekin da hala. Zeren nola, zangoa, besoa edo gorputzeko bertze parte bat, bere tokitik eta iunturatik ilkitzen, makhurtzen, aldaratzen edo enhardatzen denean ezin sosega baititeke, eta ez pausa, bere tokira eta lekhu-ra bihur arteino: hala bere konzientziari gibela emanik, bekhatutan dagoena ere, nola behar den iunturatik eta arrazoin naturalak erakusten dioen bidetik eta ordenantzatik aldaratua eta iltkia baitago, ezin sosega diteke, eta ez pausa, hala dagoeiño. Bere bidean eta tokian dagoenean, nola baitago bekhaturik eztuenean, orduan da alegera. arrai, aise, kontent eta bere gogara. (272-273).

Ifernua

Handiak eta izigarriak dira ifernuko pena hek. Eta baldin oraiño, pena heken nchoiz akhabatzeko, arintzeko, laburtzeko edo gutitzeko esperantzarik baliz ere: badirudi balizatekeiela zenbait konsolamendu. Baiña hanbat pena, hain handiak, eta finik ez, eta ez finik izaiteko ustetik ere, haur da gauza latza, haur da aitzin gibel belia arazitzeko, eta gogoeta eragiteko, pondu izigarria. Zeren esperantzarik eztena, presenteko penak bezala, ethorkizunekoak ere penatzen du: hura ere ikhusten du: hura ere presentean bezala, eta bere gaiñean bezala daduka. Zeren baitaki harentzat dagoela, eta eztela akhabatuko.

Orai hemen dolorez, eta oinhazez inguratua zaudenean ere, edireiten da zenbait bide hats hartzeko, eta konsolatzeko. Eri zarenean, ethortzen zaizkitzu adiskideak ikhustera, eta hek aphur bat gaitza arintzen deratzute. Midikua bisitatzera, hark ere esportzatzen zaitu. Eta guztien gaiñetik bethiere bizi zara, gaitza arinduko zaitzulako esperantzan, eta esperantza hark konsolamendu handia emaiten deratzu. Baiña ifernuko eritasunean, hango penetan, halako moldez daude esperantzaren atheak hertsia, eta portuak hartuak, non hala dauden dolorezkoek eta han daudenek, ezpaitute nehondikan ere konsolamenduren saitzeko argirik ikhusten. *Clausula est ianua*. Hertsia da hala koentzat miseriardiaren athea, urrikalmenduarena, garaiaarena, finean ontasan guztiena.

Aberats abariziosa, ifernutik, erratzen zegoen lekhotik, hasi zeikan oihuz, eta othoitzez Abrahani, erraiten zioela: Aita Abraham, badakusazu nola nagoen, su hunetan errea, eta idor elkhortua, euzu bada nitzaz miseriardia: eta egor iazadazu Lazaro, hark bere erhi puntaz, urean bustirik, mihian utki nazan, aphur bat heza nazan. Eske haur egiten deratzut, haur de ene othoitza.

Zer eske eskasagorik, edo othoitz ttipiagorik egin ahal ziazaion? Etzeikan ausartu othoitztera egor ziazola pitxer bat ur, edo esku guztia urean sar zezala, eta ez are, erhi guztia ere. Baiña haren desirkunde guztia zen, erhi punta urean sar zezan, eta hartaz mihia utki ziazon, plazer hura egin ziazon. Gauza aphurra zen, desirkunde ttipia zen. Baiña hura ere, ttipiako bazen ere, etzuen erdietsi, hainbertze plazer ere etzeikan cgin. lakin dezagun ezen hartaraz gero, den plazerik ttipienari, eta konsolamendurik aphurrenari ere, atheak hertsia zaitztela.

Itsas zabalean erortzen denak, badarabiltza zerbaiti lothu nahiz eskuak, hersteintu: baiña alferrik. Zeren eztu linburtzen, eta itzurtzen zaikan ur enganagarririk baizen edireiten. Hala gerthatzen zaie bada, ifernu zabal, hondar gabea, erortzen direnei ere. Eztute edireiten, non oiña fintka: eztute edireiten, zeri lot: eztute edireiten girthaiñik, esku-tokirik, sostengurik, eta ez konsolatzeko biderik, eta ez esperantzarik.

Bada konsolamendu gabeko, fin gabeko, eta fin izaiteko esperantzarik gabeko pontu hunetan, nahi nuke iben bazinitza begiak, huni beha baziniazo, haur konsidera bazeneza: eta animalia suerte batzuek, gauaz hausnaur egiten duten bezala, zuk ere gauza hunetzaz, zenbait aldiz bedere, hausnaur, eta gogoeta egin bazeneza.

Eta hunetakotzat, konsidera ezazu, eriak gau luzean iragaiten duen trabaillua, guztiz ere eritasuna zorrotza, eta bortitza denean: nola irautkalzen den: nola orenak kontatzen dituen: zein luze iduritzen zaitzan, eta nola argia desiratzen duen. Bada baldin hemengo eriar, hemengo gaua, hain fite iragaiten dena, hain luze iduritzen bazaika: Zer idurituko zaika ifernuan dagoenari, hango gau luze eterno, fin gabeko hura? Ha gau luzea, gau beltz, ilhun, izigarria, art-urratze gabea, oillarierik izanen eztuena, sekulan argituko eztena, eta ez akhabatuko! Zer pena, zer do-

lore, eta ondiko izanen da, argituko ezten gau hartan, ez hemengo eriak bezala, ohe bero onean, baiña labe guri beroan, sugina gogorrean sekulakotzat etzatea, eta egoitea? Arrazoinekin galdegiten du Isaias Profetak: *Quis habitabit de vobis cum igne devorante? Quis habitabit de vobis cum ardoribus sempiternis?* (Is. 33). Halako lekhuian, hain su beroan, gar eternalean, nor egonen da? Nor biziko da? Nork iraunen du? Nork izanen du sorbaldarik sostengatzeko? Indarrik iasaiteko? Eta pairurik, eta pazientziarik sofritzeko? Orai hemen, den penarik ttipienak, su ihar batek, kilikatzen zaitu, asaldatzen zaitu; zer izanen da bada, suz eta kharrez, kanpoan eta barrenean, ariman eta gorputzean hartua, inguratua, eta burdin goritua bezala, goritua, eta sutua zaudenean? eta sekulakotzat hala egon beharko duzunean? Othe dugu zentzurik? Othe dugu adimendurik? Ala elheak, ametsak, edo gezurrak, othe dira hauk? Edo gurekin mintzo othe dira? Guri othe dagozkigu, ala bertzeri? Fedeak erraiten deraku guri dagozkigula, gurekin mintzo direla, gureak eta guretzat direla. Eta eztirela ez elheak, ez ametsak, eta ez gezurrak: baiña egiak, eta egiazki (baldin hobeki gobernatzen ezpagarra) iragan beharko ditugunak direla. Edo hobeki minzatzera: behin ere iragan gabe, bethiere egoitzaz, gurekin egonen direnak direla. (384-385).

Gorputz mistikoa

Pairu eta pazientzia izaiteko, bata bertzearekin ez haserretzeko, konsidera dezagun, ezen Adanen seme guztiok, eta guztiz ere giristinok, gorputz bat garel, eta gorputz hunen buru Iesu Kristo gure Salbatzaillea dela. Hala erraiten du Iondone Paulok: *Unum corpus sumus in Christo Iesu, singuli autem alter alterius membra*. Gorputz bat gara Iesu Kristo baithan, eta bat bertzearen mienbro eta parte. Beraz hunelatan elkhar onhetsi behar dugu,

gorputzeko mienbroek eta partèk elkhar onhesten duten bezala.

Gorputzeko mienbroetan ezta inbidiarik eta ez mendekurik. Oïñak zerbitzatzan du eskua, eta eskuak oïña. Oïñari behaztopatuagatik, ezta eskuak kolperik emaiten. Hortzek mihia autsikitzen dutenean, nork hargatik atheratzeintu hortzak? Begiak lekhu goragoan daude oïñak baiño, orde hargatik begiek ezertan dadutzate oïñak, estimatzeintuzte, eztuzte arbuiatzen. Aitzitik ahal dagiten guztia elkharri laguntzen zaitza, eta baldin egiten ezpazaitza, bere kaltetan faltatzen dute: zeren baldin begiek argitzen ezpaderaeza oïñei, oïñak behaztopatuko dira, eta begiak iraziko. Sabelak iaten ezpadu, zangoak flakatuko dira, eta bai sabela bera ere ihartuko. Ez laguntzea, bat bederak bere kaltetan egiten du. Eta halatan haur ikhususirik, guztiek elkhar dadukate, elkharri laguntzen zaitza, elkhar onhesten dute. Eta bata bertzeari zerbaitetan huts eginagatik, elkharri pairatzen eta barkhatzen diote. Hala bada guk ere elkharri pairatu eta barkhatu behar diogu, eta amorio eduki, zeren gorputz bat, eta gorputz batetako mienbroak eta parteak baikara. (209).

Controversia de auxiliis

Galdegiten dute teologoek ea zer arrazoiñez, edo zergatik deitzen diren bekhatore batzuk, bertzeren artetik ostinatuak, gogortuak, itsutuak eta lainkoak berak ere utziak? Eta lainkoaren aldetik denaz bezan batean, ezta erraz iakiten, ezta erraz arrazoinaren eta diferenziaren emaiten eta edireiten. Zeren lainkoak hala bekhatutan gogortuei, nola gaiñerako bertzek bekhatore guztiei emaiten deraue, mundu hunetan direiño, salbatzeko, eta bekhatuetarik ilkitzeko, asko duten bezain bertzek garazia, laguntza eta fabor. Haren aldetik bada behar dena, ezta handik deusen faltarik, eta ez eskasik. Hark iguzkiak bezala egiten du, onei eta gaixtoei, guztiei argitzen deraue. *Solem suum*

oriri facit super bonos et malos (Mt. 5). Eta Iondone Paulok dioen bezala, Iainkoak nahi du guztiak salba ditezin. *Qui vult omnes homines salvos fieri* (2 Tim. 2). Eta halaber guztien athei dagote, guztietan deitzen du, ideki baliatzote nahiz. *Ego sto ad ostium et pulso* (Apoc. 3).

Ordea guztiarekin ere nola anhitz lekhitan, erraiten baitu Skritura Sainduak, bekhatore batzuk, bertzeen artetik direla gogortuak, itsutuak, eta Iainkoak ere utziak, eta are Iainkoak berak itsutzen, eta gogortzen dituela: badirudi behar lizatekeiela Iainkoaren aldetik ere bilhatu, eta eman zenbait kausa, arrazoin, eta diferentzia (Ego indurabo cor Pharaonis: Ex. 4. Quem vult indurat: Rom. 9. Exceca cor populi huius: Is. 6). Eta edireiteko, iakin behar duzue ezen, ikhusten duenean gure Iainkoak, nola gauden bekhatutan sarthuak, anhitz enseiu, eta pensu egiten duela, gure bekhatu hetarik atheratzeko. Anhitz maiñaz, eta trazaz usatzen duela, gure bide onean ibentzeko. Nola geure borondatea geure eskuko baitugu, nola nahi badugu baietz, eta nahi ezpadugu ezetz erraiteko libre baikara: geure borundate libre hunen araubaz, deusetan ere bortxatu gabe, deitzen, eta thiratzten gaitu Iainkoak beregana. Eta komunzki lehenbiziko aldian, ezkaitu ozentki, eta bortitzki deitzen Iondone Paulo bat deitu zuen bezala. Baiña deitzen gaitu aphur bana, emeki, eztiki, maiñaz, konzientzia alhatuz, eritasunak emanez, bere predikarien erranez eta anhitz bertze moldez. Eta hunela lehenbiziko deitzen eta thiratzten gaituenean ihardesten badiogu, hurbiltzen bagatzaitza, gero bigarreanean, bizikiago, eta sendokiago deitzen eta thiratzten gaitu: eta hala, hala hirugarrenean, eta aitzinat ere. Halako moldez, non azkenean osoki, eta konplutuki, kanpotik eta barrenetik deiturik, eta faboraturik, bere garazian, eta adiskidetasunean, bekhatu guztiak barkaturik ibentzen baikaitu. Ordea lehenbiziko deitze, thiratzte eta fabore ezti komun hetzaz konturik egiten eztugunean, hetzaz probetxatzen ezkarenean, hek errezibitzen eztitugunean, bihurtzen bada ere, oraiño berriz, leheneko fabore

hetara beretara, eta oraiño orduan ere deitzen bagaitu ere, asko den bezain bertze: eta aitzinerat ere prestik badago ere, molde berean, lehen bezala deitzeko eta faboratzeko: ez ordea orduan, ezta komunzki aitzinago iragaiten. Erran nahi dut, lehen bezala bai, baiña ezkaituela orduan, lehen baiño bortizkiago, eta sendokiago deitzen, eta faboratzen. Eta haur geure faltaz. Hala erraiten du ene eskola-nabusi batek: *Obstinati, excaecati, ob suam culpam vix aut numquam utuntur bene prioribus auxiliis, atque ita non accipiunt posteriora illa auxilia, quae reliquis peccatoribus saepe donantur* (Zumel). Ezterauzkigu emaiten fabore bere gaññezkoak, abantaillezkoak, eta emendailluzkoak, zeren ezpaititugu errezibitzen komunak eta ardurakoak. Edekitzen derauzkigu bigarrenak, zeren gaizki usatzen baitugu lehenbizikoez. Zeren baldin gauza ttipian, eta aphurrean leial dena, arrazoin bada, handiagoan ere enplega dadin: *Quia in pauca fuisti fidelis, supra multa te constituam* (Mt. 25). Badirudi bertze aldera, leial eztenari, emanen zeikana ere edeki behar zaikala. Ongi da, eta merezia da aitzineko fabore ttipiez konturik egiten eztuenari, eztakitzan eman handiak. Gureak dira faltak.

Zeren San Agustinek dioen bezala: *Numquam prius Deus deserit hominem, nisi prius ab homine deseratur* (Aug. serm. 88 de tempore tom. 10). Eztu behin ere lainkoak utzten gizona, baldin gizonak lehenik utz ezpadeza lainkoa. Fabore komunak, ardurakoak, eta asko diren bezain bertzekoak, emaiten derauzte gogortuei eta ostinatuei ere, ez ordea beregaññezkoak, eta abantaillezkoak. Eta ageri da ezetz. Zeren nola anhitz baitoha garaziatik garaziarra, laguntzatik laguntzara, eta faboretik faborera, fabore beregaññezkoak, ardurakoak baiño handiagoak dituztenak, berehala lehenbiziko ukitzean sentikortzen dira, bide onean iartzen dira. *Ad cuius tactum, commota sunt viscera eius* (Cantic. 5). Edo behintzat badute bere baithan barrena, atseabe bat, konzientziaren alhaldura eta minberadura handi bat: hain handia, non ezin ongi bere bekhatuetañ iar

baititezke eta ez sosega. Baiña fabore beregaiñezkorik, komunak eta ardurakoak baiña handiagorik izaiten eztutenek, eztute konzientziaren halako alhadura handirik eta beldurtasunik izaiten. Aitzitik sosegatuki, presuna seguruak bezala daude, eta hala egoitea da heken loria. Hala erraiten du halakoez mintzo dela Spiritu Sainduak: *Lae-tantur cum male fecerint et exultant in rebus pessimis* (Prov. 2). Gaizki egitean, eta egin ondoan, guztietan atsegin hartzen dute, hartan loriatzen dira. *Impius cum in profundum malorum venerit, contemnit* (Prov. 18). Gaiztoak bekhatuen hosinean sarthuz gero eta hetan luzaro usatuz gero, eztu antsiarik, eztaduka konturik, gaiñerakoak sentitu gabe egiteintu. Eta badio Iobek ere: *Bibunt iniquitatem sicut aquam* (Job. 15). Presuna egarriak ur hotza bezala, edaten dituzte bekhatuak. Erran nahi du: erraxki eta hartan atsegin hartzen dutela. Halakoei nola lainkoarekin etsai baitira, eta etsai ere barrena, ezterauzte emaiten bere adiskidei, edo gutiago etsai direnei emaiten derauzten ernetasun, iratzarpentasun, barreneko berotasun eta bertze fabore handi batzuk. Eta hek ez emanez gero, berak bere faltaz itsutzen, gogortzen, eta ez ansiatzen dira. Hala erraiten du San Agustinek Faraonez mintzo dela: *Quid est quod dixit: ego indurabo cor Pharaonis, nisi cum abfuerit gratia mea, obduret illum nequitia sua?* (Aug. serm. 88 de tempore qui est primus de Pharao. tom. 10). Lainkoak bekhatorearen utzte, itsutzea, eta gogortzea ezta ez lainkoak berak itsutasun haren eta gogortasunaren emaita eta ibentzea. Baiña hura da, lainkoak ez argitzea, ez beratzea, fabore bizi handi beregaiñezko heken, bekhatoreak berak, hala kausaturik, ez emaita: eta handik itsutzero eta gogortzero utzte. Hunela aditu behar da, eta haur da, lainkoaren aldetik eman ahal ditekeien arrazoiña, zergatik erraiten den, bekhatore batzuk, bertzen artetik, direla itsutuak, eta gogortuak, eta lainkoak itsutzen eta gogortzen dituela. Erran nahi du: bigarren fabore handiak bere faltaz ezterauztela emaiten, eta itsu eta gogor ditezin permititzen duela. (69-70).

Alegiak eta ipuinak

Uraren pareko gara

Bethi goazi, ezkara behin ere baratzen. *Quasi aqua dilabimur* (2 Reg. 1). Uraren pare gara: ura bezala linburtzen gara. *Corpora nostra rapiuntur, fluminum more* (Senec. epist. 58). Gure gorpuzak ur-lasterra bezala dohazi. *In idem flumen bis non descendimus: manet idem fluminis nomen, aqua transmissa est* (Senec. ibid.). Ezkara behin ere ur batetan biatan sartzen (dio Senekak), uraren izena bethi da bat, ez ordea ura. Zeren nola bethi baitoha, eta bethi aldatuaz, ezta behin

ere lehen. Ez eta bada gu ere, nola bethiere baikoazi, eta bethi aldatuaz, eta muthatuaz, ezkara behin ere lehenak. Eta ezpere beha ezazu nola presuna bat gaztetik zahartzera, eta are batzutan urthetik urthera ere, aldatzen eta ezeztatzen den idurian ere, lehen. ez tirudiela iartzen den, zein diferent egiten den.

Vita nostra naviganti similis est, is namque qui navigat, stat, iacet, vadit, quia impulsu navis ducitur (Greg. epist. 26 tom. 2). Gure bizitzea itsasoz dohana bezala da (dio San Gregoriok), itsasoz dohana iatean, edatean, lo dartzanean, eta are iarririk dagoenean ere, badoha, ezta orduan ere baratzen. Zeren untziak, nahi ezpadu ere, berekin baitarama. Hala garamatza badu gu ere geure adinak eta denborak berekin: ezta pausatzerik, ezta gelditzerik, eta ez trikatzerik.

Galdegiten deratzutenean, zenbat urthe ditutzun, eta ihardesten duzunean, hogoi edo hogoi eta hamar ditutzula, zeren zeure kontuan hala baititutzu, badirudi eztuzula ongi ihardesten. Zeren San Agustinek dioen bezala, *anni nostri veniunt, ut eant, non enim veniunt ut stent nobiscum* (August. in psalm. 65). Gure urtheak ethortzen dira ioaiteko, eta ez gurekin egoiteko; iragan dira, beraz ezin derrakegu baitugula. Eta hala, baldin urthe heken buruan, iar bagaitezi hetzaz zer egin diren gogoetan, eztugu deus edirenen. Aitzitik ikhusiko dugu, sentitu gabe, ioan zaizkigula, eta nola eztakigula zahartu garela. *Tempora labuntur, tacitisque senescimus annis* (Ovid. lib. 6 Fasto). Denborak badohazi, eta urthe ixil batzuez, hotsik eta habarrotsik egin gabe zahartzen gara.

Erraiten da, hunelako bizi izatu zen hirur-hogoi urthez, baiña hobeki erran liteke, hil zela hirur hogoi urthez. (Vide Auguts. in psal. 127, tom. 8). Zeren sortzen garenean, hasten gara hiltzen, orduan abiatzen gara, eta ezkara behin ere baratzen. Lehenik hiltzen da haurta-

sunak; haurtasunaren ondoan hiltzen da morrointasuna; morrointasunaren ondoan hiltzen da gaztetasuna; gaztetasunaren ondoan hiltzen da zahartasuna; zahartasunaren ondoan hiltzen da sentontasuna. Adin guztiak el-kharri darraitza: iragaitea eta hiltzea guztia da bat: bata bertzearen ondoan dohazi, halako moldez, ezen azken adina dathorreneko, akhabatu baitirate leheneko guztiak. Zeren San Gregoriok dioen bezala, *ipse enim quotidianus deffectus, quid aliud est, quam quaedam prolixitas mortis?* (Greg. tom 27 super Evang.). Egunetik egunera ahitze eta flakatze hura, zer da, luzaro hiltze bat baizen? Zuzia iratxekirik dagoenean, bizi da, eta orduan hiltzen da, zeren orduan ahitzen baita. Erratzeaz bizitzen da, eta erratzeaz hiltzen da. Hala bada gu ere, bizitzeaz hiltzen gara, eta hiltzeaz bizitzen. Zeren bizitzen garencan hiltzen baikara. Eta zenbatenaz eta gehiago bizitzen baikara, hanbatenaz heriotzeko portura hurbiltzenago gara. Hala erraiten du Senekak: *Quotidie morimur, quotidie enim demitur aliqua pars vitae* (Senec. epist. 24). Egunoro hiltzen gara; zeren egun oro gure bizitzeari zenbait poxin eta parte gutitzen eta edekitzen baitaika. Eta are hazten eta handitzen garenean ere, gure bizia ttipitzen eta laburtzen da. Bethi doha, eta behin ioanez gero, ezta ioan denaren bihurtzerik, eta ez ethorkizunaren segurantzarik. (40-41).

Geroago nekezago

Egia haur eman zeraukan aditzera aingiru batek lehenago mendietan eta ermitetan bizitzen ziren saindu hetarik bati(In vita Arsenii apud Suri tom. 4 pag 257). Hartu zuen aingiru hark gizon baten iduria eta ioan zen mendietako saindu hetarik batengana, eta eskutik harturik, eraman zuen oihanean barrena, eta han erakutsi zeraukan gizon bat, hari zela egur egiten. Eta zama bat eginik, lothu zuenean, hasi zen enseiatzen ea iasan ahal zezakeienz. Bai-

ña hain egin zuen handi, ezen ezin iasanez utzi baitzuen. Utzi zuenean, hasi zen berriz bigarrenean egur egiten, eta bere leheneko zamaren handitzen. Handitu zuenean, hartu zuen eta hasi zen lehen bezala enseiatzen ea iasan ahal zezakeienz. Baiña are orduan gutiago, zeren lehendanik handituago baitzuen. Ordea guztiarekin ere, hasi zan hirugarrenean ere lehiatzen, egur egiten eta bere leheneko zamaren, lehen bezala handitzen, ustez ezen halatan arinduko zeikan, eta erraxkiago iasanen eta eramanen zuen. Saindu onek haur ikhusi zuenean, galdegin zioen aingiruari: Zer erhokeria da haur, uste baitu gizon hunek, berretuz, karga arinduko zeikala? Eta handituz, erraxkiago iasanen eta eramanen duela? Orduan ihardetsi zioen aingiruak: horrela duk bada munduko erhokeria ere, uste baitute bekhatorek bekhatu anhitzekin, karga pisuarekin hobeki *iaikiko direla ariñarekin baiña. Erraiten baitute: orai herabe* dut. Orai eskuen artean darabiltzadan bekhatuak, ezin utz ditzaket: oraiño denbora aphur hatez hautan egon behar dut, bertzerik ere zenbait iratxekitzen derauedala. Baiña gero guztiak utzikoitut, guztietarik iltkiko naiz. Itsutasunaren itsua, erhokeriaren erhoa, uste baituzu ezen gero, hemendik urthe baten, edo biaren buruan, orai baiño bekhatu gehiago duzunean, hosinean barrenago zaudenean, eta orai baiño flakoago zarenean, aisekiago, eta erraxkiago iltkiko zarela. Iltki bekizu erhokeria hori burutik, egotz ezazu zeure gogotik, eta sinhets ezazu, geroago gaitzago izanen dela. Eta Ovidiok dioen bezala: *Qui non est hodie, cras minus aptus erit* (Ovid. lib. 1 de remedio amoris). Egun gai eztena, bihar gutiago izanen da. (58).

Semiramis eta erregeren itsumendua

Gizona delarik ordenatua, emaztearen iaun eta nabusi izaiteko, guztiarekin ere, amorio itsuak, haragiaren aphe-

titu desordenatuak, hausten du ordenantza haur: gizona egiten du emaztearen muthil eta azpiko. Ezta gauza preziatuagorik libertatea eta nabusitasuna den baiño. Bada hala bata nola bertzea galtzeintu amurus itsuak, emaztearen hitz ederrei, eta maiñei behatzen zaienak. Hala galdutituen bere libertatea, nabusitasuna, eta bai azkenean bizia ere Asirioen errege batek, Semiramis, izen hunetako bigarren emazte eder famatu hura zela kausa. Eta izan zen kasua Eliano Greziako eskiribatzaille batek kontatzen duen bezala (Aelian. de varia hist. lib .7). Enzun zuenean errege hark Semiramis haren edertasunaren fama, kilikatu zen, gutiziatu zen: erakharri zuen: ikhusi zuen, eta ikhusi zuen bezain fite, atzeman zen, sua pitztu zen, eta amorio bero itsu batez onhetsi zuen. Eta noiz eta amorio hura baitzegoen goren pontuan, eta graduari, iduriturik ezen orduan zela okhasinorik eta paradarik hoberena nahi zuenaren egiteko, egin zioen emazte gaixtoak othoitz erregeri arren denbora aphur batez, bortz egunez, eman ziazola bere zuen eskua, eta botherea, bitartean utz zezala, erresuman manatzera. Erregek aitzin gibel guti behaturik, eta Salomonen konseilluaz ere kontu guti eginik, zeñiek erraiten baitu: *Non des mulieri potestatem animae tuae, ne ingrediatur in virtute tua et confundaris* (Eccl. 9). Eztemozula emazteari zeure duzun eskua eta botherea, nahi ezpaduzu zeure burua ahalketan ikhusi. Baiña maliziarik edo enganamendurik ahal zatekeienz gogora ere gabe, erran zioen deblauki erregek, baietz, deusetan ere dudatu gabe: eta are berak lehenik agur egin zioen; berak bere eskuz koroa buruan ibeni zioen: eta manatu zuen, biziaren penan, hurreneko bortz egunetan Semiramis hark manatzen zuen guztia egin zedilla. Eta hain aitzina iragan zen egitekoa, non ikhusi zuenean emazte gaixtoak, nola zen obeditua, manatu baitzuen errege berari burua edeki ziazotela. Eta nik eztakit nola hartu zuen erregek egitekoa, baiña berehala manua konplitu zen, eta trufan, burlan burua edeki zioten. Eta gelditu zen Semiramis errege eta erregina:

eta errege itsua bere erresuma eta bizia galdurik deshorezki finatua. Ikhusazu zer egiten duen emazteak, eta emaztetako amorio desordenatuak, nola gizona itsutzen duen; nola zer hari den eztakiela, milla erhokeria egiten duela, eta bere buruaren iaun eta iabe ezten bezala ibentzen duen. (229).

Bibliografia

Axularri buruz bildu ahal izan dugun guztia sartzen dugu. Gainerakoan, liburu honen gaiaz zer-ikusi duten zenbait lan aipatzen dira.

AJURIA (KARMELO), *Axular-en «Gero». Adjetibu posesiboen azterketa*. «Egan» 1971, 32-41.

ALTADILL (J.), *Dos escritores euskaros memorables* [Axular eta Oihenart], «Boletín de la Comisión de Monumentos... de Navarra», 1922, 233-234.

- APESTÉGUY (LAURENT), *Sorginak Lapurdin XVII garren mendean*, «Gure Herria», 1923 eta ondoko urteetan.
- ARESTI (GABRIEL), *Flexiones verbales empleadas por Pedro de Axular en su obra Gero*, «Fontes Linguae Vasconum», 1971, 197.
- AROTÇARENA (S.), *Histoire du protestantisme en Béarn et en Basse-Navarre*, «Gure Herria», 1965 eta 1966 urteetan.
- ARTECHE (JOSE DE), *Saint-Cyran*, Zarauz, 1958.
- AZCONA (JOSE M.^a), *Pierre de Axular y las cuevas de Salamanca*, «Revista Internacional de los Estudios Vascos», X, 53.
- AZKUE (RESURRECCION M.^a DE), *Curiosos documentos copiados en la Biblioteca Imperial de Berlín, de los manuscritos de Guillermo Humboldt, a 5 de agosto de 1922*, «Euskera» VI (1925), 4. zenbakia, 60-66.
- AZPIAZU (I. DE), *Axular. Valor lingüístico y religioso de Gero*, «Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos», 1957, 27-32.
- AZURMENDI (JOXE), *Hi haiz Axular eta Axularrekin (olerkiak)*, «Hitz Berdeak» liburuan, Arantzazu, 1971.
- BAIGOURAKO ARTZAINA, *Axular (olerkia)*, «Gure Herria», 1926, 57-60.
- BARANDIARAN (J. M.), *Axularren eginkizunak eta Axularren izena*, «Euskera», 1956, 123-131.
- BARANDIARANGO JOXE MIEL, *Axular chaharraz kondaira pollit zonbait*, «Gure Herria», 1956, 355-364.

- BARANDIARAN (J. M.), *Axularren itzala*, «Gure Herria», 1957, 97-110.
- BARANDIARAN (JOSE MIGUEL), *Bosquejo etnográfico de Sara*, «Anuario de Eusko Folklore» (colección Aunamendi).
- BARBIER (J.), *Trois légendes sur Axular*, «Gure Herria», 1925, 526-539.
- BARBIER (J.), *Axular et les Sorciers*, «Gure Herria», 1925, 598-599.
- BERRUEZO (JOSE), *Akelarre*, San Sebastián, 1962.
- CARO BAROJA (JULIO), *Inquisición, Brujería y Cripto-judaísmo*, Ediciones Ariel, Barcelona, 1970.
- CUERVO (JUSTO), *Obras de Fr. Luis de Granada, de la Orden de Sto. Domingo. Edición crítica y completa por Fr. Justo Cuervo de la misma Orden, Doctor en Filosofía y Letras, Lector de Teología*. Madrid. Imprenta de la Viuda e Hija de Gómez Fuentenebro. Calle de Bordadores, n.º 10, 1906. (14 tomo handi).
- DARANATZ (J. B.), *Henri IV et Axular*, «Revista Internacional de los Estudios Vascos» V (1911), 556.
- DARANATZ (J. B.), *Une lettre missive de Henri IV*, «Bulletin Philologique et Historique», 1915, 92-139.
- DARANATZ (J. B.), *Axular*, «Revista Internacional de los Estudios Vascos», XVIII (1927) 702-703.
- DARANATZ (J. B.), *Curiosités du Pays Basque*, 2 vol., Bayonne, 1927.

DARRICAU (ALBERT), *France et Labourd*, Dax, 1906.

DESTRÉE (ALAIN), *La Basse Navarre et ses institutions de 1620 à la Révolution*, Université de Paris, Faculté de Droit.

DISSANECHÉ (SALVATUS DE), *Approbationes* (Gero liburuaren aztertzaile eta iritzi emaile Elizaren alde-tik. Lehen edizioaren 13. orrialdean dator).

DUCÉRÉ (E.), *Dictionnaire Historique de Bayonne*, 2 vol., Bayonne 1911 eta 1915.

ELEIZALDE (LUIS DE), *Listas alfabéticas de voces topomásticas vascas*, «Revista Internacional de los Estudios Vascos», XIII, XIV, XVIII eta ondoko tomoetan.

ELSO (MARTIN DE), *Le Royal Monastère de San Salvador de Urdax*, «Gernika-Eusko Jakintza», 1947, 241.

ELSO (M.), *Fixation de la frontière navarro-labourdine du Moyen Age*, «Bulletin des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne», octobre 1954.

ELSO (MARTIN), *Histoire d'un village basque: Ainhoa*, «Gure Herria» 1966, lehen eta 2. zenbakiak.

ERKIAGA (EUSEBIO), *Axular handiari, ohore!* (olerkia), «Gure Herria» 1956, 351.

ETCHEBERRI (J.), *Axular aipatu behar litekela*, «Gure Herria», X, 254-256.

ETCHEPARE (JEAN), *Axular (1556-1644)*, «Herria» idazkiak, 1956 (liburuska honetan «Eskualduna»n 1925. urtean agertutako artikulua berriz ematen da).

ETXAIDE (JON), *Amasei Seme Euskalerriko*, Kuliska Sor-
ta 21, Zarautz 1958.

ETXEBERRI SAKAKOA (J.), *Lan Hautatuak*, Lur Edit-
oriala, 1972.

ETXEBERRIA-TAR P., *Axularrekin ikasle* (Euskaltzaindia-
ra bidalia. Argitara gabea).

GAMARRA (GASPAR DE), *La más antigua Historia de
Aránzazu (1648) editada ahora por primera vez*, Vi-
toria 1966 («Scriptorium Victoriense» aldizkarian ager-
tu zen eta liburuskaz bezala ere bai).

GRANADA (LUIS DE), *Guía de Pecadores*. Ikus CUER-
VO (JUSTO).

HARAMBOURE (M.), *Baimena* (Bikario Jeneralaren bai-
mena Geroren 3. edizioa ateratzeko. Ikus 3. edizioa).

HARISTOY (M.) *Recherches historiques sur le Pays Bas-
que*, 2 vol., 1883-1884.

HARISTOY (M.), *Nobleza y Fueros Vascos. Laburdi*. Edi-
torial Auñamendi 1959.

HARISTOY (M.), *Les paroisses du Pays Basque pendant
la période révolutionnaire*, Pau 1895.

HERRITARRA, *Axular-en eguna Saran*, «Gure Herria»
1956, 322.

HUARTE DE SAN JUAN, *Examen de ingenios*, 2 vol.,
Madrid 1930.

IBAR, *Genio y Lengua*, Tolosa 1936.

- IDOATE (FLORENCIO), *La Brujería*, Pamplona 1967.
- INCHAUSPE (M.), *Aitcinsolhasa* (Gero-ren 3. edizioari hitzaurrea).
- INTXAUSPE, *Axularren omenez* (olerkia), «Gure Herria» 1956, 345.
- IRATZEDER, *Axular edo Lurraren kantua* (olerkia), «Axular» izeneko liburuskari. Troisième Centenaire du Gue-ro. Aintzina, 1943.
- IRIGARAY (F.), *Axular euskel idazle geiena*, «Gure Herria» 1924, 448-449.
- IRIGARAI (A.), *Piarres de Axular*, «Egan» 1953, 1-13.
- IRIGARAI (A.), *Liburu hunetan aipatzen diren autoreen izenak* (Gero-ren 4. edizioan, 461 orrialdean).
- KINTANA (X.), *Ukan eta eduki aditzaren esangura berezia Atsularren usuarioan*, «Fontes Linguae Vasconum» III (1971), 193.
- LABAYEN (A.), *Axular-en Bizitzea eta Oroitzapena*, «Gure Herria» 1956, 333-340.
- LACOMBE (Georges), *Varia sur Axular et son livre*, («Axular» izeneko liburuskari. Troisième centenaire du Gue-ro, Aintzina, 1943. Lan hau berriz emana izan zen «Gure Herria»n 1956, 364-370.
- LACROIX (FRANÇOIS), *Baimena* (Baionako Apezpikuaren baimena Gero-ren 3. edizioa argitaratzeko. Ikus liburuan berean).
- LAFITTE (P.), *Gero-aren bilduma* («Axular» izeneko li-

- buruskan. Troisième centenaire du Guero, Aintzina 1943), 25-29.
- LAFITTE (P.), *Les citations d' Axular* («Axular» izeneko liburuskan. Troisième centenaire du Guero, Aintzina, 1943), 38-39.
- LAFFITE (P.), *Le Basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse Navarre et Soule*, Bayonne 1941.
- LAFITTE (P.), *Axular-en liburuaz*, «Gure Herria» 1956, 341.
- LARROULET, Axular (olerkia), «Gure Herria» 1926, 57-60.
- LEKUONA (M.), *Aintzin-Solas* (Gero-ren 4. edizioaren hitzaurrea), Zarautz, 1954.
- LÉON (L.), *Zer egin zen Axularren itzala?* («Axular» izeneko liburuskan. Troisième centenaire du Guero, Aintzina, 1943), 34-37.
- LUZURIAGA (JUAN DE), *Paraninpho Celeste. Historia de la Mystica zarza, Milagrosa Imagen y prodigioso Santuario de Aranzazu*, México 1686.
- MANTEROLA (J.), *Autógrafos y noticias de Pedro de Axular, Silvain Pouvreau, Arnauld Oihenart, Alonso de Ercilla*, «Euskal Erria» 1881, III, 106-110.
- MICHEL (FRANCISQUE), *Le Pays Basque. Sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*, Paris 1857.
- MITXELENA (LUIS), *Axular. Gero*, «Egan» 1954 (2-4),

39-41. («Idazlan Hautatuak» liburuan berriz emana, 163 orr.).

MICHELENA (LUIS), *Historia de la Literatura Vasca*, Madrid 1960.

MICHELENA (LUIS), *Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos*, «Fontes Linguae Vasconum» III (1971), 149

MITXELENA (LUIS), *Iztegitxo* (Gero-ren 4. edizioan, 463 or.).

MOLINER (JOSÉ M^a DE LA CRUZ), *Historia de la literatura mística en España*, Burgos 1961.

MUXIKA (J.), *Axular-en eguna*, «Gure Herria» 1925, 633-634.

NARBAITZ (P.), *Axular-en egunean elizako predikua*, «Gure Herria» 1956, 325.

OLHAGARAY (J.), *Arantzeko Ama Birjina eta Ainhoko kapera*, Bayonne 1933.

OLHAGARAY (J.), *Arantzeko Ama Birjina edo Ainhoko kapera*, «Gure Herria» 1966, 97-102.

OLORIZ (HERMILIO DE), *Nueva Biografía del Doctor Navarro (Martín de Azpilicueta) y enumeración de sus obras*, Pamplona 1916.

OMAEHEVARRIA (IGNACIO), *Nombres propios y apellidos en el País Vasco y sus contornos*, «Homenaje a D. Julio de Urquijo» deritzaion obran, 2. liburuan, 153 or.

- ORMAETXEA (N., «ORIXE»), *Euskal literaturaren atze edo edesti laburra*, «Euskal Esnalea» 17 (1927).
- ORMAETXEA-OIARTZABAL, *Axular, Mendiburu, Lizardi*, «Euskera» 1958, 17-20.
- OXOBI, *Axular-en eguna*, «Gure Herria» 1925, 439-442.
- OXOBI, *Eskerrak, Axular! (olerkia)*, «Gure Herria» 1963, 210.
- PAMPLONA (GERMAN DE), *El camino de peregrinación jacobea Bayona - Urdax - Velate - Pamplona*, Pamplona 1964.
- PERRIQUET, *Approbationes* (Bikario Jeneralaren baime-na Gero-ren lehen edizioa argitaratzeko. Ikus liburuan berean, 12 or.).
- PIKORT, *Agur, Axular (olerkia)*, «Gure Herria» 1956, 353.
- SAINT-PIERRE (J.), *Axular*, «Gure Herria» 1925, 617-624.
- SAINT-PIERRE (J.), *Axular-en hitz moldeaz* («Axular» izeneko liburuskan. Troisième centenaire du Guero, Aintzina, 1943), 30-33.
- SANTA TERESA DE JESUS, *Obras*. Edición y notas del P. Silverio, Burgos 1939.
- SARASOLA (IBON), *Euskal Literaturaren Historia*, Donostia 1971.
- SCHURHAMMER (GEORG), *Francisco Javier. Su vida y su tiempo*, Ed. Mensajero, Bilbao 1969.

SCORRAILLE (RAUL DE), *El P. Francisco Suárez S.J.* (traducción del francés), 2 vol., 1917.

SILVELA (FRANCISCO), *Cartas de la Vble. Sor Maria de Agreda y del Sr. Rey D. Felipe IV*, 2 vol., Madrid 1885.

SOLOETA (F. M.), *Añibarro, traductor del Guero*, «Revista Internacional de los Estudios Vascos» 1910, 592-594.

SOUDRE (J. J.), *Axular* (olerkia), «Gure Herria» 1956, 348.

TAMIZEY DE LARROQUE (J.), *De la date de la 1.^e édition du Guero Guero*, «Revue de Gascogne» 1874, XV, 340.

THALAMAS LABANDIBAR (J.), *El concepto personalista del hombre, según Pedro de Axular y Xabier Zubiri*, «Boletín de Amigos del País», 1971, 221.

URANZU, *Lo que el río vio. Biografía del río Bidasoa*, San Sebastián 1955.

URQUIJO (JULIO), *Obras vascongadas del doctor labor-tano Joannes d'Etcheberri*, Paris 1907. (Ikus Introducción, LXIX or.).

URQUIJO (JULIO DE), *Una observación de M. Dubarat*, «Revista Internacional de los Estudios Vascos» I (1907), 37.

URQUIJO (JULIO DE), *Axular y su libro*, «Revista Internacional de los Estudios Vascos», V, 538; VI, 292, 547.

- URQUIJO (JULIO DE), *Una fuente del Guero (Axular imitador de Fr. Luis de Granada)*, Saint-Jean-de Luz, 1912 (12 orrialde).
- URQUIJO (JULIO DE), *El vascuence de Sara. Otro trabajo de Hugo Schuchardt*, «Euskalerriaren Alde» XII (1922), 241.
- URTHUBIE (PETRUS D.), *Approbationes* (Gero liburuaren aztertzaile eta iritzi emaile Elizaren aldetik. Lehen edizioaren 14. orrialdean dator).
- VEDEL (1847), *Nota descriptiva de Sara* (Traducción de Garmendia-tar Kerman), «Euzkadi» aldizkaria, 1914, 281.
- VEILLET (R.), *Recherches sur la ville et sur l'église de Bayonne*, 3 vol. Bayonne-Pau, 1910-1929.
- VEYRIN(PHILIPPE), *Les Basques de Labourd, de Soule et de Basse Navarre. Leur Histoire et leurs traditions*. Arthaud 1955.
- VEYRIN-GARMENDIA, *Les Chapelles et l'église de Sare*. Extrait du «Bulletin du Musée Basque», 1936-1941.
- VILLASANTE (LUIS), *Literatur euskara laphurtarr klasi-koaren gain eratua*, «Boletín de Amigos del País» 1952, 91-119, 259-298.
- VILLASANTE (LUIS), *Ioannes Etxeberri*, «Baletín de Amigos del País», 1953, 231-243.
- VILLASANTE (LUIS), *Despojo sistemático de la lengua de Axular*, «Euskera» 1956, 49-87; 1957, 55-90; 1959, 11-41; 1961, 31-57.

- VILLASANTE (LUIS), *EL «Guero» ¿es obra original?*, «Euskera» 1962, 5.
- VILLASANTE (LUIS), *Rosario trilingüe de elogios a Axular*, «Aránzazu» 1964 107-109.
- VILLASANTE (LUIS), *Historia de la Literatura Vasca*, Bilbao 1961.
- VILLASANTE (LUIS), *Introducción* (Gero-ren 5. edizioan), Barcelona 1964.
- VILLASANTE (LUIS), *Sor María de Jesús de Agreda a través de su correspondencia epistolar con el Rey*, «Archivo Ibero Americano» 1965, 145.
- VILLASANTE (LUIS), *Axular eta «Gero»*, «Egan» 1967, 1-6, 21 or.
- VILLASANTE (LUIS), *Euskalerriko bazterrak: Urdazubi (Urdax)*, «Aránzazu» 1967, 188.
- VINSON (J.), *Le Guero Guero d'Axular*, «Revue des Bibliophiles», 1880, II, 104-109.
- VINSON (JULIEN), *Essai d'une Bibliographie de la langue basque*, 3, 86-92, 334, 339, 395. Complément et Supplément, 544-546.
- ZERBITZARI (J. ELISSALDE), *Axular* («Axular» izeneko liburuskari. Troisième centenaire du Guero, Aintzina, 1943), 14-18.